# Goienkaria

2009ko apirilaren 3a > Egubakoitza > IX. urtea > 371. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Lehen aldiz, munduko herri aberastu guztiek aldi berean bizi dute krisia"



**Joseba Barandiaran**
Ekonomialaria > 09

**G2a** Orkestra Sinfonikoa sortu dute Arrasaten > 37

**BERGARA** Animalia eta postu ugari bihar, Erramu-zapatuko ferian > 19

**ARETXABALETA** Kirol etxe berriaren proiektua onartu du udalbatzak > 24

**KIROLA** Maider Undak Europako txapelketa hasiko du gaur, Lituanian > 34

**ONDAREA** > BERGARA

# Indusketa arkeologikoa Bergarako Seminarioan

**ELIZA** Seminarioko elizan egingo dute, eta irauten duen artean bisita gidatuak antolatuko dira

**AURKIKUNTZAK** 2007an egindako zundaketan horma zatia eta XVII. mendeko hilobia agertu ziren > 13



**LANEAN** Eskoriatza gaineko autobide tramuan, langile bat azken orduko lanak egiten. XABIER URTZELAI

## Astelehenean zabalduko dute Eskoriatza-Arlaban autobide zatia

Astelehenean zabalduko dute Eskoriatza eta Arlaban arteko AP-1 autobide zatia, eta egun horretarako dena gertu egon dadin langileak azken ordukoak egiten ibili dira aste barruan.

Hala, astelehenetik aurrera Euskal Herriko tunel luzeena erabilgarri egongo da. > 04

**ARANTZAZU** > IBILALDIA

## Bakearen aldeko ibilaldia

Bihar, Elizbarrutiak deitutako ibilaldia Arantzazura > 06

**KULTURA** > MUNDUMIRA

## Egitarau zabala Mundumiran

50 bat ekitaldik osatuko dute aurtengo jaialdia > 05

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47

**EUSKARA** > KORRIKA 16

## Bihar iritsiko da Korrika bailarara

Euskararen aldeko lasterketa erraldoia Osintxutik sartuko da Debagoienera apirilaren 5ean, 00:00etan, eta domeka goizaldean barrena ibiliko da ibarreko herrietan. Guztira 53 kilometro egingo dituzte gurean, eta 82 saldu dira. > 02-03

| | |
|---|---|
| 00:00 | OSINTXU |
| 00:30 | BERGARA |
| 01:00 | ANTZUOLA |
| 04:15 | OÑATI |
| 05:30 | ARRASATE |
| 06:00 | ARETXABALETA |
| 06:20 | ESKORIATZA |
| 07:00 | LEINTZ GATZAGA |



Korrika Txikia, Bergaran, atzo. I.A.

**ERREPIDEAK** > GI-627

## Sei milioi, bailarako errepideak konpontzeko

Aldundiak inbertituko ditu GI-627 errepideko zorua konpontzen eta berritzen. Hiru tarte konponduko ditu: Bergarako eta Arrasate-Aretxabaleta saihesbideak eta Arlaban gaina. > 06

IparProject
www.iparproject.com
Etxebizitzen ekipamendu integrala Merkatuen lehen markak
Mota askotako estiloak Gremioen koordinazioa
Telleria 23, D5 pabilioia Labegaraieta Industrialdea
BERGARA Tel.: 943 76 98 30 Faxa: 943 76 52 44

**EUSKARA** > KORRIKA 16

# Debagoienean, Korrika domeka goizaldean

**KILOMETROAK** Gure ibarrean 53 kilometro egingo ditu Korrikak Osintxun hasi eta Arabako mugara, baina guztira 82 saldu dituzte

**OMENDUAK** Kanpotik etorri eta gurean euskara ikasi dutenak omendu nahi ditu Korrikak aurten, 'Ongi etorri' leloarekin



Aranzadik ikastolako Itziar Muxikak Oxirondoko merkatu plaza aurrean hartu zuen lekukoa.



San Martin Agirre ikastetxekoek hasi zuten Korrika Txikia eskolan eta Matxiategi eta Oxirondon

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > BERGARA

Korrika AEK-k Euskal Herri osoan barrena egiten duen euskararen aldeko lasterketa da. Dagoeneko Euskal Herriko makina bat herri zeharkatu du hamaseigarren edizioan, Tuteran abiatu zenetik. Korrika Txikiak egin dituzte eskola umeek eta lekukoa helduei emanda gure ibarretik domeka goizaldean pasatuko da Gasteizera bidean. 00:00etan Eibartik datorrela Osintxun sartuko da eta Bergarako kaleetan ibili ostean, Antzuolarako bidea hartuko du. Gero Deskargako mendatean gora segi eta Urola bailaran ibili ondoren, Udanan barrena sartuko da berriz Korrika gurera, 03:30ean, eta Oñatitik Elorregira, handik Arrasatera, eta, herria zeharkatu ostean, Aretxabaleta eta Eskoriatza pasatuta Leintz Gatzagara joango dira korrikalariak. Arabako mugan utziko du Korrikak Debagoiena domeka goizean.

Korrikan eskuz esku pasatzen da lekukoa. Hizkuntzaren aldeko kontzientzia suspertzeaz gain, euskaltegien eguneroko jarduera indartzeko dirua biltzea da Korrikaren helburua, eta horretarako kilometroak saltzen dituzte, bakoitza 380 euroren truke, batzuek gehiago ematen badute ere. Udal gehienek, esaterako, 500 euro eman dituzte.

**KILOMETROAK, ZATITAN BANATUTA**

Debagoienean 53 kilometro dira egin beharrekoak, baina gehiago saldu dira: 82, hain zuzen ere. "Herri bakoitzean zenbat kilometro dauden eta zenbat erosi diren ikusita, zatitu egiten dira eta kilometro batean ordezkari batek baino gehiagok eramango du lekukoa", azaldu digu Lur Gaztelu antolatzaileak. "Zaila izaten da banaketa. Jendeak herri barruko kilometroak nahiago ditu, baina kontuan hartu behar da herri artekoak ere egin behar direla. Badakigu gogorra dela, esaterako, Deskargako, Gatzagako edo Udanako kilometroak egitea, baina norbaitek egin behar ditu horiek ere".

**"Jendeak herri barruko kilometroak nahiago ditu, baina kontuan hartu behar da herri artekoak ere egin behar direla, batzuk gogorrak direla jakin arren"**

**Korrika herri bakoitzera iritsi baino ordu erdi lehenago furgoneta bat pasatuko da eta petoak salduko dituzte bost eurotan**

**ASKOTARIKO KORRIKALARIAK**

Kilometroak banatuta daude jadanik eta erosleak ere askotarikoak izan dira: auzotar eta herritar taldeak; lantegi, ikastetxe eta erakundeetako langileak; enpresak, ikastetxeak eta udalak; euskara, kultura, gastronomia, mendizale eta emakume elkarteak; dantza taldeak; gazte taldeak; sindikatuak; alderdi politikoak; unibertsitateak; jai batzordeak; eta jatetxeak, besteak beste. Badira kilometroa erosi arren korrika egingo ez duen talderik ere.

Korrika iritsi arte, korrikalariak ez ezik, giroa berotze aldera, ibarreko herri guztietan ekintzak egongo dira: kontzertuak, jolasak, afariak… Baita korrika pasatu ostean indarrak berreskuratzeko parrandak eta txokolatejanak ere.

**PETOAK SALGAI**

Herri bakoitzean lekukoa eraman behar duenari petoa emango diote dagokion kilometroaren zenbakiarekin. Bada, ordea, Korrikako petoa jantzi nahi izaten duenik. Hortaz, oraindik euskaltegian eskuratu ez baina korrika egiteko petoa jantzi nahi duenak badauka aukera erosteko. "Horretarako, Korrika herri bakoitzera iritsi baino ordu erdi inguru lehenago furgoneta bat ailegatuko da eta han izango dira petoak salgai bost eurotan", esan digu Lur Gazteluk.

Petoak bai; Korrikako materiala, ordea, jadanik erretiratu egin dute herri gehienetan. Antolatzaileen esanetan, "salmentak nahiko ondo joan dira. Uste baino material gutxiago bidali zuten eta politena beti azkar agortzen da, baina saldu dira gauzak...". Arropa erosteko gogoz geratu direnek Korrikaren amaiera jaian, Gasteizko Plaza Berrian dute aukera.

**LELOA: 'ONGI ETORRI'**

Mezu horrekin ongietorria eman nahi zaie batez ere kanpotik etorri eta gurean euskara ikasi dutenei. Baina Korrikari herri bakoitzean ongietorria egitearekin bat, Korrikak beso zabalik hartuko ditu euskalgintzan dabiltzanak, euskaltzaleak, euskaldunak, euskaldundu nahi dutenak, bertokoak eta kanpotik datozenak. Horrenbestez, denak korrika.

**OMENDUAK, KANPOTIK ETORRI ETA EUSKARA IKASI DUTENAK**



**Josu Tornay**
Kataluniarra

"Orain dela 13 urte etorri nintzen eta euskara ikastea eta erabiltzea bihurtu zen nire lehentasuna. Katalunian nire hizkuntzarentzat nahi nuena hemen euskararentzat ere nahi nuen. Aurtengo Korrikan gu omentzeko asmoa zegoela jakiteak hunkitu egin ninduen. Ahalegin handia egin nuen bere garaian, eta nire bizitzako esperientzia politenetarikoa izan da. Ordua ez da erakargarria, baina aurten tokatu egiten zait korrika egitea".



**Chieko Hata**
Japoniarra

"Etorri nintzen orain dela 15 urte eta hemen bizi naizelako erabaki nuen euskara ikastea. Lehenengo gaztelania ikasi nuen eta gero euskaltegietan guztira lau urte eman ditut. Oraindik bukatu ez badut ere, ez dut astirik jarraitzeko. Niretzat ez da berezia Korrikak gu omentzea; izan ere, tokian tokiko hizkuntza ikastea ez da apartekoa. Korrikan ez dut parte hartuko oporrak hartuko ditudalako eta ez naizelako hemen egongo".



**Nora Palmitano**
Argentinarra

"Euskal Herrira etorri nintzenean ikusi nuen jendea beste hizkuntza batean bizi zela hemen. Hortaz, hemen bizi izatea erabaki nuenean euskara ikasten hasi nintzen. Korrikak omenduko gaitu kanpotik etorri eta euskara ikasi dugunok, bai, baina benetan poztuko naiz euskara ikasi eta erabiltzea gauzarik arruntena eta logikoena bilakatzen denean; aparteko merituri k ez den egunean. Korrika egingo dut aurten, jakina!".






Mariaren Lagundikoak pankarta atzean San Pedro eliza parean.




barrena eraman zuten lekukoa, Korrikako autoa gidari zutela.

ARGAZKIAK: IRATI AGIRREAZALDEGI

## Ekitaldiak, herririk herri

**ARRASATE**

**Apirilak 4**

**21:00:** Bertso afaria, Uarkape tabernan.

**Apirilak 5**

**05:10:** Korrikari ongietorria Elorregiko biribilgunean.

**05:30:** Korrika 16ri ongietorria Musakolako San Isidro eliza parean.

**05:40:** Korrika 16ri ongietorria Seber Altuben.

**BERGARA**

**Apirilak 3**

**19:00-21:00:** Erromeria Domingo Irala kalean Jarduneko trikitilariekin; eta Gazte Alai eta Abarka dantza taldeen erakustaldia.

**Apirilak 4**

**22:30:** Erramu-zapatua izanik, Hesian taldearen kontzertua izango da Domingo Irala kalean.

**Apirilak 5**

**00:00:** Korrika 16ri ongietorria Osintxun.

**00:30:** Korrika 16ri ongietorria herri erdialdean.

**OÑATI**

**Apirilak 4**

**18:00-20:00:** Kantu poteoa Ganbara abesbatzarekin.

**18:30:** Txorimaloak.

**19:30:** Oñatiko dantzariak herriko kaleetan barrena.

**22:30:** Bertso saioa Ona aurreko plazatxoan.

**Ondoren:** Kontzertuak Oñatiko musika taldeen eskutik.

**Apirilak 5**

**03:30:** Korrika 16ri ongietorria Udanako gainean.

**04:15:** Korrika 16ri ongietorria herri erdialdean.

**ARETXABALETA**

**Apirilak 3**

**16:30:** Boloa umeendako.

Ondoren: txokolate-jana.

**18:00:** Ludotekako umeen antzerkia Kurtzebarriko aretoan.

**21:00:** Izar erakustaldia herriko plazan.

**Apirilak 5**

**06:00:** Korrika 16ri ongietorria.

**ESKORIATZA**

**Apirilak 3**

**16:30:** Txokolate-jana plazan umeendako.

**Ondoren:** Bertsoak herriko plazan.

**17:30:** Arropa salmenta eta eskulanak herriko plazan.

**Apirilak 4**

**18:00:** Umeendako jolasak herriko plazan.

**19:00:** Txistorra pintxoak eta ardo dastaketa herriko plazan.

**19:00:** Poteoa Eskoriatzako txistulariekin.

**20:00:** Korrikako bideoklipak herriko plazan.

Apirilak 5

**06:20:** Korrika 16ri ongietorria Ederlan parean.

**07:00:** Txokolate-jana plazan.

**ANTZUOLA**

**Apirilak 3**

**19:00:** Bertso-triki poteoa.

Apirilak 4

**11:00-13:00:** Umeendako jolasak frontoian: puzgarriak, marrazki tailerra...

**16:30:** Umeendako zinema Olaranen.

**19:00:** Film laburren emanaldia Olaranen.

**21:00:** Herri afaria frontoian.

**Apirilak 5**

**01:00:** Korrika 16ri ongietorria.

**Ondoren:** txokolate-jana eta opariak plazan.

**Gero:** parranda gaztetxean, karaokea, jolasak...

**LEINTZ GATZAGA**

**Apirilak 3**

**21:00:** Bertso afaria elkartean Mañukorta eta Labaienekin.

**Apirilak 5**

**07:00:** Korrika 16ri ongietorria Marulandan.

**Ondoren:** Gosaria.

KORRIKA 2009REN IBILBIDEA DEBAGOIENEAN




## Osintxun 00:00etan sartu eta goizaldera arte

Osintxutik sartuko da Korrika Debagoienera apirilaren 5ean, 00:00etan. Errepide nagusira irtengo dira Bergararantz, eta San Lorentzotik Amillagan barrena Matxiategira joango dira. Usondo parke ondotik Fraiskozurira, San Martin Agirre plazara eta Espoloian barrena Urteaga kaletik aterako dira Antzuolarako bidea hartuz. Antzuolan, autoendako orain debekatuta dagoen sarreratik hasi eta herri guztia zeharkatuko dute korrikalariek. Antzuola atzean utzi eta Deskargan gora eginda Urola bailarara pasatuko da Korrika.

Udana gainetik sartuko da berriz ibarrean Korrika. Gero, Oñatin barrena ibili eta Zubillaga auzotik Elorregira (San Prudentzio) eta handik Arrasaterako bidea hartuko dute. Maalako Errabaletik alde zaharrera, Portaloira, Herriko Plaza inguratuz buelta egin eta Okoretegiko biribilgunetik, errepide nagusitik Aretxabaletarantz joko du. Aretxabaletan herri barrutik sartuko da, errepide zaharretik, Eskoriatzan ere herri barrutik eta Gatzagara Dorletara hartzeko bidegurutzetik sartu eta plazara igo ondoren errepide nagusitik Arabako mugan utziko dute lekukoa.
















**TRAMU BERRIA IRUDITAN** Goian, langileak azken orduko lanetan; Eskoriatzako irteerako kartela; eta Isuzkitzako tuneleko ihesbideetako bat. Behean, Eskoriatzako sarrera eta Maringo biaduktua . XABIER URTZELAI

**AZPIEGITURAK** > AP-1 AUTOBIDEA

# Astelehenean irekiko dute Eskoriatza eta Arlaban arteko AP-1 autobide zatia

Tarte horretan dago Euskal Herriko tunelik luzeena, 3,3 kilometro luze den Isuzkitzako tunela

Astelehenetik aurrera erabiltzaileak hamabost minutu pasatxotan iritsiko dira Gasteizera

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Konturatu orduko. Horrela iritsiko dira Gasteizera astelehenean Eskoriatzan AP-1 autobidea hartzen dutenek, ibilbide hori egiteko hamabost minutu pasatxo baino ez dira-eta behar –Gasteizko sarrerara–. Aste barruan egin dugu autobideko arduradunek lagunduta Lukurainoko tramua, eta autobideko langileak azken orduko lanak amaitzen ikusi ditugu. Izan ere, astelehenerako denak egon behar du gertu.

**TUNEL LUZEENA**

Astelehenean egongo da erabilgarri Euskal Herri osoko tunelik luzeena, Araba eta Gipuzkoa lotzen dituen Isuzkitzako tunela (3,3 km). Baina autoan ez da tarte hori aurreikusi bezain luzea egiten –hiru minutu–, ez Bergarako Gallastegi tunela (2,4 km) baino askoz ere luzeagoa, behintzat.

Eskoriatzatik, sarbidetik gora egin eta metro gutxitan garaiera handia hartzen du autobideak. Eskumatara utziko dugu Olaeta eta Aingeru Guarda baserriaren artean Bidegik zerbitzugunea jartzeko aurreikusita daukan lur eremua (adjudikatuta daude lan horiek, baina oraindik ez dituzte hasi), eta handik Arabara arte bost biaduktu –Apotzaga (160 metro), Mazmela (404 metro), Zarimutz (468 metro), Marin (548 metro) eta Uztarreta (240 metro)– eta bi tunel –Zarimutz, 420 metro, eta Arlaban, 3.377 metro– igaro behar dira.

Hain zuzen ere, Zarimuzko tunelean izandako lur-jausiek eragin zuten lanotan izandako azken atzerapena, eta aurrera egiteko arduradunek tarte horretako proiektua bera ere aldatu egin behar izan zuten.

Zarimuzko tunela atzean utzita, Isuzkitzako tunelera iritsi aurretik dagoen azken biaduktua da ikusgarriena, Maringoa. Izan ere, 548 metro luze izatearekin batera, biaduktu horrek 100 metroko garaiera dauka. Eta ondoren dator tunel luzea, Europako seguruenetakoa izendatu dutena –norabide biak lotzen dituen bederatzi ihesbide izango ditu, eta suteen kontrako sistema, aireztatze sistema, bozgorailuak, eta telebista sistema itxia izango ditu–. Guztira 740 milioi euro erabiliko dira Eibar eta Gasteiz autobidez lotzeko, eta horietako 600 milioi Gipuzkoari dagozkio. Izan ere, tarte horretako hamabi tuneletako bakarra dago Araban.

## Eskoriatzatik Gasteizera doan, dena zabaldu arte

AP-1 autobidea osorik amaitu arte Eskoriatza eta Gasteiz arteko zatia doan izango da. Eskoriatza eta Arrasate arteko autobide zatian, Apotzagako tunel ondoan izan diren lur-jausiek sortu dituzte azken atzerapenak, baina Bidegik aurreikusten du ekainean amaituko dutela AP-1 amaitzeko geratzen den tramua.

Hala, ekainetik aurrera Eibartik Gasteizera joateko –46 kilometro– erabiltzaileak 25 minutu beharko ditu, eta, prezioa zehaztu gabe badago ere, 5,5 euro inguru izango da.



Eskoriatzako ordainlekuak ekainera arte ez du erabilpenik izango. XABIER URTZELAI

**MUNDUMIRA** > AURKEZPENA ESKORIATZAN

# Bosgarren aldiz gurean izango da munduko kulturen jaia

Jaialdia maiatzaren 22an, 23an eta 24an ospatuko da; aurreko ekitaldietan moduan, hainbat ekitaldi egongo dira ikusgai

Izango diren ikuskizunen artean aipatzekoak dira, besteak beste, Macaco, Zura taldea eta 17 Hippies

**JASONE ZABALA** > ESKORIATZA

Mundumira 2009 maiatzaren 22an, 23an eta 24an ospatuko da Eskoriatzan, eta ekitaldiaren aurkezpena egin dute asteon. Bosgarren ekitaldia izango da; aurrez, Arrasaten, Oñatin, Aretxabaleta eta Bergaran egin dute.

Aurtengo Mundumira ere kaleak musikaz eta kolorez beteriko festa bilakatzeko helburuarekin antolatu dute. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute, oinarrizkoak diren lau ardatzen inguruan: kalea; bost kontinenteetako musika; mendia, natura eta bidaiak; eta gizarte ekimena.

**EKIMENARI EUTSI**

Besteak beste, han egongo dira Macaco musikari kataluniarra, 17 Hippies alemaniarrak eta Euskal Herriko Zura taldea. Nabarmentzekoak hiru gune izango dira: erdiko kalean, gastronomia postuak, GKEen azoka eta kale ikuskizunak izango dira; udaletxeko plazan, Korrontzi eta Zura taldeen eta DJ Marek-en emanaldiak,; eta unibertsitateko aparkalekuan, ikus-entzunezkoak eta musika talde gehiago.

Martitzenean egindako aurkezpenean, besteak beste, *Euskal Herria* aldizkariko Kike Zinkunegi, Mankomunitateko Turismo Saileko buru Oxel Erostarbe eta Eskoriatzako alkate Pedro Lasagabaster izan ziren egitarauaren nondik norakoak azaltzen. Lasagabasterren ustez, "azpimarratzekoa da herriko hainbat talderen inplikazioa aurtengo Mundumira jaian". Erostarbek, bestalde, esan zuen aurrerantzean ere eutsi egin behar zaiola ekimen honi, nahiz eta" bizi dugun egoerak" zaildu egiten duen, "bitarteko asko" behar direlako horrelakoak antolatzeko; *Euskal Herria* aldizkariko Kike Zinkunegik hauxe adierazi zuen: "Jendearen erantzuna positiboa izan da, eta horregatik erreferentzia positibo bihurtu da Mundumira eta baita Debagoiena ere".



Macaco izango da aurtengo Mundumirako bosgarren ekitaldian Eskoriatzan egongo den musikarietako bat. MANKOMUNITATEA

DATUA

**3**

**GUNE GARRANTZITSU**

Hainbat gune egongo dira aurtengo Mundumiran, baina ekitaldi gehien herriko plazan, erdiko kalean eta unibertsitateko aparkalekuan izango dira.

ESANAK

**"Azpimarratzekoa da herriko hainbat taldek izan duten inplikazioa aurtengo Mundumira jaian"**

**Pedro Lasagabaster** > Eskoriatzako alkatea

**"Eutsi egin behar zaie horrelako ekimenei, nahiz eta bizi dugun egoerak zaildu egiten duen antolaketa"**

**Oxel Erostarbe** > Mankomunitateko Turismo Saileko burua

**HITZARMENA**

## MU-k landa ingurune biziaren alde egin du

Mondragon Unibertsitatea Gailur Komunitateari batu zaio

**G.A./J.Z.** > ARRASATE

Mondragon Unibertsitatea Gailur Komunitateari batu zaio asteon. Landa ingurune biziaren alde egitea da helburua, eta, horretarako, MUk bi hitzarmen sinatu eta konpromiso batzuk hartu ditu bere gain, eta etorkizuna landa eta hiri esparruen arteko kohesiotik etorriko dela azaldu zuen Josu Zabala errektoreak.

**EKIMENARI EUTSI**

Horretan dihardute landa garapenerako elkarteek eta Itsasmendikoik; hau da, lurraren gestioaren gaineko modeloa adosteko eta elkarlanerako gertu azaldu direnekin Gailur Komunitatea sortzen. LKS da elkarlan talde horretako lehen kidea eta Mondragon Unibertsitatea bigarrena. Alde biek hitzarmena sinatu zuten Itsasmendikoirekin batera.

> POLITIKA

**Blanca Roncal, Legebiltzarreko lehendakariordea**

Blanca Roncal Oñatiko Alderdi Sozialistako zinegotzia Eusko Legebiltzarreko Mahaiko kide izango da. Hain justu ere, Mahaiko lehendakariordea izango da.

Blanca Roncal medikua da eta orain arte Eusko Legebiltzarrean Alderdi Sozialista bozeramailea izan da osasun kontuetan. Debagoieneko Ospitaleko gerentea izan zen, eta baita Arrasateko zinegotzia ere. Gaur egun, Oñatiko Udaleko zinegotzia da.

SEIN

SEIN-ETXEBERRIA
Garmendipe 1
20730 **AZPEITIA**-GIPUZKOA
TEL.: 943 15 71 15
FAXA: 943 81 59 22

SEIN-MEMESA
Notario Etxagibel 3
20500 **ARRASATE**-GIPUZKOA
TEL.: 943 71 24 25
FAXA: 943 71 22 98

SEIN-LAUSA
Pol. Traña-Padura, 4 pabilioia
48220 **ABADIÑO**-BIZKAIA
TEL.: 94 621 71 40
FAXA: 94 681 75 45

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## Harpidedunen txokoa

### Martxoko irabazleak

Sariak irabazteko
**HARPIDETU!**
**Tel.: 943 08 10 50**
***harpidetza@goiena.com***
**Kuota: 40 euro**

**SARRERAK**
- Maite Beitia Abarrategi (Aramaio)
- Juanjo Madinabeitia Arando (Arrasate)

**ZIRA**
Mikel Larrañaga Arana (Arrasate)

**LIBURUAK**
Angel Bergaretxe Abarrategi (Arrasate)

**KAMISETAK**
- Marijo Erostarbe Garitano (Oñati)
- Lorea Zurutuza Alberdi (Bergara)
- Joseba Agiriano Barandiaran (Bergara)
- Marga Mercader Sologaistoa (Arrasate)

**SARI NAGUSIAREN IRABAZLEA**

**Jose Luis Carnicero (Bergara)**

**URDAIBAIKO URRESTI LANDETXEAN GAU BAT**



www.toprural.com/urresti
Benetako landetxea Urdaibaien!
Taldeentzat %10-eko deskontua

**ERREPIDEAK** > GI-627

# Sei milioi euro bailarako errepideak berritzeko

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako errepideak konpondu eta berritu egingo ditu Foru Aldundiak aurten

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Gipuzkoako Foru Aldundiak sei milioi euro inbertituko ditu GI-627 errepidearen zorua berritze eta konpontze lanetan ibarrean. Guztira, GI-627 errepidearen 18 kilometro konponduko dituzte, hiru zatitan banatuta: zati bat Bergarako saihesbidean, beste bat Arrasate-Aretxabaleta saihesbidean eta beste bat Arlaban mendatean, Eskoriatzan eta Leintz Gatzagan.

23.000 tona aglomeratu baino gehiago erabiliko dira 2009an asfalto zoladura konpontzen edo berritzen Debagoienean. Lan horietako lehena hasita dago, Bergarako saihesbidekoa, eta Aste Santurako amaituko dute hura.

**BERGARAKO ZATIA**

Bi milioi euroko aurrekontua izan du Bergarako zatiak, eta lan horietan 8.000 tona aglomeratu berri zabaldu dira lau kilometroko tartean. Zorua erabat berritzeaz gain, bi zubiren eta azpiko bi pasabideren euste sistemak ere egokituko dituzte. Gainera, areka 1,5 metro zabaldu dute errepideko hainbat zatitan.

**ARRASATE-ARETXABALETA**

GI-627 errepidean egingo diren asfalto berritze lanetan garrantzitsuena Arrasate-Aretxabaletako saihesbidean egingo dute. Lan horiek egiteko aurrekontua 3,8 milioi euro da, eta epea zortzi hilabete. Lanak lizitazio fasean daude eta uda hasi baino lehen hastea espero dute.

Ia zazpi kilometroko tartea da berrituko dutena.

**ARLABAN MENDATEA**

Aste Santuaren ondoren hasiko dira Arlabango lanekin. Aurrekontua 200.000 euro da, eta errepideko zortzi kilometroko zatian egingo dituzte lanok. Hain zuzen, asfaltozko zoladura hondatuta edo higatuta dauden zuloak berotan beteko dituzte.




Arrasate eta Aretxabaleta arteko saihesbidearen egoera. GOIENKARIA

**ELIZA** > IBILALDIA

# Bihar egingo dute bakearen aldeko ibilaldia Arantzazura

08:30ean errepidea itxi egingo dute autoentzat

Ekitaldia amaitutakoan autobusak egongo dira Oñatira jaisteko

A.E. > OÑATI

*Familia gara. Familian gara* dioen pankarta bakarraren atzetik igoko dira bihar milaka lagun Arantzazura. Beste urte batez, Elizbarrutiak deituta bakearen aldeko ibilaldia egingo dute.

Ibilaldia 09:30ean hasiko da, baina ordubete lehenago, 08:30ean, Oñati eta Arantzazu arteko errepidea itxi egingo dute. Martxa pasa ahala irekiko dute.

**OTOITZALDIA**

Ibilaldia 12:00ak inguruan iritsiko da Arantzazura; orduan, ekitaldia egingo dute Arantzazuko plazan. Hainbat kantu eta otoitzen ondoren, gotzainak mezua irakurriko du. Fedea, elkartea eta bakea izango dira gotzainaren mezuaren oinarria.

**OINEZ IGO EZIN DIRENAK**

Arantzazura oinez igo ezin diren fededunak autobusetan joan beharko dira. Martxaren atzetik igoko dira eta goiko otoitzaldia beste guztiekin batera entzungo dute. Gainera, autobusean irratiz entzungo dute martxan esaten dena.

Behin ekitaldia amaitutakoan, oinez igoko direnentzat autobusa egongo da Oñatira jaisteko, uneoro.




Ramon Redondo, Antzuolako lantegian. GOIENKARIA

**Ramon Redondo** > Goizperreko Espainiako salmenta kudeatzailea

# "Erosteko orduan ez dago orain dela gutxira arte izan den 'poztasun' hori"

EDU MENDIBIL > ANTZUOLA

**Burdindegi eta brikolajeari zuzendutako Ferroforma feria izan zen aurreko aste bukaeran BECen. 27 herrialdetako 776 enpresa (2007an baino %40 gutxiago) izan ziren ordezkatuta eta horien artean Debagoieneko zazpi. Goizperrek ezin zuen hutsik egin, are gutxiago enpresaren 50. urteurrenean. Gaur egun 200 langile ditu Goizperrek. Iaz 30 milioi euro inguruko fakturazioa izan zuten. Ramon Redondo debarra dugu salmenta kudeatzailea.**

**Aurtengo Ferroforman krisia hitza izan da guztion ahotan.**

Bai, eta zerbait igarri da. Aurreko urteotan baino enpresa gutxiago etorri da BECera eta bisitarien aldetik ere mugimendu txikiagoa sumatu dugu. Dena dela, guretako positiboa izan dela esango nuke, azken baten gure bezero onenekin egoteko aukera izan dugulako eta gure produktu berriak erakutsi ditugulako.

**Zer nobedade eraman duzue Ferroformara?**

Pare bat nobedade izan dira: batetik, Berry 7 izeneko ihinztagailua (pulberizadorea), batez ere lorezaintzan erabiltzeko zuzenduta dagoena; eta bestetik, Super Agro 2016, nekazaritzan erabiltzen dena. Azken hori, berez, ez da modelo berria, baizik eta hainbat berrikuntza egin diogu. Bestalde, bizkarreko ihinztagailu guztiek presio erreguladorea daramate. Nobedade teknologiko garrantzitsua da, homogeneizatu egiten delako inhiztagailua, kalitate handiagoa eskainiz. Barakaldon jasotako harrerarekin.

**Nongoak dira zuen bezero nagusiak?**

Ihinztagailuak egiten ditugu, eta, beraz, burdindegiak dira gure bezero garrantzitsuetakoak. Espainia mailan Madrilen, Galizian... saltzen dugu gehien, beharbada, baina egia esateko, nahiko sakabanatuta daude salmentak.

**Esportazioa da enpresaren oinarrietako bat, ala?**

Bai, halaxe da. 100etik gora herrialdetan saltzen ditugu gure produktuak, mundu zabalean: Ertamerika da merkatu garrantzitsuenetako bat; Magrebeko herrialdeak; Frantzia, Ingalaterra eta Europa iparraldea; Asia osoa; eta Afrika anglofonoa zein frankofonoa ere bai.

Lantegi bakarra daukagu, Antzuolakoa, baina sei merkataritza-delegazio munduan zehar: Frantzian, Portugalen, Malin, Jordanian, Holandan eta Singapurren.

> "Hiru nobedade eraman ditugu Ferroformara eta pozik gaude jasotako erantzunarekin"

> "100etik gora herrialdetan saltzen ditugu produktuak, mundu zabalean"

> "Krisian egon ala ez egon, lanean jarraitu beharra dago"

**Zertan igarri du Goizperrek krisiaren eragina?**

Egia da beldur moduko bat sumatzen dela. Erosteko, esaterako, ez dago orain dela gutxira arte izan den *poztasun* hori. Jendeak ondo neurtzen eta zaintzen du dirua inbertsioren bat egiteko orduan, eta, lehengo egoerarekin konparatuta, momentuko beharraren arabera erosten da orain gehiago, etorkizunerako aurreikuspenak gerorako utziz.

Gure kasuan, ordezko piezak ere egiten ditugu, eta zera nabaritu dugu: ordezko piezen salmentak gora egin duela. Agian, makina berri bat erostera joan baino, erosleak nahiago du zaharra konpontzen saiatu. Bestalde, Espainia mailan, Levante aldean izan den eraikuntzaren beherakadak guztioi egin digu kalte, zalantzarik ez.

**Krisiari aurre egiteko zeintzuk dira erronkak?**

Ziklo guztietan gertatzen den moduan, honetan ere krisia etorri den moduan joango da. Bien bitartean, aurrera egin behar dugu, produktu berriak ateratzen, hobetzen eta ihinztagailuen aplikazio berriak aprobetxatzen. Bezeroei zerbitzu ona ematen jarraitzea ezinbestekoa da. Jende askok kalitatearekin lotzen du Matabi marka, eta bide bererik jarraitu behar dugu. Enpresaren oinarriak sendoak dira, gauzak ondo egin direlako orain arte, eta krisialdi honetatik sendoago ateratzea espero dugu. Krisian egon ala ez egon, gauzak egiten lanean jarraitu beharra dago. Oraingoz, aurrera egiteko gogoz gaude lanean.

**etxeko leihotik**



**Eneko Azkarate** > 'eazkarate@goiena.com'

## Hizkuntza, askatasuna eta adar jotzeak

Haize berriak datoz Gasteizera: Legebiltzarrera, Jaurlaritzara... eta, igarleek diotenez, berandu baino lehen, Diputaziora ere bai. Demokrazia ekarriko duen aldaketa dator, aldaketaren bultzatzaileek diotenez; askatasunean aukeratuko dugula aurrerantzean zein hizkuntza nahi dugun erabili administrazio publikoan eta zein eredutan matrikulatu nahi ditugun umeak. PP eta PSE-EEren arteko itunak dio hori. Eta hori guztia bermatu eta gauzatzeko, jarriko dituzte bi elebakar Jaurlaritzako eta Legebiltzarreko buru: Lopez eta Quiroga. Lehenak esan du azkartu egin nahi dituela euskara ikasketak eta, horretarako, astean behin jasoko dituela euskara eskolak; bigarrenak, azkenaldian galdu samar daukan ama-berbeta berreskuratu nahi duela.

> "Askatasuna eta demokrazia aldarrikatzen dituzte erdaldun elebakarrek"

Adar jotzea iruditzen zait. "Hizkuntza bat askatasunean erabiliko da, hori erabiltzeko gauza denik badago", esan du Mendiguren Kontseilukoak. Eta gogora ekarri du hizkuntza eskubideen urraketek jarraitzen dutela, besteak beste, hizkuntza eskubideak bermatzeko tresna juridikorik ez dagoelako. Behatokiaren azken txostena oinarri hartu du hori esateko.

Askatasuna eta demokrazia aldarrikatu ditu PP-PSE-EE bikoteak, baina euskaldunok gobernatzeko eta legeak egiteko dauzkagun erakunde nagusietako buruak ez dira euskaraz egiteko gauza. Adarra jotzeko askatasuna...

**> Eskubide urraketa hauen aurrean, zer? Batzuk tiroka; gehienak zilborrari begira, norberaren interesei begira. 2001ean egin zuten hanka-sartzea bideratzeko eta estrategia berriarekin boterera ailegatzeko gauza izan dira Konstituziozaleak.**

**> Lopez-Basagoiti bikotearen lorpenak txalotzeko, bere burua aitzindari aldarrikatu du Mayor Orejak eta pozik azaldu da Sozialisten eta Popularren arteko akordioagatik: "Beste taktika bat erabilita lortu da, abilezia handiagoarekin".**

> MONDRAGON TALDEA

### Txomin Gartzia, Euskadiko Kutxako lehendakari berria

Txomin Gartzia Hernandez Euskadiko Kutxaren lehendakari izendatu zuten martitzenean.Kontseilu Errektoretza osatzen duten hamabi kideek burutu zuten bozka. Gartzia donostiarra da eta 1959an jaio zen. Egun Gasteizen bizi da.

Orain arte Ulma Taldeko Zuzendaritza Nagusian izan da. 1981etik, Mondragon Unibertsitateko Teknologia eta Diseinu irakaslea izan zenetik, bere lan-esperientzia osoa Kooperatiba Taldeari lotuta egon da. Txomin Gartzia Euskadiko Kutxaren historiako hirugarren lehendakaria da, Juan Mari Otaegi ordezkatuz.

> SINDIKATUAK

### Greba orokorra deitu dute maiatzaren 21erako

ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek greba deialdia egin dute maiatzaren 21erako ekonomia krisia dela-eta.

Sindikatuetako idazkari nagusiek martitzenean jakinarazi zuten erabakia. "Enplegu suntsiketa, patronalaren xantaia eta gizarte eta aurrekontu politikarik eza" dira deia egiteko arrazoi nagusiak, euren esanetan. "Langileak dira biktima nagusiak, egoera sozial eta ekonomiko horren sortzaileak izan gabe. Horregatik, lan munduak erabateko erantzuna eman behar dio krisiari", adierazi dute langileen ordezkariek.



zabalik

Txipi Ormaetxea

# Batutik euskalkira

Eta aldrebes, euskalkitik batura. Hau da, erregistro batetik besterako jauzia errazteaz arituko naiz hemen. Lankide batek (harrigarriki, Araban bizi den giputza bera) ikusten nauen bakoitzeko aipatzen dit kontua: "Zerbait egin beharko genikek euskara batua baino ez dakitenei euskalkirako pausoa errazteko, eta alderantziz". Nik inoiz aipatu diot hori orain 30 urte bai zela beharrezko; izan ere, bizkaieratik abiatzen ginenok beste erregistro oso desberdin bat ikasi behar genuen, eta gehienetan geurea bazterrera utziz. Adibide bakar batekin ilustratuko dut: ez dakit orain gazteagoek darabilten, baina guk garai baten barra-barra erabiltzen genuen bielekue berba, esaterako modu honetan: bieleku galanta emuten dusku horrek *lan/buruhauste galanta ematen digu horrek*. Euskara batua ikasi nuenean berba hori ez nuen pasatu erregistro berrira, eta urte mordoa igaro ziren konturatu nintzenerako bieleku hori beharleku izan zitekeela batuan.

**"Zerbait egin beharko genikek euskara batua baino ez dakitenei euskalkirako pausua errazteko"**

Milaka adibide eman daitezke, eta ez bakarrik lexikoan. Garai hartan, laguntza faltan, bakoitzak egin behar izan genuen geure bidea. Baina asko galdu genuen bidean, galdu genuenez. Eta ez dakit orain berandu den; beharbada ez, lagun gipuzkoarrak behin eta berriz gogorarazten didanez.

Hortaz, kontua litzateke eskuliburu bat egitea, edo unitate didaktiko moduko bat, euskalkiaren arauak azalduz. Hizkuntzaren arlo guztietan ezaugarri nagusiak emanez gero, ez legoke txarto. Paperean atera daiteke, baina beharbada interesgarriagoa sarean jartzea, ahotsa entzuteko aukerarekin. Ez da lan erraza, badakit. Ea norbait animatzen den!

usteak uste

Irati Agirreazaldegi

# AP-1; zenbat denbora, zenbat?

AP-1, autobide bakarrarendako zenbat denbora, zenbat... Bi hilabete, dena amaitzeko epea eman bai, baina bete? Hiru; ordainlekuetako batetik oraingoz doan, baina gero auskalo zenbat diru. Lau; Izuzkitzako eta Marulandako tuneletan barrena ia lau kilometro pasa eta batetik bestera di-dau. Bost; sartu bosgarren martxa eta behin errepidea egin dutenez gutxik egingo dio boikot. Sei; apirila eta astelehena autobidearen zati bat gehiago dugula gidariek pozez egingo dute dei. Kontatzen hasita mila; behingoz obretarako bidaia amai dadila.

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Korrika eta ETAko presoak

**Joxe Aranzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Ikusi dudanean gaurko *Berria* egunkariaren azala zur eta lur geratu naiz, bertako argazki handiari begira.

Argazkian agertzen dira korrikalariak Iruñeko alde zaharra zeharkatzen, Korrikaren pankarta aldean daramatela, eta lerro bat atzerago, dozenatik gora pertsona beste horrenbeste argazki handi eramaten, ETAko presoenak nik pentsa.

Oraindik ezin dut ulertu zergatik agertzen diren argazki horiek euskararen festa erreibindikatiboan, niretzat horixe baita Korrika. Presoen hizkuntza eskubideak aldarrikatzen ote dira? Eta Inazio Uria euskaldun petoaren hizkuntza eskubideak? Eta Isaias Carrasco etorkinaren hizkuntza eskubideak? ("Etorkinak izan ziren maiz lekukoa eramaten, bereziki Txantrea auzoan: txiletarrak, mexikarrak, katalanak...".)

Era horretako agerpenek kalte egiten diote euskarari, eta kalte Korrikari berari ere, euskara euskal herritar guztion ondarea baita, ez batzuena edo besteena soilik.

# Borroka da bide bakarra

**Oxel Erostarbe**
www.goiena.net/blogak/oxel

Korrikan parte hartu duen bat baino gehiago mindu-ta ikusi nuen atzo. Lagunak dira, alderdikideak... eta Korrikako testigua hartu orduko entzun dute atzetik "putreak", "UPN torturatzaile NaBai laguntzaile" eta antzerakoak... Egunotan asko entzun den oihua izan ei da "borroka da bide bakarra".

Ez nago ados hori esaten duenarekin. Uste dut gutxiengo bat dela herri honetan horrela pentsatzen duena. Ezkerreko abertzaleon artean ere gutxiengo bat dira. Hori horrela dela jakin dezaten, kontrakoa pentsatzen dugunok argi esan behar dugu bide soilik zibilen aldeko apustua dela gurea. (...)

koplak

Julen Iriondo

# Bi urtean behingo zita

Bi urtean behingo zita
badator laster korrika
harrera egin daiogun txandal
ta zapatilak jantzita.

Euskararen lekukoa
eskurik eskura doa
pasatu ostean jantzi dezagun
euskararekin ahoa.

Korrika delako festa
ospatzea sobran ez da
gero erderaz egin ezkero
alper xamarrik da, ezta?

Euskararendako zailak
orain datozen garaiak
batzuek jarri nahi dizkiote
oztopoak eta trabak.

Batetik eurek egin ez
ta gero traba eginez
euskarak aurrera egingo du
euskaltzaleon indarrez.

Utz ditzagun eztabaidak
euskararekin egin bat
premiazkoak gara guztiok
berde, gorri ta urdinak.

Goienkaria

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Edu Mendibil (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano, Oxel Arrieta **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza
Gipuzkoako Foru Aldundia
Arrasateko Udala
Bergarako Udala
Oñatiko Udala
Aretxabaletako Udala
Eskoriatzako Udala
Antzuolako Udala
Aramaioko Udala
Elgetako Udala
Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria**

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Bergarako Aranzadi ikastolak antolatuta, 'Ekonomia: arriskuak eta aukerak' hitzaldia egin zuen Joseba Barandiaran ekonomialariak martitzenean. Euskarazko prentsaren ekonomia-aditua dela esan daiteke; izan ere, besteak beste, *Argia*-n, *Berria*-n eta Euskadi Irratian kolaboratu izan du Barandiaranek. Egungo ekonomia egoeraren berri eman digu.

**Joseba Barandiaran** > Ekonomialaria

# "Mundu osoan eragiten duten arazoak sortu ditu finantza sektoreak"

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

**Bergarako Zabalotegi aretoan ekonomiari buruzko hitzaldia egin zuen Joseba Barandiaranek martitzenean. Barandiaran ekonomialariak gaur egun bizi dugun krisi egoera aztertu zuen; eta ekonomiaren aukerak aztertu zituen. Zabalotegi aretoa bete egin zen Barandiarani entzuteko.**



Joseba Barandiaran ekonomialaria Zabalotegi aretoan izan zen martitzenean. ARANTZAZU EZKIBEL

**Krisiaren arriskuez eta aukerez jardun duzu berbaldian. Baditugu aukerak, hortaz?**

Bai, finantza krisia nondik sortu den azaltzen hasi naiz. Finantza jatorria duen krisiak ekonomia erreala harrapatu duela ere bistakoa da. Krisia, txineraz, bi ideograma batuz adierazten omen da: arriskua eta aukera. Beraz, horixe aipatu nahiko nuke: arriskua nondik sortu den –zerk egin duen kale–, eta orain ditugun aukerak –zer hobetu behar dugun–.

**Krisiaren sorrera non dago, eta non utzi gaitu krisiak? Zein da gaur egungo egoera?**

Finantza desarautzeak mailegu kopuru itzela eragin du eta arriskuak ez dira egoki neurtu eta kontrolatu. Gaininbertsioa eragin du horrek, bai etxebizitzan, baita beste alor batzuetan ere. Gehiegizko kontsumoa, gehiegizko zorpetzea eta, nolabait, oinarri ahuleko hazkunde ekonomikoa.

Gainera, esan behar da ekologikoki eramanezina dela gaur egungo egoera.

**Krisiaren aurrean, zure ustez, zer da herritar arrunt batek izan behar duen jarrera?**

Aurreak agintzen du atzea nola dantzatu. Eta horretan bakoitzak dugu aurre eta atze bana. Baina egoera berrietara ahal den azkarren moldatzea beti da ona. Lasai egotea alferrik da, joandako urak ez baitu errotarik mugituko. Ura, sua eta... zorrak, belaunetik behera!

**Diote oraindik ez duela goia jo ekonomia krisiak. Zure ustez, krisiak noiz izango du puntu gordinena?**

Krisia ere bakoitzak bizi dugu gurea. Hainbat jendek esan dezake bere krisia duela urteak hasi zela. Eta krisi ekonomikoa bat da, baina balore krisia?

Adierazle makroekonomiko batek guri zerbait konponduko digula espero badugu, jai dugu, ez da-eta horrela izango.

**Krisi hau aurretik bizi izandako krisien berdina da, ala badago ezberdintasunik?**

Denboran ez da sekula atzera egiten: beraz, krisi guztiak dira berez ezberdinak. Baina lehen aldiz, munduko herri aberastu guztiek aldi berean bizi dute krisi hori. Mundu osoan eragiten duten arazoak sortu ditu finantza sektoreak eta, munduko merkataritza, II. Mundu Gerraz geroztik lehen aldiz, gutxitzen ari da.

**Maileguak dituzten herritarrengan nola eragiten du krisiak?**

Tasa aldakorrean dituztenei, kuota merkatu egingo zaie, Euriborrak izan dituen gorabeherak direla-eta. Baina mailegua bezain garrantzitsua da diru sarreren ziurtasun eta egonkortasuna; eta, bistan dena, baita maileguen tamaina ere.

MAILEGUAK

**"Tasa aldakorrean dutenei merkatu egingo zaie, Euriborraren gorabeherak direla-eta"**

SISTEMA

**"Sistema hau kapitalista da eta krisian dago; hortaz, sistemaren krisia dela esan daiteke"**

**Burtsaren jarduerak nola eragiten du ekonomian?**

Burtsa enpresentzat finantzabide bat dela esan daiteke, batez ere lehen une batean –akzioak jaulkitzean–. Ondoren, baina, enpresa horien esperotako mozkinen ikusmina eta salerosketa baino ez du islatzen. Hor nahasian doaz aurreikuspen burutsuenak eta baita espekulazio gordinenak ere.

Beraz, ekonomia errealean, zeharka eragiten du: prezioak handitzean, akziodunak aberatsago dira –kontsumo eta inbertsio gehiago egin dezakete–, eta alderantziz. Baina puxika bat aztertzeko, puztuta nahiz hustuta, puxikari erreparatu behar zaio, eta ez unean uneko bolumenari. Eta ekonomiaz dauden ikusmin adierazle gisa ere begiratzen zaio burtsari. Baina horrek ez du esan nahi zuzenean eragiten duenik.

***Ekonomia: arriskuak eta aukerak* da eman duzun hitzaldiaren izena. Ze aukera eskaintzen du krisiak? Hau da, zertarako da garai ona?**

Bakoitzak dituen arriskuak ezberdinak direnez, bakoitzaren aukerak ere halakoak izango dira. Edozein garai da ona lagunez, familiaz eta naturaz gozatzeko. Elkartasunean eta laguntasunean inbertitzeko garaia; gaizki ez, ala?

**Ekonomia krisi hau sistema kapitalistaren krisia dela esan daiteke?**

Sistema hau kapitalista da eta krisian dago; hortaz, esan daiteke baietz. Baina horrek ez du esan nahi krisia amaitzean sistema berria kapitalista izango ez denik. Finantza sistema txiki eta kontrolatuagoa beharko du izan, hori bai. Hortik aurrera... auskalo!

# Lan diskriminazioa Iturbide egoitzan

**Piter Encinas**
(ESK-ko sindikalista)
Arrasate

Lehenik eta behin, esan nahi dut egun batzuk pasatzen utzi ditudala honako hau idazten hasi aurretik, burua hotz dudala idazteko, eta ez amorruaren eraginpean. Martxoaren 8an Arrasaten egin zen manifestazioko gorabeherez hitz egin nahi dut. Bazirudien Untzako langileak eta horiekin gindoazenak sobra geundela. Gainera, Arrasateko Udaleko azken Udalbatzan edo Plenoan gertatutakoak ez du izenik. Udalbatzan Iturbide egoitzako langileen egoera aztertu zen, eta zer ikusiko eta ANV, PP eta EAJ langileen soldata-berdinketaren aurkako botoa ematen, Arrasateko historiako argazki negargarria.

Dena den, labur-labur azaldu nahi nuke martxoaren 8aren jatorria, norbaitek ezagutzen ez badu ere.

1857ko martxoaren 8an, New Yorkeko emakume langile batzuek, horietako asko immigranteak, grebak eta protestak egin zituzten, lanbaldintzen hobekuntzaren alde eta jasaten ari ziren landiskriminazioaren aurka.

1911n, Europako hainbat herrialdetan ahaleginak egin ziren egun bat emakumeari eskaintzeko. Emakumeek botoeskubidea izatea eta lantokietako genero-diskriminazioari amaiera ematea lortu gura zuten.

1911ko martxoaren 25ean, New York-eko Triangle Shirtwaist Company enpresako 129 emakume langile hil zituzten, enpresariek nahita sortutako sute batean. Langileak genero-diskriminazioaren aurkako presio-neurri gisa okupatu zuten enpresa. Orduko kroniken arabera, 100.000 lagunetik gora joan ziren haien hiletetara.

1977ko abenduan, Nazio Batuen Batzar Nagusiak emakume langilearen eguntzat ezarri zuen martxoaren 8a.

2009ko martxoan, Arrasateko Iturbide egoitzako langile azpikontratatuak borrokan ari dira lan –eta genero– diskriminazioaren aurka. Udaleko Gobernuak du giltza diskriminazio horrekin amaitzeko, hau da, ezkerreko jendeak. Baina, hala ere, soldata-igoera baino ez dute lortu. Hori bai, igoera dezentea da, baina ez da inolaz ere "lan berdina, soldata berdina". Diskriminazioak bere horretan dirau hainbat alderditan: oporretan, jaiegunetan, ordutegian...

Gure ustez, azpikontratazio baten bidez lan egiteak ez luke prekarietatea ekarri beharko. Pilota Udalaren teilatuan dago.

Lan berdinaren truke lanbaldintza eta soldata berdinak!

Soldata-berdinketa orain! Ekiparazioa orain!

Emakume langileen aurkako diskriminazioari stop!

# Preso guztien eskubideen alde

**Kepa Martinez de Lagos**
(Euskal Herriko Kristau Elkarteak)
Oñati

Urtero bezala, preso daudenen lagunak eta senideak Arantzazuko Santutegian elkartu gara martxoaren 29an, Euskal Herriko Kristau Elkarteek gonbidatuta, gogoeta eta otoitz egiteko eta konpromisoa hartzeko.

Kartzeletako errealitate krudelaren aurrean gure salaketa eta elkartasuna adierazi dugu tratu zuzena eta gizatiarra lortzeko preso guztientzat. Hauen bizibaldintzak kartzeletan, askatasunik eza jasaten dutenen eskubideak ez errespetatzeaz gain, larriagotzen ari dira egunero preso sozial, politiko eta etorkinentzat. Kartzelan hildakoen kopuru goranzkoa, "biziarteko zigorra", isolamendu luzeak, bereizi gabeko atxiloketak, komisarietako tratu txarrak eta torturak, frogarik gabeko egozketak epaiketa politikoetan, argi erakusten dute gobernu eta epaileen aldetiko injustizia, eta, gainera, makrokartzelak planifikatzen ari dira beren kartzela-sistema zapaltzaile eta zuzengabean. Bat egin dugu batez ere euren senide eta lagunekin, beharturik daudelarik bidaia nekagarri eta garestiak egitera sakabanaketa zuzengabe eta eutsia tarteko. Oso gogoan izan ditugu baita ere, zigorra bete ondoren, honengatik guztiagatik jasan behar dituzten ondorioak gizarte-bizitzara itzuli nahi dutenentzat. Gehienentzat bazterketak, kontrolak, bakardadeak... hor jarraitzen dute, zailtasun handiak dituztelarik euren bizitzetan benetako normalizazioa lortzeko.

Kartzelaratutako pertsonen oinarrizko eskubideak urratzen diren egoera hauen aurrean, laguntzeko konpromisoa hartzen dugu preso guztientzat tratu duina lortzeko ahaleginetan. Legea betetzea galdegiten dugu, batez ere jaiotza-tokitik hurbil dauden kartzeletara ekartzeari dagokionez. Gaixotasun sendaezina dutenak kartzelatik ateratzea eskatzen dugu eta baldintzapeko askatasuna zigorraren hiru laurdenak bete dituztenentzat. Beste behin ere aldarrikatzen dugu presoek duten eskubidea gizartean eta politikan parte hartzeko.

Injustiziak salatuz eta preso guztien giza eskubideak eskatuz eta baita gure Herriaren eskubide banakakoak eta kolektiboak, itxaropenez baieztatu dugu gure konpromisoa justiziaren alde, amnistiaren alde eta bake-prozesuaren alde pertsona guztientzat, Euskal Herriarentzat, herri guztientzat.

# Fedea, elkartea eta bakea

**Juan Maria Uriarte**
(Donostiako gotzaina)
Donostia

Arantzazuko Ibilaldia betebetean sartu da Gipuzkoako elizbarrutiko elkartearen egutegian, Aste Santuaren bezperan. Milaka batzuk izaten gara zortzi kilometroko bidean gora Basilikara igotzen garen fededunak, eta hantxe aurkitzen dugu zain Maria, samurki hartzen gaituen Ama. Gurekin elkartzen dira gertuko elizbarrutietako fededunak eta bat egiten dute ibilaldiarekin gazte taldeek eta etorkin ugarik. Arantzazuk erakarri eta deitu egiten du. Halaber, Elizbarrutiko hainbat lekutan ehunka eta ehunka gurasorekin elkartu naiz aste hauetan eta nahiko nuke aurtengo Ibilaldian jendetza artean izango balira beren semealabak hartuta, Andre Mariaren bizileku paregabe honetan gora oinez, urratsez urrats, apirilaren 4an.

Gure ibilaldia fedearen mintzo zintzo bat da. Gero eta gizarte axolagabeago baten erdian, Jainkoaren Hitza entzunez, otoitzean eta gogoeta isilean egiten dugu ibilaldia. Ez da mehatxaturik sentitzen den talde baten oihua eta gizartean garrantzia galtzea onartzen ez duenaren auhena. Ez da ezeren edo inoren aurka dagoenaren erronka bat, baizik eta, harrokeriarik eta konplexurik gabe, bizi-poza adierazte bat, hau da, gure aurrekoengandik jaso, eginahalean arretaz eguneratu, eta, bizitzen nahiz bizikide izaten laguntzen duen ondasun preziatu gisa, gure herriari eskaintzen diogun fedearen poza.

Halaber, Jesusen elkarteko sentitzen garela adierazi nahi du gure ibilaldi honek. Izen horrentzat duin den sinbolo orok gure elkartearen batasuna sendotu baino ez du egiten. Elizbarrutiko eta Eliza unibertsaleko familiako kide gara. Eta pozik eskertzen dugu hemengo eliza honetako partaide izatea, zenbaitetan bere barruan sufritu beharra gertatu arren. Halaz ere, ezingo diogu inoiz ordaindu, 2000. urteko ibilbidea eginda, bere bidez Jesusen oroitzapen bizia guganaino iritsi izana. Bere eskasia guztiak baino handiagoa da opari hori. Eliza honetan bizi gara sinestedun zintzo, zerbitzura emandako eta otoizlari askorekin.

Gure ibilbidea, azkenik, bakearen aldeko erregua da. Otoitzak baretzen ditu gure ezinegonak eta itxaropena ereiten du ezkortasunaren tentaldia jaiotzen denean. Luze egiten zaigu itxaronaldia. Sufrimen handia eragiten du. Ez gara edozein bakerekin konformatzen. Elizaren irakasbide sozialaren iritziz, bakea lortzeko ezinbestekoa da elkarrenganako konfiantza, kontzientzia solidarioa, elkarrizketa eta giza eskubideekiko begirunea.

Fededunoi esperientziak esaten digu bake hori ez dela gure ahalegin soilez lortutako emaitza, baizik eta Jesukristoren Jainko eta gure Bake denaren oparia dugula.

Arantzazuko Ama Birjinak asko daki amaitutako tirabirez, lortutako adiskidetasunez, konpondutako gatazkez. Ondo daki zein diren gure nahiak. Jar ditzagun, beraz, goiz honetan, bere eskuetan.

# Ilargiraino eta bueltan...

**Markel Azkargorta**
(*Kanto* euskal preso politikoaren semea)
Bergara

Orain dela egun batzuk, harriduraz hartu nuen berria. Fiskaltzak Arrasaten Seber ondoan jarrita zeuden euskal preso politikoen argazkiak kentzeko agindua eman zuen. Ez zen denbora asko pasa txapelgorriek arrasatearrek beraien herrikideak gogoratzeko aukeratutako txokora amorruz sartu eta argazkiak hausten hasi arte, tartean nire aitarena.

Patxik (kasualitatea izango da izenarena) "lotsaren horma" deitu zion txoko horri, eta argi adierazi zuen horrelakoekin amaitu beharra zegoela. Ahaztu zaio espainiar eta frantziar estatuetako lotsaren hormetan daudela bahiturik gure senideak eta, berak eta bere tamainako politikariek diseinatutako horma, plan eta lotsagabekeriek eragin dutela herritarrek "duintasunaren hormak" eraikitzea euskal preso politikoen argazkiekin.

Ahaztu zaiola aipatu dut (agian ez du nahi ikusi), baina guk ez ditugu ahazten eta gogoratu nahi ditugu, guztiak gurekin izan arte. Eta jakin badakit, zuek, Patxiak eta Franciscoek, kristorenak eta bi egingo dituzuela beraiekin amaitzeko. Hala ere, badakit herriak jakingo duela lagun horien memoria herrian presente edukitzen, azaltzen zertarako eta zergatik zeuden argazki horiek hor.

Bestalde, aurretik ere saiatu zarete Arrasaten bertan, euskal preso politikoen aldeko beste ekimen bat desitxuratu eta zapuzten. Nor ari da beldurra sortzen herrian? Herritar batzuen eskubideen alde sinadurak batzen ari den lan talde bat, edo beraien pentsaerarekin bat ez datozenak atxilotu, torturatu, kartzelaratu eta herritarren memoriatik borratu nahi dituena?

Honekin jendea animatu nahi dut euskal preso politikoei babesa ematen jarraitzera, gaixo dauden presoen askatasunaren alde eta bizi osoko zigorraren eta dispertsioaren aurka sinatzera.

Nik, zain egon barik, egingo dut.

Zergatik? Batetik, nire aita delako, bere askatasunagatik, Jon Agirreren askatasunagatik, Aittor, Jabi, Gaztelu… eta beste hainbeste gure artean nahi ditudalako. Silveirak Nafarroako bertsolaritza txapelketako finalean bota zuen moduan, "maite zaituztedalako pilapilapila eta maite zaituztegulako ilargiraino eta buelta".

# Lanbusekin pozik

**Joxe Madina**
Oñati

Pozik hartu genuen hainbat lankidek eta nik neuk ere Lanbus autobus zerbitzu berria. Horrelako zerbitzu baten premia ederra geneukan Oñatin bizi eta erdigunetik kanpo dauden lantegietan gabiltzanok. Egunero autoz joatea, horrek dakarren traba eta kutsadurarekin, eta herrian bertan egonda, benetan gogaitgarria zen, eta saihestu zitekeen.

Hilabete pasa da eta zerbitzua ona da; badago zer hobetu, jakina, baina txalotzekoa da Oñatiko Udalak, LKSk, Pesak eta enpresek egin duten ahalegina. Hori bai, kanpoko lankide batzuen partetik, eskatzen diegu zerbitzua inguruko herrietara ere zabaltzea.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 01**

**Faxa:**
**943 25 05 13**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


ALDEKO
AURREZKIA
ALDEAN
Primeran doakizun interesa.
Bizitza ulertzeko duzun moduari, teknologian, diseinuan eta erosotasunean azken-azkenekoaz baliatzeko duzun ohiturari doakiona. Aukera ezazu interesa zeure ohiko bulegoan, Telekutxako 901 333 555 telefonora deituz, web gunean: www.kutxa.net, edo kutxaren kutxazainetan.
Aukeratu eraman nahi duzuna
TV LCD-TDT 19"koa, eskuoihal edo toalla-jokoa, edo elikagaientzako ontzi hermetikoen sorta ere bai.
Galdetu baldintzei buruz.
tv
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


aek
ongi
etorri
euskaraz bizi
nahi dugunon
herrira
16.
korrika
www.korrika.org
badator!
Tutera-Gasteiz 09
martxoaren 26tik apirilaren 5era

**Arrasate** > 14-18 **Bergara** >19-22 **Aretxabaleta** > 24-26 **Oñati** > 27
**Eskoriatza** > 28-29 **Antzuola** > 30 **Elgeta** > 31 **Aramaio** > 32 **Gatzaga** > 33



**> BERGARA**
Erramu-zapatuko feria ospatuko da bihar, ekitaldiz beteta **> 19**



**> ARETXABALETA**
Kirol etxearen proiektua onartu eta lehiaketa deitu du udalbatzak **> 24**



**> OÑATI**
Chateaubernard eta Oñati senidetu zireneko X. urtemuga **> 27**



**> GATZAGA**
Korrika Txikiak girotuko du gaur lekukoaren etorrera **> 33**

**BERGARA** > ONDAREA

# Indusketa arkeologikoak egingo dituzte Seminarioko elizan

**HISTORIA** Egingo diren indusketa arkeologikoek Bergarako historiaren ezagutzan sakontzeko informazioa eman dezakete

**AURKIKUNTZAK** Bi izan ziren aurkikuntza nagusiak 2007an: horma baten arrastoak eta Andres Madariagaren hilobiko losa, XVII. mendekoa

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Seminarioko elizan indusketa arkeologikoak egitea onartu zuen Bergarako udalbatzak asteleheneko osoko bilkuran. Aho batez onartu zuten erabakia alderdi guztiek. Eguaztenean, Mikel Elkoroberezibar Kultura, Ondare eta Turismo zinegotziak eta Xabier Aranburu udal museologoak egingo diren lanen berri eman zuten komunikabideen aurrean.

Seminarioko eliza (XVII. mendekoa) arkeologia gune moduan izendatu zuen Jaurlaritzako Kultura Sailak 1997an. Handik hamar urtera, 2007ko udaberri eta uda hasieran, zundaketa geoteknikoak egitean, zundaketa arkeologikoak ere egin zituzten eta aztarnategi arkeologikoa emankorra zela frogatu zuten. Orain, elizaren azpiko aldean dauden aztarnak aztertzea da helburua. Indusketa arkeologikoek Bergarako historiaren ezagutzan sakontzeko informazioa eman dezakete.

Bestalde, etorkizunean noizbait orube honetan obrak edo interbentzioak egin ahal izateko (hasiera batean Udal Liburutegia bertan kokatzea da asmoa) lehenago azterketa eta lan arkeologikoa eginda egon behar duelako. Arkeologia gunea izanda, Diputazioak du azken hitza edozein lanarekin hasi aurretik.

### BI AURKIKUNTZA NAGUSI

2007an egindako zundaketa arkeologikoan bi izan ziren aurkikuntza nagusiak: alde batetik, horma baten arrastoak aurkitu zituzten. Xabier Aranburu udal museologoaren hitzetan, "orain argitzeko dago horma horren jatorria zein den: Erdi Aroko etxe baten, jesuiten antzinako elizaren zati bat edo Bergarako harresiarena. Harresiaren kontuarekin polemika egon da betitik, hainbat historialarik harresia egon zela diotelako eta beste batzuk aldiz tesi horren kontra azaldu direlako. Polemika ez da argitu". Aipatutako hormaren zatia elizaren sarreratik gertu dago.

Bestetik, jesuiten hilobiak izan daitezkeenak ere aztertuko dituzte indusketa arkeologikoen lehenbiziko fasean. Orain dela 11 urte, Andres Madariagaren hilobiaren losa oroitzapenekoaren azpian (1868. urtekoa), Madariagaren mausoleoko hilobiko losa (1678koa) aurkitu zuten. Madariagak diruz lagundu zuen elizaren eraikitzea. Armarria ondo zizelatuta zuen aipatutako losak eta Mikel Elkoroberezibarrek azpimarratutako moduan hilobiak balio artistiko handia dauka. Oraingo zoruaren azpian antzinako zoru artistikoa dago.

Orain martxan jarriko diren lanetan harrizko artelanetako aditu batek esan beharko du aipatutako losa, XVII. mendekoa, osorik altxatzerik dagoen, arriskurik gabe. "Horrek lanen bigarren fasea baldintzatuko du", zehaztu zuen Ondare zinegotziak. Bigarren faseak aurrera eginez gero, lan arkeologikoez gain, antropologia-lanak ere egingo lituzkete, tartean gizakien arrastoak topatzeko aukera egongo baitzen, Madariagarenak berarenak eta jesuitenak ere bai.

Lanen aurrekontua 115.000 euro inguru da (bigarren faseak %30). Lehen faseko lanek sei hilabete iraungo dute, hiru Seminarioko lanetarako eta beste hiru hilabete laborategiko lanetarako.



Irudian, Andres Madariagaren mausoleoko hilobiko losa. X.ARANBURU



Seminarioko fatxada, Bergarako San Martin plazan. GOIENKARIA

## Lanen gaineko bideo-erreportajea egingo dute eta bisita gidatuak antolatuko dituzte, ikasleendako bereziki

Indusketa arkeologikoak eginaz batera, aztarnategiaren eta lan arkeologikoaren difusioa egin nahi du Bergarako Udalak. Horrela, gaiari buruzko bideo-erreportajea grabatuko dute eta, era berean, bisita gidatuak antolatuko dituzte, bereziki ikasleei zuzendutakoak. Aipatutako bisitak lanen lehenbiziko fasean bakarrik egingo dira. Lanaren planteamendua, epeak eta baldintza teknikoak udal museologoak Diputazioko arkeologoarekin adostu ditu. Lanen finantzazioari dagokionez, Diputazioak horrelako lanetarako laguntza handirik ez duela ematen aurreratu zuten Aranburuk eta Elkoroberezibarrek: "Asko jota, 10.000 euro inguru jasotzea espero dugu".

Bestalde, Seminarioko elizako erretaula birgaitzea ere aurreikusten du Bergarako Udalak. Lanen aurrekontua 138.000 euro inguru da. Erretaulak ere balio artistiko handia dauka, bereziki Loiolako San Inazioren eskultura. Gregorio Fernandez artistak eginikoa da, 1614. urtean, eta arte ikasleek ondo ezagutzen dute, adituen ustetan Gaztelako Eskolaren adibide onenetakoa baita Fernandezen lana.

ITURBIDE EGOITZA > GREBA

# Erdibideko akordioa lortzeko, hitz egiteko dei egin diote Udalari

Grebalariek diote helburua parekotasuna bada ere, egoiliarren hobebeharrez egiten dutela eskaria

Udal Gobernuaren proposamena 4 urtean %30,65eko igoera da, aurki formalki eskainiko dutena

J. BEREZIBAR / A. BARRUSO > ARRASATE

Eguen goizean egin zuten agerraldia grebalariek Gobernuari eskatzeko "soldatak hobetzearen alde erdibideko akordio batera iristeko negoziazioa ireki dezan". Udal langileekin soldatak parekatzeari "helburu moduan" eusten dioten arren, zaintzen dituzten pertsonek "orain dauden egoera kaskarrean jarraitzerik ez dutelako merezi" hartu dute erabakia, azaldu dutenez. Hala ere grebak oraindik ere (eguen arratsaldez), bere horretan segitzen du. Beraz, oraingoz, udal langileekin soldata eta baldintzak parekatzeko aldarrikapenari uko egin eta erdibideko irtenbide bati ekiteko gertu leudeke.

**HAMAR EGUN GREBAN**

Iturbide egoitza kudeatzen duen Untza enpresako langile azpikontratatuek hamar egun daramatzate greban. Greba horren hasierako helburua zen Iturbiden lanean diharduten hiru udal langileen lan baldintza berberak eskuratzea azpikontratatutakoek. Udal Gobernuak soldata lau urtean %30,65 igotzeko proposamena izan da esku artean ibili duena. Langileek ez zuten proposamena abegiko izan eta ordutik hona ez da gerturatzerik egon Udalaren eta langileen artean, eta grebara jotzea erabaki zuten langileek. Hori horrela, grebalariek gaur goizean agerraldia egin dute adierazteko akordiora iristeko "esfortzua egiteko prest" daudela: "Prest gaude gaurtik aurrera gure lan baldintzak eta soldatak hobetzearen alde erdibideko akordiora iristeko, eta horretarako, Udalari negoziazioa irekitzeko eskatzen diogu. Argudioak eta justizia gure alde daude berdintzea edo ekiparatzea planteatzen dugunean, baina, mobilizatzen horrenbeste egun egin eta gero, behartuta gaude gure eskakizuna atzeratzera. Udalari dagokio hurrengo urratsa egitea: eskaintza berria egitea", azaldu dute. Gaineratu dute Iturbide egoitzako egoiliarrek ez dutela merezi gaur egungo egoera. Amaitzeko, jakinarazi dute zerbitzuak atzeratzen ari direla eta egoera oso txarra dela dagoeneko Itubide egoitzan.

Untza enpresaren bitartez azpikontrataturiko langileak urrats hori egin ostean Udal Gobernuaren proposamen baten zain geratzen dira, hortaz, eta adierazi dute ez luketela ulertuko Udal Gobernuak proposamen berririk ez egitea.

**EB-ZUTIK ETA ARALARREK, BAT**

Hain zuzen, Udala eta grebalariak akordiora iristeko "ahalegina egin" dezaten eskatzeko elkarrekin egin zuten agerraldia eguaztenean Ezker Batua-Zutik koalizioko eta Aralarko zinegotziek. Euren iritziz, soldata nahiz baldintzen parekatzea "bidezkoena" dela argitu zuen Joseba Ugaldek (EB), baina auzia bukatzeko "bitarteko akordioa" babestuko luketela zehaztuz.

**UDAL GOBERNU TALDEA**

Gobernuak, berriz, formalki eskaintzarik egin ez duen arren, Udal Gobernu taldearen proposamena izan da urtean %30,65 igotzea. Grebalarien jarrera berriaren inguruan Ino Galparsoro alkateak dio haiek ekiparazioa alde batera utzi izana negoziaziorako albiste ona dela. Greba eten ez arren,horrenbestez, positibotzat jotzen du alkateak grebalariek parekatzearen aldirrikapenari uko egitea. Negoziazioei ekiterakoan modu formalean egingo zaie hortaz azpikontrataturiko langileei azaldutako soldata igoera horren eskaintza.

SUDC ELKARTEA

## Dokerako gonbita eta sardina jana guztiendako

J. B. > ARRASATE

Urtero moduan, bikoitza da doke jokorako gonbidapena: gaztetxoak batetik eta nagusiak bestetik.

9 eta 14 urtekoen txanda apirilaren 5ean izango da, domekan. SUDC elkartekoek herriko neska-mutiko guztiei egin diete dei domekan 11:00etan Kondekua parkean (Monterron aurrean) ager daitezen. Irabazleei txapelak eta lehen lau bikoteei garaikurrak banatuko dizkiete. Amaitutakoan, hamaiketakoa egingo dute parte-hartzaile guztiekin.

**EGUBAKOITZ SANTUAN**

Arrasatear guztiei dei, ostera, Egubakoitz Santurako egin diete, hilaren 10erako. Goizeko 10etan da nagusien hitzordua, eta, gaztetxoei bezala, sariak banatu eta gero 50 kilo sardina eta Errioxako ardoarekin sarituko dituzte parte-hartzaile guztiak, eta baita Kondekuara ikusle joandako herritarrak ere.

TXATXILIPURDI > FAMILIA-TRANSMISIOA

## Zapatu goizetarako plana familiarekin

Bihar hasita, zapaturo guraso eta haurrendako ekintzak egingo dituzte Okendoko ludotekan

J. B. > ARRASATE

*Ikasi eta praktikan jarri* egitasmoa da Txatxilipurdiren azken apustua gurasoen bitartez haur eta gazteengan euskara sustatzeko. Bihar hasi eta ekain amaierara arte, zapatu goizetarako ekintzak antolatu dituzte haur eta gurasoek elkarrekin jarduteko. Apirilean euskal kantu eta jolasak eta masaje tailerrak eta hankapalu ekintzak egingo dituzte.

**UDALEKUAK**

Udalekuei dagokienez, irekietan zein herritik kanpokoetan izena emateko epea maiatzaren 8an amaituko da. Hain zuzen, kanpoko udalekuetan Orio, Etxarri eta kostaldea dira aukerak aurten.




Txatxilipurdiko neska-mutikoak. I.A.

> UDALA

### Nerabeen gurasoendako eskolak maiatzean

Prebentzio Zerbitzuak 12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoen gurasoendako bi ikastaro antolatu ditu: oinarrizko bat eta sakontze mailako beste bat. Maiatzean egingo dituzte saio guztiak, bi mailatan, eguenero, 18:00etan. Oinarrizko ikastaroan, nerabezaroko aldaketak, komunikazio-gaitasuna, arauak eta drogak aztertuko dira, besteak beste. Sakontze ikastaroan, autoestimuaz, gatazken bideratzeaz, aisialdiaz eta gaueko irteerez egingo dute berba. Apirilaren 8a baino lehen eman behar da izena.

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82




BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**ABAROA EGOITZA** > URTEKO BATZAR NAGUSIA

# Egoitza berrira joateko segurtasuna bermatu guran

Astelehenean batzar nagusia egin zuten Abaroa egoitzako bazkideek

Presidente berria eta egoitzaren lekualdaketa izan ziren gai nagusi batzarrean

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Jose Riviere orain arte egoitzako diruzain eta idazkari izan dena izendatu dute Abaroa egoitzako presidente. Asteon egin dute erdiguneko egoitzako bazkideek urteko batzar nagusia, eta aretoan elkartu ziren 200 lagun ingurutik 111 bazkidek bozkatu zuten Jose Riviereren alde.


Abaroako bosgarren aretoa jendez bete zen astelehenean urteko batzar nagusia egiteko. U.M.

**KOKAGUNEA "URRUN"**

Presidente aldaketaz gainera, baina, bestelako gaiak ere landu zituzten Abaroako bazkideek asteleheneko batzarrean. Tartean, zela ez, egoitzako bazkideak gehien kezkatzen dituen gaietako bat: egoitzaren lekualdaketa.

Izan ere, egoitza berria egin arte zaharrean egon beharrak Abaroaren 2009ko jarduna baldintzatzeaz gainera, oro har, bazkideek ez dute begi onez ikusten egoitza berriarendako aukeratu duten lekua: San Andres auzoa. Jose Riviereren esanetan, Abaroara joaten diren gehienek uste dute herriaren erdigunetik "urrun" dagoela.

**INGURUAN BAKARRA, HEMEN LAU**

Aldiz, egoitzako presidenteak azpimarratu gura izan du gaur egun San Andres auzoa Arrasateren erdigunetik "gertu" dagoela esan dezakegula, eta gaineratu du arrasatearrek ingurura ere begiratu beharko luketela ikusteko inguruko herrietan, "Bergaran, adibidez, egoitza bakarra" dagoela eta Arrasaten, berriz, lau daudela.

**ERREPIDEA ZEHARKATU BEHARRA**

Hori bai, egoitza berrira joan-etorriak egiteko errepidea zeharkatu beharra bai ikusten dute konpondu beharreko arazoa dela, istripuak saihesteko. Eta gai hori Udalarekin lantzen dabiltzala azpimarratu du Rivierek.

**2.000 BAZKIDETIK GORA**

Abaroa egoitzak 2.163 bazkide ditu 2009a hasi zenaz geroztik: 1.294 emakumezko eta 869 gizonezko. Urtearen lehen hiruhilekoan 45 bazkide irabazi ditu, iazko datuekin alderatuta.

**bere ustez**


Zuriñe Velez de Mendizabal

## Gora, ezkonberriak?

Ezkontzen gaineko gehigarri bat iritsi zitzaigun aurreko astean GOIENKARIArekin batera; ideia hori buruan dutenak laguntzea bide zuen gehigarria. Ez dakit lagunen batek gorde ote dien Patxi eta Antoniori informazio hori, gainean baitaukate eztei eguna eta baliagarri izango zaielakoan nago.

Bizikidetzarako unea iritsita desengainuen momentua izango da; emozioz eta *rollo* ezin hobez hasiko dute ibilbidea eta denborak esango du nola bukatzen den.

Denbora horretan guztian, baina, makillajerik ez zaie faltako itxurakeriaren errege bihurtzeko. Zeremoniako botoetan argi utzi dute zeintzuk izango diren beraien lehentasunak; besteak beste, euskararen politika administrazioan, hezkuntzan edota hedabide publikoaren ildo politikoak aldatzea.

**"Orain porra egitea tokatzen zaigu, zenbat iraungo du bikoteak? Lau urtera iritsiko da?"**

Egiten dutena eginda, galtzaile bakarra herria izango da. Lan gogorra egin duten euskal hiritar eta erakundeen lanak atzerapausoak izango al ditu? Agian ezkorregia naiz, baina modu horretan desengainua ez da horren handia izango... Orain porra egitea tokatzen zaigu, zenbat iraungo du bikoteak? Lau urtera iritsiko da edota asper-asper eginda amaituko dute denbora hori baino lehen? Ikusiko dugu.

> OSTALARITZA

### Nazioarteko ardoak dastatu ahal izango dira aurrerantzean eguenetako eskaintzaren barruan

Arrasate Bizirik elkarteak iragarri du urte hasieran abiarazi zuten eguen iluntzeetako eskaintza indartzeko (ardo ondua eta pintxoa, euro baten truke) hitzarmena lortu dutela Domecq Bodegas taldearekin. Akordio horri esker, Arrasate Bizirik taldeak eskainiko dituen ardoak Domecq upategikoak izango dira.

Bestela esanda, Alkorta deitura duen ardoaz gainera, Bezares, Siglo eta Erribera, Australia, Txile, eta abarreko jatorri izena duten ardoak ere edan ahal izango dira eguenetan, Arrasate Bizirik taldearen ekimenean parte hartzen diharduten tabernetan. "Arrasatear eta debagoiendar guztiak ekimenaz gozatzera" gonbidatu dituzte.

ELGETAKO ETXEGINTZA S.L.
Telefonoak: 943 79 83 08 - 615 70 34 72
KONPROMISORIK GABEKO BISITA
BIZITZEKO GERTU
ELGETAN - TORREALDEA
2 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
36.407.000 pzta-tik aurrera
3 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
40.327.000 pzta-tik aurrera
4 logelako etxebizitza + 2 garaje itxi
56.481.000 pzta-tik aurrera
Garaje itxiak
1.997.000 pzta-tik aurrera

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

Itziar Zabaleta > Albaitaria

# "Txakurraren heriotza eragin dezake Leishmaniosisak"

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Itziar Zabaleta zortzi urte daramatza Altamira klinikan. Aste Santua gainean daukagu eta jende asko bere animaliekin oporretara joaten da. Opor garai horretan txakurrek Leishmaniosisa har dezakete; horri buruz hitz egin dugu.**


Itziar Zabaleta. MIREN ARREGI

**Zer da Leishmaniosisa?**

Leishmaniosisa, *Leishmania infantum* izeneko parasito batek eragindako gaixotasuna da.

Gaixotasun hori, Flebotomo izeneko euli txiki baten bitartez transmititzen da. Euli horren emeak, leishmania gaitzaz infektaturik dagoen txakur bat pikatzen duenean, odola zurgatzen duen momentuan parasitoa ere hartzen du. Euli horrek, beste txakur bat pikatzen duenean parasitoa ere inokulatu egingo du eta gaixotasuna eragin.

**Horrelako kasuak non ematen dira gehien?**

Leishmania kasu gehienak Flebotomo eulia bizi den eskualdeetan ematen dira. Euli honek, klima epela eta hezetasun handia behar du bere bizi zikloa betetzeko. Horregatik Mediterraneo aldean, Madril inguruan, Andaluzian, Extremaduran, Nafarroa hegoaldean eta Errioxan bilatu dezakegu eulia, batez ere udaberrian eta udaran. Hala ere, EAEko leku batzutan ere kasuak azaltzen hasi dira.

**"Sintoma ugari eragin ditzake: ilea galdu edo gibela handitu besteak beste"**

Euliak, askoz aktiboagoak izaten dira arratsaldeko azken orduetan, iluntzerakoan eta tenperatura 16 gradu baino altuagoa izaten denean.

**Zeintzuk dira sintomak?**

Sintoma ugari eragin ditzake leishmania gaixotasunak. Alde batetik, azaleko sintomak: ilea galdu batez ere begi inguruan, aho inguruan, ezkatatzea... Bestetik barne sintomak: pisua galdu, gibela handitu, hemorragiak, artritisa... Kasu batzuetan gure txakurraren heriotza eraginez.

**Arkakuso edo euliek beste gaixotasunik transmititzen dute?**

Arkakusoek adibidez, *Dipylidium caninum* izeneko hesteetako parasitoak transmititu ditzake, beherakoa eraginez.

**Zer egin daiteke gaixotasunari aurre hartzeko?**

Txakurrak babestu Flebotomo euliaren koskadura aurka. Horretarako pipetak eta lepoko bereziak erabiltzen dira. Leishmaniosis kasu asko ikusten diren alderdietan, intsektizida eta eltxo-sarea erabiltzea komenigarria izaten da.

txaloak eta txistuak


GOIENKARIA

# Atxabalpe ondoa zebrabide beharra bidea gurutzatzeko

Arrasateko irakurle batek bidali digu kexa. Santa Ageda auzo inguruan ibiltzen da korrika eta Arrasatetik Aramaio aldera doanean Atxabalpeko futbol zelaiaren parean ezker aldean bazterbidea amaitu egiten dela esan digu: "Bazterbide amaitu egiten da eta bidea gurutzatu egin behar da, baina horretarako ez dago zebrabiderik".



FAGOR sukaldeko altzariak %25eko **deskontua** 4 modelotan.

iKER

**SUKALDEAK:** ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

**LEHIAKETAK** > 22. ARRASATE LITERATURA LEHIAKETAK

# Irabazleak ezagutzera eman dituzte

Iaz baino lan gehiago jaso dira, baina mailak behera egin du; sari banaketa, hilaren 23an

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
AED elkarteak jakinarazi ditu orain 22 urte antolatzen hasi zen Arrasate kiteratura lehiaketako irabazleak. Sari banaketa apirilaren 23an –Liburuaren Eguna– izango da, Kulturaten, 19:00etan. Ondoren luncha egingo dute.

**127 LAN, IAZ BAINO 20 GEHIAGO**
Guztira 127 literatura lan jaso ditu AEDk, lau lehiaketatan banatuta: ipuina, poesia, bertso-paperak eta komikia. Parte hartzeak gora egin du aurten: iaz baino 20 obra gehiago jaso dituzte. AED elkarteak jakinarazi duenez, "igoera erlatibizatu beharra dago, jakinik lan kopuruak datorren urtean behera egin dezakeela samur". Izan ere, lehiaketotako parte hartzeak ikastetxeetako lanetik edaten du neurri handi batean, eta, beraz, nahikoa izaten da irakasle batek gelan gai bat lantzea jasotako lan kopuruak gorakada nabarmena izateko.

Bestalde, Arrasatetik kanpoko lanen kopurua behera doa; eta antolatzaileen ustez, "normala" da. Bada, lehen AEDk antolatutako Arrasate literatura lehiaketak ziren inguruko bakarrak, eta gaur egun, herri guztietan izaten dira aipatu lehiaketak, udalek zein tokiko euskara elkarteek antolatuta.

**GAIAK LANEN KALITATEAN ERAGIN**
AEDk adierazi duenez, "sarituak izan diren lanak nahiko garbi nabarmendu dira besteen gainetik, eta epaimahaiak adostasun handiz hartu ditu erabakiak". Aurten euskara aukeratu dute gai moduan –normalean gaia librea izaten da–, eta horrek eragina izan du lanen mailan. Hala, AEDk jakinarazi du "akaso gai abstraktu samarra" dela gaztetxoendako.

**EPAIMAHAIREN LANA ESKERTU**
AED elkarteak epaimahaiaren laguntza eskertu gura du. Epaimahaia generoka antolatzen da eta bi mota bereiz daitezke: batetik, ikastetxeen iritzia dago –aurten Herri Eskolaren laguntza jaso dute–; eta bestetik, genero bakoitzean adituak diren pertsonak. Ez dira izen handikoak, baina bai bertsozale, marrazkigile edota literaturazale amorratuak.

Eta, sariei dagokienez, 25 eta 180 euro arteko sariak izango dira, adinen arabera; datorren urteari begira, baina, dirua baino gehiago, euskarazko produktuak oparí egitea pentsatzen dabiltza.

ESANAK

**"Sarituak izan diren lanak nahiko garbi nabarmendu dira besteen gainetik, adostasun handiz aukeratu dira"**

**AED** > Lehiaketen antolatzailea

## Irabazleen zerrenda

**IPUINA**
**1. taldea** (1996an edo ostean jaioak)
> Odei Marcos
> Nagore Etxebarria.
> Maria Aranburu.
**2. taldea** (1995ean jaioak)
> Ainhoa Urzelai.
> Miriam Barriocanal.
> Ainhoa Barberan.
**3. taldea** (1993-94an jaioak)
> Arrate Isasi-Isasmendi.
> Andrea Unanue.
**4. taldea** (1992an edo aurretik jaioak)
> Jon Barrenetxea.
> Maite Carreras.
> Eneritz Urrutia.

**KOMIKIA**
**1. taldea** (1995ean edo ostean jaioak)
> Iker Hervas.
> Amagoia Muniozguren
Beste mailetan ez da lanik aurkeztu.

**BERTSO PAPERAK**
**1. taldea** (1995ean edo ostean jaioak)
> Eneko Azpiazu
> Julen Ropero.
**2. taldea** (1993-94an jaioak)
> Nahia Zeziaga
**3. taldea** (1992an edo aurretik jaioak)
> Xabi Igoa

Oharra: Poesia lehiaketako irabazleak egunotan jakinaraziko dira. Asteburuko www.goiena.net webgunean saridunen zerrenda osoa egongo da.

**LITERATURA** > LIBURUAREN EGUNA

# Ekitaldiz lepo dator liburuaren hilabetea

Erakusketa eta hitzaldiak, haur antzerkia, ipuin kontaketa eta solasaldiak, apiril osoan

**J.B.** > ARRASATE
Aurten ere egitarau luze eta interesgarria antolatu du Arrasateko Udal Bibliotekak Liburuaren Egunaren harira. Liburuaren Eguna apirilaren 23an bada ere –Cervantes eta Shakespeare hil ziren eguna *ospatzen* da–, Aste Santuan izan ezik, hil osoan izango da zertaz gozatu Kulturaten eta Santa Marinako bibliotekan. Zenbait ekitaldi ospatu dira dagoeneko; atzo bertan, esaterako, *Itxo... Txoin!* 2 eta 3 urteko haurrentzako antzerkia egin zuten.

**'BIBLIOTECA EN GUERRA'**
Gainera, eguaztena ezkero dago zabalik *Biblioteca en guerra* erakusketa; II. Errepublikan eta 36ko gerran biblioteka publikoek literaturaren alde egindako lan mardula islatzen du. Erakusketa delaeta hitzaldi bi antolatu dituzte: *Intelektualak eta antifaxismoa Espainiako gerra zibilean: zenbait adibide* (apirilak 23) eta *Pagar por leer en la biblioteca pública* (apirilak 30). Ipuin kontaketak, kontalariak eta literatura solasaldiak ere izango dira.


*Biblioteca en guerra* erakusketa hilaren 30era arte bisitatu ahalko da. UBANE MADERA

> ESKOLA ANTZERKIA
### 'Tormeseko Lazaro txikia' antzezlana DBHko ikasleendako

Udaleko Hezkuntza eta Kultura sailek elkarlanean antolatzen duten eskola-antzerkiaren jardunaldien barruan, antzerki talde profesionalen antzezlanez gozatzeko aukera dute ikasleek. Aurten DBHko ikasleek *Tormeseko Lazaro txikia* nobela pikareskoaren obra nagusiaz gozatzeko aukera izango dute, Malas Pulgas antzerki taldearen eskutik.

Antzezlana apirilaren 21ean izango da Amaia antzokian. Bi emanaldi egingo dituzte: 10:30ean eta 14:45ean.

> HITZALDIA
### 'Gazari erasoa' hitzaldia gaur (19:00) Jai Zale elkartean

Arrasateko Jai Zale eta Mundu Bat elkarteek Israelen eta Palestinaren arteko gatazkaren inguruko hitzaldi interesgarria antolatu dute, *Gazari erasoa* izenburupean. Gaur izango da, 19:00etan. Gonbidatu duten hizlaria da Alberto Artze kazetari asturiarra; izan ere, Gazan bizi den egoera lehen pertsonan ezagutu du. Israelgo armadak palestinarren aurka erabilitako gerrarako mekanismoak izango ditu hizpide Artzek, besteak beste.

> MUSIKA
### DOA eta The Unseen, punka eta hardcorea gaur 3.60 aretoan

Kanada eta AEBetako punka eta hardcorea izango dira protagonista gaur 3.60 aretoan, 22:30ean. 1978an Vancouverren jaiotako DOA eta AEBetako Massachussetts estatutik datorren The Unseen taldeek kontzertua eskainiko dute Arrasaten. Atzerriko bi taldeez gain, ohikoa den ibarreko ordezkaritza Neallta Fola taldeak beteko du. Hirukote aretxabaletarra diskoa ateratzekotan dabil, eta kantu berriak joko ditu zuzenean.

Zenbaki
Aholkulariak
TÜV EMPRESA CERTIFICADA ISO 9001:2000
• Juridikoa:
- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ....
- Penala: Hutsegite epaiketak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...
•Laborala: Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioak, ...
•Fiskala: Etxebizitzen salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak,...
•Kontalibilitatea: Pertsona fisiko eta juridikoak, ...
Basabe poligonoa F-O-10, 1. ARETXABALETA. Tel.: 943 71 21 12 • www.zenbaki.es

IAMAI ANTZOKIA kafe
ARRASATE
Gaur apirilak 3
00:00etatik aurrera
Martin Luna
Umorista




AGT ARRASATE

Arrasateko kadete mailako bikote Beñat Arabaolatza eta Danel Etxagibel, Mauri Zubillaga entrenatzailearekin batera.

**PILOTA** > UDABERRI TXAPELKETA

# Arabaolatzak eta Etxagibelek Villabonan jokatuko dute finala

AGT Arrasate pilota taldeko kadeteek Zegamako pilotariak izango dituzte finalean aurrean

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Arrasateko AGT pilota taldeko kadeteek Udaberri Txapelketako finala jokatuko dute asteburuan Villabonan. Seniorrek ere gertu izan dute finala, baina joan den astean 20-22 galdu zuten Bergarako Mugurutzaren eta Larrañagaren kontra. Gainera, Uribarrenek min hartuta jokatu zuen finalerdi hura, eta horrek goitik behera baldintzatu zuen kanporaketa, Arrasatekoak herrenka amaitu zituen-eta azken tantoak.

**ZEGAMAREN KONTRA**

Kadete mailakoek bai, haiek lortu dute Udaberriko finalerako txartela. Beñat Arabaolatzak eta Danel Etxagibelek ikusmina piztu zuen finalerdia jokatu zuten Alkizako pilotarien kontra. Finalerdira arte, bi bikote horiek partidu guztiak irabazi zituzten, eta ikusteko zegoen bi faborito horien artean zein zen indartsuena.

Partidua jokatzen hasi orduko, baina, Arrasateko pilotariek erakutsi zuten Alkizakoak ez zirela uste bezain kontrario gogorrak izan behar, eta aurreikusi baino errazago lortu zuten finalerako pasea, 22-4 irabazita gainditu zuten-eta kanporaketa.

Orain, txapelketa osoan egindako lan ona biribiltzea falta da: Villabonako Aduna pilotalekuan jokatuko duten finala irabaztea.



ARRASATE ATLETIKO

## Arizmendi Almen, hirugarren

Joan den asteburuan Ordizian egin zuten eskola arteko atletismo txapelketan Arizmendi Almen taldeko neskak hirugarren sailkatu ziren –bigarrenak irabazitako puntu kopuru berarekin–. Emaitzei dagokienez, Maialen Azua lehena izan zen 80 metroko hesi-lasterketan eta Maria Jaka 500 metrokoan. Izar Gorroñogoitiak ere lehenengo postua eskuratu zuen luzera saltoan, Maddi Garro laugarren izan zen altuera saltoan, Naiara Zubizarreta seigarren 80 metrokoan eta, azkenik, Ainara hirugarren pisu jaurtiketan.

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA, JAITSIERA FASEA

## MU derrigortuta dago bihar Tolosari irabaztera (18:00)

**X.U.** > ARRASATE

Joan den astean Iruñean izandako porrotak (79-74) kolpe batez zapuztu du MUko mutilek jaitsiera fasean zeramaten bolada ona. Eta ez hori bakarrik, atzerapauso handia izan da kategoriari eusteko bidean, UPNA kontrario zuzena da-eta lehia horretan.

Hala, Arrasatekoek akats txikiena egiteko aukera guztiak galdu dituzte, eta are eta gehiago biharko norgehiagokan; izan ere, Tolosako Bide Bide Ibiza ere mailari eusteko lanetan dabil; hori bai, nahiz eta joan den astean Urdanetaren kontra 73-77 galdu, hirugarren daude sailkapenean.

**ZALEEN BABESA**

Deigarria da jaitsiera faseko norgehiagoketan Iturripera joaten den zale kopuruak zelan egin duen behera. Eta, hain zuzen, zuri-moreek orain behar dute guztion bultzada.

## Zaldibar

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Betrayer-McAwenDauen | **10-6** |
| Iluntz-Abokajarro | **5-9** |
| Lasagabaster-HLB 108 | **0-4** |
| Paulaner Dribling-Ekaitz Taberna | **8-3** |
| Cipris-Total Disaster | **11-1** |
| Iriztu Taberna-AT Celaya | **4-4** |
| Equs-Saukelu Kabia | **2-11** |
| Dublin Irish Pub-Iturriotz Taberna | **5-3** |
| Bar Aldapa | **6-5** |

**PARTIDUAK**

| Apirilak 4, zapatua | EPAILEAK |
|---|---|
| **10:00** Total Disaster-Lasagab. | **Antolatzai.** |
| **11:00** Iluntz-Ekaitz Taberna | **Antolatzaileak** |
| **12:00** AT Celaya-Paulaner Drib. | **Antolatzai.** |
| **13:00** Iriztu Tab.-Iturriotz Tab. | **Antolatzai.** |

| Apirilak 5, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **11:00** Dublin Irish Pub.-Bar Aldapa. | **Antola.** |
| **12:00** Betrayer-Abokajarro | **Antolatzaileak** |
| **13:00** HLB 108-Mc Awen Dauen | **Antolatza.** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Paulaner Dribling | 35 | 15 |
| **2.** | McAwenDauen | 33 | 15 |
| **3.** | AT Celaya | 32 | 15 |
| **4.** | Cipris | 28 | 15 |
| **5.** | Lasagabaster | 28 | 15 |
| **6.** | Abokajarro | 26 | 15 |
| **7.** | HLB 108 | 26 | 15 |
| **8.** | Iriztu Taberna | 25 | 15 |
| **9.** | Betrayer | 24 | 15 |
| **10.** | Dublin Irish Pub | 24 | 15 |
| **11.** | Ekaitz Taberna | 24 | 15 |
| **12.** | Iluntz | 15 | 15 |
| **13.** | Iturriotz Taberna | 13 | 15 |
| **14.** | Bar Aldapa | 13 | 15 |
| **15.** | Urza | 7 | 15 |
| **16.** | Total Disaster | 3 | 15 |
| **17.** | Equs | - | - |
| **18.** | Saukelu Kabia | - | - |

### Equs eta Saukelu Kabia taldeak txapelketatik kanporatu dituzte

Zapatu arratsaldean berobero amaitu zen Saukelu Kabiak eta Equsek jokatu zuten partidua (11-2), eta berotasun horiek hoztu beharrean istiluak izan ziren partidua amaitutakoan. Zaharrak berri Zaldibarren. Hala, antolatzaileek bi talde horiek txapelketatik kanporatu dituzte, eta, horrenbestez, bi talde horien kontra jokatu behar zuten Ciprisek eta Urzak ez dute asteburuan jokatuko. Bestalde, Zaldibarrek lider berria du: Paulaner Dribling.

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



Gambrinus
garagardotegia

Otalora 40-42
Arrasate
Tel.: 943 53 35 28

2x1
produktu guztietan

Astelehenetik ostiralera:
19:00etatik aurrera itxi arte.
Larunbata eta Igandeetan: 7:00 - 13:00

**JENDARTEA** > ERRAMU-ZAPATUKO FERIA

# Ganadu pirenaikoaren erakusketa eta zezentxoak, biharko berrikuntzak

## Hirumendi elkarteak arraza autoktono horren ezaugarriak azalduko ditu ferian

## Arratsaldean gazteek errekorteak egiteko aukera izango dute zezentxoekin


Ganaduarekin eta baserriko produktuekin batera, artisauak ere egongo dira biharko ferian; San Martin plazan. MONIKA BELASTEGI

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Bihar, Erramu-zapatuko feria izango da eta udal langileak postuak eta erakusmahaiak atontzeko azken ukituak ematen ari dira.

Goizean feria izango da nagusi; eguerdian, herri bazkaria; arratsaldean, zezentxoak; eta gauean, Hesian taldea eta Korrika. Egun borobila.

**GOIZEAN, AZOKA**

09:30ean irekiko dute feria eta bost gunetan banatuta egongo da (ondoko taulan ikus daitezke).

Ganaduari dagokionez, ohi bezala, blonda, limousina, txarolina eta pirenaiko arrazako ganadua egongo da ikusgai Ibargarain. Azken arraza horri dagokionez, berrikuntza izango da aurten; izan ere, Hirumendi elkarteak arraza autoktono horren gaineko azalpenak emango ditu.

Bestetik, Ibargarai kalean egongo dira, ohi bezala, Jardunek antolatutako lehiaketan parte hartu duten txorimaloak ikusgai. Sari ematea izango da 12:30ean.

Horrekin batera, azokan aurreko urteetan ere egon ohi izan diren artisau, baserriko produktu, bestelako jaki, talo postu eta ardo dastatze egongo dira.

**EGUERDIAN, BAZKARIA**

500 lagunendako herri bazkaria dago aurreikusita eta mahoiz jantzita joateko dei egin dute antolatzaileek. Bazkariko txartelak eskura daitezke 18 eurotan Ariznoa, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eta baita Udal pilotalekuan ere. Bazkaria izango da, 14:30ean, Udal pilotalekuan. Bazkari osterako, txotx ibiltaria antolatu dute.

**ARRATSALDEAN, ZEZENTXOAK**

Aurtengo beste berrikuntza da gazteendako zezentxoak egongo direla Seminarioko jolaslekuan. Aurreko urteetan umeendako poniak izaten ziren baina aurten gazteendako zezentxoak ekartzea erabaki dute, Udaleko iturrien esanetan "adin tarte horretarako ekitaldi gutxiago egoten delako. Gainera, umeendako ur jolasak ere badaude Agorrosinen".

**GAUEAN, HESIAN TALDEA**

Hesian taldeak Domingo Irala kalean egingo du emanaldia, 22:30ean. Asteon egokitu dute eskenatokia Udal langileek eta lehenengo aldia izango da kale horretan halako kontzertua egingo dena. Hesian taldeak Korrika iristearekin batera bukatuko du emanaldia, 00:00ak pasatxo. Izan ere, ordu horretan iritsiko da Korrika Osintxura.

**UDALTZAINGOAREN OHARRA**

Azoka dela eta, autoa kendu egin beharko da bihar, zapatua, 06:00etarako Ibrgarai kaletik –Miguel Altunan hasi eta Seminarioko jolaslekuraino–. Bestetik, Ibargarai eta Fraiskozuri trafikora itxita egongo dira eta ibilgailuak joan beharko dira Irizar, Zurradero eta Matxiategitik. Erdialdean aparkalekuak kenduko direnez gaur, egubakoitza, 17:00etatik eta bihar, zapatua, Martinez de Iralako jolaslekua aparkaleku gisa egokituko dute.

### Azoka, gunez gune

**Ibargarai kalea**
Ganadua egongo da ikusgai: behiak, txahalak, zaldiak, ardiak eta beste. Jardunen lehiaketako txorimaloak ere han egongo dira.

**Seminarioko jolaslekua**
Hegazti eta animalia bitxien gunea izango da. Horrekin batera baserriko makineria ere egongo da ikusgai. Talo postu bat ere han egokitu du Udalak eta Beti Busti piraguismo elkarteak kudeatuko du.

**San Martin plaza**
Artisauen gunea izango da.

**Simon Arrieta plaza**
Bertako gazta, ogi eta ortuko produktuen postuak jarriko dituzte han.

**Fraiskozuri**
Errepidearen bi aldeetan jaki postuak egongo dira eta plazan talo postua eta ardo postua.

GANADU ERAKUSKETA

### Arraza pirenaikoaren ezaugarrien berri emango dute

Hirumendi elkarteak emango ditu azalpenok, Ibargarain egokituko duten gunetxoan. Bi emanaldi egingo dituzte, 11:30ean eta 13:00etan. Abelburu bat aurrean dutela arraza pirenaikoaren ezaugarri morfologikoen berri emango dute; baita txahalak aurrera ateratzeko duen gaitasunaren, gogortasunaren eta beste hainbat ezaugarriren berri ere.

Horrez gain, etzi, bisita gidatua egingo dute Hirumendikoek Elosun duten ukuiluetan. Interesa duten guztiak joan daitezke eta han ere ganadu pirenaikoaren gaineko azalpenak emango dituzte. Amaieran, Eusko Labeldun haragi hori dastatzeko aukera egongo da.

Autobusak abiatuko dira gasolindegi paretik eta Fraiskozuritik 10:30ean.

bere ustez


Lander Juaristi

## Etorkinak, euskara, herria, irratia

Azken urteotan munduko herrien orografia aldatu egin da, merkantzien mundu global honetan, pertsonek ere aurkitu dute globalizatzeko modua eta etorkizun, amets, diru, abentura bila abiatu izan gara batetik bestera. Gure herriarentzat ere, euskaldunon herriaz ari naiz, aukera eta erronkak agertu dira, espainiar eta frantses hizkuntzekin elkarbizitzeaz gain, beste kultura eta hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera daukagu orain, inoiz baino gehiago! Aukera diot, eta ez arrisku! Euskara bizi dugunon esku dago hizkuntza zaintzea, hori ikasi genuen! Baina beldur gabe jokatu behar dugu.

**"Beste kultura eta hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera daukagu orain, inoiz baino gehiago"**

Hizkuntza baino zerbait gehiago daukagu eskaintzeko, eta kultura, pentsaera, izaera, hizkuntza, askotariko jendeaz asko ikasteko. Euskararen indar-gune nagusia jendea dela sinesten dut, hizkuntza erakargarri bilakatzeko, hizkuntza horren atzekoa, erakargarri bilakatu behar dugu, herrian, auzoan, tabernan… Ba al daukagu, ba al gara zerbait euskararen atzean?

Asteartetan 21:00etatik aurrera Txapa irratian herrian dauzkagun aukera hauek ezagutzeko aukera izaten da, *Kanpora Begira* irratsaioan herriko etorkinek hartzen dute hitza.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13


Ondo pasa
Erramu-zapatuan!
Agorrosin • Ariznoa • Avenida • Biko • Etxagi • Euxebio II
Frontoia • Iraho • Galway Irish pub • Kai • Kayak
Pol Pol • Sirimiri • Toki Ona • Usoa • Zapelaitz • Zunbeltz

Zerbitzua okerragoa izateaz gain, garestiagoa izango dela ere uste dute

Gobernu taldeak, berriz, dio Udalak kudeatuz gero zerbitzua hobea eta merkeagoa izango dela

**UDALA** > UR ZERBITZUA

# EAJren ustez, "oker handia" da ur zerbitzua Udalak hartzea

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Otsailaren 23an egindako osoko bilkuran, Gipuzkoako Ur Partzuergotik irten eta ur zerbitzua zuzenean kudeatzeko erabakia hartu zuen udalbatzarrak. Erabaki hori hartu zen Gobernuan dauden bederatzi zinegotzien aldeko botoekin eta EAJ, PSE-EE eta EAren kontrako zortziekin.

Bada, EAJ alderdiak bere ezezkoaren arrazoiak azaldu ditu erredakzioara bidalitako oharrean.

**UDAL GOBERNUAREN ERABAKIA**

2002ko ekainaren 28a ezkero Gipuzkoako Ur Partzuergoa da Bergarako uren kudeaketa integralaren (hornikuntza eta saneamendua) erantzukizuna duena, garai hartako udal agintariek hala erabaki zutelako.

Baina gaur egungo Gobernu taldeak Partzuergoarekin zeukan hitzarmena eten egin du, hain justu "Partzuergoak ez zuelako hitzarmenean jasotakoa betetzen", alkatearen esanetan.

Agurne Barruso alkateak otsaileko osoko bilkuran esan zuen: "Partzuergoko ordezkariekin egon gara eta esan diegu ez dutela betetzen hitzarmenean jasotakoa. Besteak beste, ez dituzte 24 orduko guardiak egiten eta ezta euri-urak kudeatzen. Eta gainera, erantzun digute ez dutela hitzarmena betetzeko asmorik".

Horrekin batera alkateak azaldu zuen egoera ondo aztertzeko bi txosten egin zituztela, "bata ekonomikoa eta bestea teknikoa, eta ikusi zutela ur zerbitzua Udalak kudeatuz gero, zerbitzua hobea eta merkeagoa izango dela. Urtean 53.000 euro merkeagoa, hain justu ere. Txostenok gainerako alderdiei ere eman zizkietela azaldu zuten.

**KONTRA EGOTEKO ARRAZOIAK**

Bada, EAJ alderdia ez da iritzi berekoa. Batetik, uste dute zerbitzu batzuk Udaletik kanpora atera daitezkeela eta beste batzuk ez, hainbat faktoreren arabera: "Gure datuen arabera, ur zerbitzuaren kasuan, Udalak jasan beharko duen gain-kostua, gutxienez, 100.000 eurokoa izango da urteko, eta hori onartezina da". Diote, gainera, gain-kostu horretan ez direla kontuan hartu, besteak beste: langile berrien kostua; zerbitzuburuaren dedikazioa ere ez dela baloratu, eta zalantzak dituzte administrari lanerako eta bezeroen arretarako langile baten jardun erdiarekin nahikoa izango ote den, Gobernu taldeak proposatzen zuen moduan.

Jeltzaleen ustez, aintzat hartu beharreko beste datu batzuk dira saneamendu sistemaren isuriak: "2002an, Partzuergora sartu ginen urtean, ur-ihesen maila %53 zen eta zerbitzua Partzuergoak sei urtez kudeatu eta gero maila da %21. Diferentzia hori, 2009ko datuekin, 350.000 euro da". Ur-ihesak jaistearen arrazoia da, EAJko kideen ustez, Partzuergoak "egunero kontrolatzen eta konpontzen dituela". Eta gehitzen dute: "Zeregin hori ez dago aurreikusita Udalaren planteamendu berrian". Era berean, EAJko kideek gehitzen dute Partzuergoak gaur egun ematen dituen beste zerbitzu batzuen gainean ere ez dela ezer aipatzen Udalaren planteamenduan; besteak beste: bezeroendako 24 orduko zerbitzua, faktura elektronikoa...

Horregatik guztiagatik "oker handia" dela uste dute ur zerbitzua zuzenean kudeatzeko erabakia hartu izana.

**UDALA** > ZABORRA

# Zaborraren tasa %20,1 igoko da uztailetik aurrera

Zerbitzuan aldaketa bat egongo delako igoko da tasa, Mankomunitateak hala proposatuta ibarreko udal guztiei

**M.B.** > BERGARA

Zabor tasa %20,1 igoko da 2009ko bigarren seihilekotik aurrera. Halaxe onartu zuen udalbatzak astelehenean egindako osoko bilkuran, PSE-EEren kontrako botoarekin. Igoera hori gertatuko da Debagoieneko Mankomunitateak egindako proposamenari jarraituz.

Igoeraren arrazoia da uztailetik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoak hartuko duela bere gain orain arte Mankomunitateak eman duen zabor zerbitzuaren zati bat. Hain justu ere, uztailetik aurrera Partzuergoak egingo du hondakinen transferentzia eta zabortegirainoko garraioa eta Mankomunitateak ordaindu egin beharko dio Partzuergoari zerbitzu horregatik. Aldaketa hori Gipuzkoa osoan gertatuko da.

**GUZTIRA %30,1**

2009ko lehenengo seihilekoan %10 igo zuen zabor tasa Udalak, Mankomunitateak hala eskatuta. Modu horretan, guztira %30,1 igoko da tasa.



Irudian, umeak jolasean begiraleetako baten begiradapean. GOIENKARIA

**AISIALDIA** > UR JARDUERAK

# Ume eta gaztetxoendako ur jolasak bihar Agorrosinen

**M.B.** > BERGARA

Bihar, zapatua, ume eta gaztetxoendako ur jolasak egongo dira Agorrosinen.

17:00etan hasi eta 19:00ak bitartean txirrista puzgarrian, flotagailuetan... ibiltzeko aukera izango dute herriko gaztetxoenek. Hain justu ere, igerileku handian 8 eta 14 urte arteko gaztetxoak ibili ahal izango dira. Igerileku txikian, berriz, 8ra arteko ume eta haien gurasoek.

Hilean behin antolatzen ditu halako jarduerak Kirol Zerbitzuak. Martxokoan 120 gaztetxok hartu zuten parte. Hurrengo saioa maiatzaren 16an izango da.

## oharrak

IKASTAROA

**> Lotura afektiboen gaineko ikastaroa, emakumeendako**

Harreman afektiboak nola sortzen ditugun aztertu eta landuko da Ongizate Sailak antolatutako ikastaroan. Apirilaren 20tik ekainaren 22ra izango da; astelehenetan, 15:00-17:00, kultura etxean. Plaza mugatuak dira eta izenematea doan. Informazio gehiagorako eta izena emateko deitu 943 77 91 65 zenbakira.

AGORROSIN

**> Agorrosingo kirol eremua zabalik egongo da Aste Santuan**

Eguen Santutik Pazko-astelehenera zabalik egongo da. Apirilaren 14tik 19ra, ordea, itxi egingo dute garbitzeko, besteak beste.

AISIALDIA

**> Aldundiaren Oporraldiak 2009 egitasmoa abian da**

14 eta 17 urte artekoen zozketan parte hartzeko izenematea da hilaren 21etik 29ra *www.gipuzkoa.net* helbidean.

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre

Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!

Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu,
ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.

TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne

TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

GOIERRI
AUTO GIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gidabaimenak atera ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

**MUSIKA ESKOLA** > 'APIRILEAN MUSIKA'

# Kantu emanaldiarekin hasiko da aurtengo 'Apirilean musika'

Kontzertuak, tailerrak, kontaketak, emanaldiak eta askoz gehiago Musika Eskolaren eskutik

**NEREA MENOR** > BERGARA

Bergarako Musika Eskolak *Apirilean musika*-ren V. edizioa ospatuko du gaurtik maiatzaren 8a arte. Aurten, gainera, Eskolak 25 urte beteko ditu eta badira ospakizun horren barnean antolatuko diren hainbat ekintza ere. Aurreneko emanaldia gaur izango da, 20:00etan. Kantu ikasleek kontzertua eskainiko dute Sierbetako elizan. "Gehienak helduak dira; hala ere, gaztetxo batzuk ere badira kantua ikasten, eta mota askotariko musika entzuteko aukera izango dugu: barrokoa, opera, popa, musikala...", diote Musika Eskolakoek.

*Organoa ikusiz organoa ikasi* izeneko kontzertu didaktikoa eskainiko du Aitor Oleak martitzenean. Emanaldi horren bidez, organoa aukera askotariko instrumentua dela erakutsi nahi da, eta mota askotariko musika egin daitekeela harekin.

**ORGANO ESKOLAK**

Datorren ikasturteari begira, Musika Eskolak organo eskolak eskainiko ditu. "Oso gutxi dira instrumentu hau erakusten duten eskolak. Bergaran dagoen potentzial eta instrumentuekin, merezi duela pentsatzen dugu".

Ospakizunen egitaraua bitan zatitzen du Aste Santuak, baina etenaldiaren ostean, apirilaren 24an berreskuratuko dituzte emanaldiak. Hilaren 26an, herri askotariko eskola ezberdinetako taldeek parte hartuko dute Musika Modernoaren Lehiaketan.



Leo Juaristi, Marije Ugalde eta Begoña Mujika. N.M.

## 'Apirilean musika', V. edizioa

**3, egubakoitza**
20:00: Kantu ikasleen emanaldia, Sierbetako elizan.

**6, astelehena**
10:00-13:00: Interpretazio eta mugimendu tailerra. Hasiberrien eta Haurren Abesbatza, Musika Eskolan.

**7, martitzena**
10:00-13:00: Interpretazio eta mugimendu tailerra. Hasiberrien eta Haurren Abesbatza, Musika Eskolan.
19:00: *Organoa ikusiz, organoaz ikasi* kontzertu didaktikoa. Pedro Deunaren Eliz Nagusian.

**24, egubakoitza**
19:00: *Benan eta Begigorri Munstroa*, Mariaren Lagundiko elizan.

**25, zapatua**
Egunean zehar: Trikiti Eguna, Antzuolan.

**26, domeka**
11:00-13:00 eta 16:00-20:00: Musika Modernoko Lehiaketa, Zabalotegi aretoan.
12:00: BMEko Gazte Bandaren kalejira, Bergarako kaleetan.
12:30: Bergarako Udal Musika Banda eta Bergarako Musika Eskolako Gazte Bandaren kontzertua, Udal Pilotalekuan.

**27, astelehena**
18:30: Hari instrumentuen emanaldia ospitaleko elizan.
18:30: Instrumentu ezberdinen emanaldia, Zabalotegi aretoan.
19:00: Ikasle nagusien emanaldia, Musika Eskolan.

**28, martitzena**
15:00: *Txirula Magikoaren Unibertsoa* ipuin didaktikoa, Musika Eskolan.
17:30: *Musika eta Sormena*, Musika Eskolan
18:30: Metal instrumentuen emanaldia, Zabalotegi aretoan.

**29, eguaztena**
18:00: Piano ikasleen emanaldia, Musika Eskolan.
18:30: Hari instrumentuen emanaldia, ospitaleko elizan.
18:00-20:00: Metal instrumentuen mekanika eta mantenua, Musika Eskolan.
18:30: Gorputz perkusioa eta gitarra emanaldia, Zabalotegi aretoan.

**30, eguena**
18:00-19:30: Musika Kalera!, Bergarako kaleetan.
18:30: Instrumentu ezberdinen emanaldia, Zabalotegi aretoan.

**8, egubakoitza**
19:00: Arrasate Musikal eta Bergarako Musika Eskolako Orkestra Sinfonikoen emanaldia, Mariaren Lagundiko elizan.

---

**MUSIKA** > PETTIREN KONTZERTUA

# Pettiren folk doinuak entzun ahal izango dira etzi, domekan

Musika esperimentala, folka, rocka, gitarra, kantua, bakarka, taldeka... Ikuspegi askotatik jorratu du Pettik musika

'Awañak' da azken diskoaren izena, eta ibilbide osoko kantuak biltzen dira bertan

**N. M.** > BERGARA

Petti musikari nafarra izango da etzi, domeka, Zabalotegin. Arratsaldeko zazpietan hasita, bere folk basatiaren doinuak entzungo dira areto osoan. Udalak harrera ona izango duela pentsatzen du: "Indar handia duen musikaria da Petti", diote. Sarrerak egunean bertan egongo dira salgai aretoko lehiatiletan 3 euroren truke.

16 urte zituela ekin zion Pettik musikaren bideari, Bidasoa bailarako Noise Hole rock taldeko gitarra jotzaile. Zuzeneko asko eskaini zituen talde harekin Euskal Herrian zehar, eta baita hemendik kanpo ere. Lehenengo talde hura desegin eta gero, musika esperimentalagoa jorratzen hasi zen, Zup taldearekin; bertan sartu zen kantari moduan. 1997an, Euskal Herriko panorama musikalean bakarlari eta bluesman berri batekin topo egin genuen. Gaztelupeko Hotsak diskoetxearen arabera, bakarlari moduan lanean hasteak "bizi izateko esperientziaren interpretazio poetiko bezain basatia egiten zuen artista. Bere eginbeharra beti mugan ibili diren musikarien erritmoetan sustraitzen zen".

Petti ikusteko aukera dagoen lehenengo aldia ez da debagoienarrontzat. Izan ere, joan den urtarrilaren 16an Elgetako Espaloia Kafe Antzokian ikusi ahal izan genuen Petti & Banda Elektrikoaren emanaldia. Danbakako hirugarren finaleko talde gonbidatuetako bat izan zen, Norman taldearekin batera. Bada, Pettiren kontzertua maisuen parekoa izan zela eta sekulako emanaldia eskaini zuela ondorioztatu zuten Espaloira joan ziren musikazaleek.

**BOST LAN MERKATUAN**

1999an aurreneko diskoa kaleratu zuen, *Amets bat* (1999). Ordutik hona beste hiru konposatu ditu: *Arrazoiak* (2001), *Etxeko Uzta* (2002) eta On (2007). Pettiren azkeneko diskoa zuzenekoa da, *Awañak*.

Haren influentzien artean, Neil Young, Jimmi Hendrix, Ainara Legardon, Mikel Laboa, AC/DC eta Bide Ertzean taldeak daude, besteak beste.

## oharrak

KORRIKA

**> Gaur arratsaldeko erromeriak amaiera emango dio Korrika Kulturalari**

Osintxutik Bergarara sartuko da Korrika bihar. Hori dela eta, ekitaldi bereziak antolatu dira Korrikari ongietorria egiteko eta herria girotzen hasteko. Korrika herrian zabaltzen has dadin hainbat ekitaldi egin dituzte martxoan zehar eta apirileko aurreneko egunetan.

Gaur, 19:00etatik 21:00ak arte Domingo Irala kalean erromeria egongo da Bergarako trikitilariekin eta Abarka eta Gazte Alai dantza taldeetako dantzariekin.

Bihar, Korrikako ekitaldien barruan, Hesian taldearen kontzertua egongo da. Korrika Bergara erdialdean sartzen denerako kontzertua amaituta egotea da asmoa.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

GURIA
Taberna
Bidekurutzeta 5
BERGARA
943 76 20 34

MIZPILDI
OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

ANTIA
HARATEGIA URDAITEGIA
Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.
Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09

**FUTBOLA** > LEHEN ERREGIONALA

# Preferentera igotzeko puntu erabakigarriak daude jokoan

Bergarak Zestoaren aurkako partidua irabaziko balu (bihar 16:15, Iraeta futbol zelaia), pauso garrantzitsua emango luke preferente mailarako bidean



Goian, Bergarak eta Mutrikuk Agorrosinen jokatutako partiduko irudia. GOIENKARIA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Bost partidu falta dira lehen erregionaleko liga bukatzeko; baina bihar Bergarak Zestoaren aurka jokatuko duen partidua erabakigarria izan daiteke preferenterako bidean. "Bederatzi puntuko aldea dugu eta derrigor irabazi behar dugu errenta mantentzeko. Mutrikuk irabazten ez badu, preferenterako txartela ia eskura izango genuke", dio mahoneroen entrenatzaile Manu Diazek. Partiduaren garrantzia ikusita, autobusa antolatu dute Zestoara joateko. 15:30ean irtengo da Agorrosindik, eta doakoa da.

**HELBURU EZBERDINAK**

Dena den, sailkapenari begira egotea baino, nahiago dute biharko partiduari begiratu. Zestoa sailkapeneko hirugarrena da, eta promozioa jokatzeko txartela ematen duen bigarren tokian sailkatzeko azken aukera dute bihar. "Bi taldeok dugu zerbait jokoan; hortaz, partidu gogorra izango da. Zestoak jokalari oso onak ditu, eta kontzentratuta irten beharko dugu zelaira. Eurek promozioa jokatzeko eskubidea ematen duen bigarren tokian sailkatu nahi dute", dio Diazek. Bergarako entrenatzaileak jokalari guztiak ditu jokatzeko moduan.

## Labegaraieta

**PARTIDUAK**

| Apirilak 5, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **09:30** Irubide-Errotagain | **Zigalikatis** |
| **10:30** Akabaoak-Zigalikatis | **Errotagain** |
| **16:00** Los Blus-Monte Taberna | **Los Latinos** |
| **17:00** Carboneros-Los Latinos | **Los Blus** |
| **18:00** BElengua-Diego Valor | **Carboneros** |
| **19:00** Komando Pip.-Niu Tim | **Diego Valor** |
| **20:00** Internacional-Irish Pub | **Niu Tim** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | UD Akabaoak | 63 | 22 |
| **2.** | Carboneros | 58 | 22 |
| **3.** | CM Errota-Gain | 54 | 22 |
| **4.** | Zigalikatis | 49 | 22 |
| **5.** | Los Latinos | 41 | 22 |
| **6.** | Komando Piperrak | 34 | 22 |
| **7.** | Los Blus | 25 | 22 |
| **8.** | Niu Tim | 25 | 22 |
| **9.** | Diego Valor Ileapaind. | 24 | 22 |
| **10.** | Internacional | 23 | 22 |
| **11.** | Irish Pub | 20 | 22 |
| **12.** | Belengua Taberna | 19 | 22 |
| **13.** | Irubide Taberna | 7 | 22 |
| **14.** | Monte Tab. | 8 | |

### Txapelketako informazioa

Labegaraietako txapelketaren gaineko informazioa eskuratu nahi dutenendako bi helbide dituzte antolatzaileek: alde batetik, *www.bergarakotxapelketa.3a2.com*; eta beste alde batetik, *http://es.geocities.com/josemariromerotena*. Lehenak batzuetan arazoak ematen ditu.

**MUNDUKO BIZIKLETA KOADRO ONENA BERGARAN!**

**BICIPRECISIÓN IGARTUA** Zubieta kalean 943 76 11 21

LAPIERRE




cervélo




Lapierre-ren FPS eta OST pibote birtualeko sistema esklusiboak hauxe eskaintzen du:
- Abiadura txikian, konpresioen amortiguazioa handitzea
- Abiadura handian, trantsizio hobea
- Bizikleta egonkorragoa
- Kikback-a desagerrarazten du
- Aurrealdean heltze-ahalmen handiagoa
- Egonkortasun handiagoa
- Bibrazioek ez diete pedalei eragiten

Abantaila horiei guztiei esker, Lapierre-ren X-Control bizikletak oso erosoak dira eta momentu bakoitzean gozatzeko aukera aparta emango dizute.

Munduko bizikleta aldizkari garrantzitsuenen iritziz:
- Koadrorik hoberena aukeratu dute
- Arinena
- Transmisio sistemak erantzun ezin hobea ematen du
- Erosoa
- Gogorra
- Asistentzia asegurua barne (laguntza mekanikoa, fisikoa, lapurreta, hausturak)

**Beste markak:** www.flandersfietsen.be, Orbea, Goka, Massi. Colnago, Kuota, GT, Hed, Mavic, Spiuk, Catlike, Etxe Ondo, Shimano, Campagnolo, Sram, Ridley eta De Rosa.

**UDALA** > OHIKO OSOKO BILKURA

# Kirol etxearen proiektua onartu du udalbatzak

Lanen oinarriak ere onartu dituzte aldaketatxo bat eginda, eta orain lehiaketa deituko dute

Mitarte kaleko lanen esleipena atzeratu egin dute hurrengo astelehenera, apirilak 6


Kirol etxe berriak izango duen kanpoko itxura. M.A.

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Astelehenean egindako ohiko osoko bilkuran onartu zuten kirol etxearen proiektua; baita lanen lehiaketa oinarriak ere baina Ezker Batua-Berdeak taldeak proposatutako aldaketatxo bat eginda: bost hilabete baino gehiago langabezian dauden langileak hartzen dituen enpresak puntu gehiago eskuratuko ditu. Zinegotzi guztiak ez ziren bat etorri proiektuaren onarpenarekin. EAko Lore Martinezek itxaroteko eskatu zuen herritar batzuk kanpoko igerileku eske daudelako. PSE-EEko zinegotzi Ainhoa Sagarribaik, ostera, informazio gutxi izan dutela bota zuen baina trabarik jartzeko asmorik ez duela argitu. Hala, EAko ezezko botoa jaso zuen; gainerako taldeek baiezkoa eman zuten. Horren harira, kreditu aldaketa bat ere onartu zuten 1.000.000 euro bideratzeko kirol etxearen lanetara. Beste kreditu aldaketa bat ere egingo dute 384.000 euro emateko zaharren egoitzako lanei.

**ETXE TASATUEN GAIA ATZERATUTA**

Hiri antolaketari dagokion arauetan aldaketa puntual bat egitea ere onartu zuten eta espedienteari hasiera eman. Batetik, 4-B arloa, hau da, Bedarreta auzoa eta Tubos lantegia artean dagoen eraikina hezkuntzarako erabiltzeko izendatzea. Eraikin hori ez da Udalarena oraingoz baina eskuratzeko asmoa dauka. Eta bestetik, baserriei eragiten dien aldaketa onartu zuten: baserriak banatzerakoan etxebizitzetan zati bakoitza ugazaba bakarrarena izatea, eta ez orain arte moduan osoaren portzentaje bat egokitzea jabe bakoitzari.

Hirigintza Sailari dagokion beste bi gai ere erabakitzeko zituen udalbatzak. Batetik Mitarte kaleko lanak zeinek egin hautatu behar zuten zazpi enpresen artetik. Baina bi enpresa puntu berdintsuekin geratu dira eta hobeto aztertzekotan geratu ziren. Bestetik, Deba ibaiaren beste aldean Bruesa egiten dabilen etxebizitza tasatu batzuk hutsik daude –15 inguru– eta berriro zozketa egiteko baldintzak onartu gura zituzten. Hori ere atzeratu egin zuten eta datorren asteleheneko ezohiko osoko bilkuran erabakiko dituzte biak.

## Literatura Astea agurtzeko Irakur Maratoia

Astelehenean Jesus Mari Olaizola *Txiliku* idazlearen bisita izan zuten Kurtzebarri eskolan, martitzenean Irati Pagoagaren ipuinak entzun zituzten txikienek eta gainera, bertan egindako ipuin, bertso, komiki eta beste hainbat lan trukatu dituzte ikasleek. *Literaturari lekua* izeneko astea bukatzeko XVIII. Irakur Maratoia egin zuten atzo (08:30-18:00) ikasle, irakasle eta gurasoen artean.



MIRARI ALTUBE

> AISIALDIA

### Udalekuetan begirale izateko izenemate epea gaur bukatzen da

Gazteria Sailak eta Poxpolin elkarteak udaleku irekietan –uztailak 2tik 24ra– begirale lanetan jarduteko deia egin dute. Izenemate epea gaur, apirilak 3, bukatuko da eta interesatuek Gazteria Sailera bideratu behar dituzte curriculumak: *gazteria@aretxabaleta.net*. Begiraleek derrigorrez jakin behar dute euskaraz eta 18 urte izan. Baloratuko dute herrikoa izatea eta antzeko lanetan ibilia.

> ZINEMA

### 'El curioso caso de Benjamin Button' aste bukaeran Arkupen

Brad Pitt eta Cate Blanchett protagonista dituen Benjamin Button izeneko gizonaren istorioak ikusmin handia sortu du. Film hori izango dugu aste bukaeran: gaur eta bihar (22:00), domekan (19:30) eta astelehenean (16:00). Umeek, ostera, *Bonkers* filma izango dute euskaraz, domekan (17:00), 3 euroren truke.

Aste Santuko jai egunetan ez da izango zinemarik; Pazko Astean, ostera, bai.

Mobiliario Arenaza
• ALTZARIAK
• DISEINUA
• APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Garbittu
Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
*garbittu@euskalnet.net*
Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak
•
Obra bukaerako garbiketak
•
Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak
•
Kristalen garbiketak
•
Arropa garbiketak

HEZKUNTZA > ESKAINTZA PARTZIALA

# Langile eta langabeendako eskaintza dute Lanbide Eskolan

## Erizaintzako Zaintza Osagarriak, Karrozeria eta goi mailako zikloak egiteko gainditu beharreko proba gertatzeko ikasketak eskaintzen dituzte

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Eskaintza partziala dauka Aretxabaletako Lanbide Eskolak langile eta langabeendako. Hainbat ikasketa egiteko aukera daukate 18 urtetik gorakoek, norberaren beharretara egokitutako ordutegiarekin.

**ESKAINTZAREN BEREZITASUNAK**

Krisi sasoian inoiz baino garrantzitsuagoa dela formatzea diote adituek, eta Etxebarri auzoan dagoen Lanbide Eskolak ikasten jarraitzeko aukera eskaini gura die ikasketak albora utzitakoei.

Eskaintza partzialak esan gura du ikasleen beharretara egokitzen dituztela eskola egutegia eta ordutegia. Hain zuzen, betiko eskola moduarekin ikasketak egiteko aukerarik ez duten horiengan pentsatuta dago. Hona eskaintza partzialaren berezitasunik garrantzitsuenak: 18 urtetik gora izatea eta sartzeko baldintzak gaindituta izatea –DBH; 2. BBB; LH-1; 2. IEE edo sarrera proba gaindituta–; eskolan egon beharra derrigorrez; eta moduluka matrikulatzeko aukera. Modulua gainditutakoan agiri ofiziala jasoko dute ikasleek.

**KARROZERIA ESPEZIALITATEA**

Eskaintza partzialak hiru ikasketa eskaintzen ditu: Erizaintzako Zaintza Osagarriak –azken urteotan eskaintzen dabiltzana, arratsaldez–; Karrozeria –berria–; eta goi mailako heziketa zikloren bat ikasi gura dutenek gainditu beharreko proba gertatzeko ikasketak.

Argibide gehiago gura izanez gero Aretxabaletako Lanbide Eskolara jo behar dute interesatuek (943 79 79 00). Izenemate epea apirilaren 24an bukatuko da.



Ikasleak lanean Lanbide Eskolan. GOIENKARIA

ZERBITZUAK

# KZgunea itxita hilaren 6tik 15era artean

M.A. > ARETXABALETA

Markole auzoan dagoen KZguneak oporrak hartuko ditu gaur, hilak 3. Hala, astelehenetik apirilaren 15era bitartean itxita egongo da. Apirileko gainerako eguneetan arratsaldez eskainiko du zerbitzua Haizea Odria begiraleak (16:00-20:00).

Oporren ostean hainbat ikastaro egiteko aukera izango dute herritarrek: Interneteko ezagutzak eta Interneten bitartez zelan egin lan administrazioarekin, hilaren 20tik 30era bitartean (16:00-18:00); eta sinadura digitalaren gainekoak hiru egunetan, hilaren 17an (16:00-18:00) eta 21ean eta 28an (18:00-20:00).

Gainera, IT txartela eskuratzeko azterketak egingo dituzte. Hona egunak: hilaren 20an, 22an, 23an, 27an eta 29an (18:00). Hitzordua aurrez egin behar da.

Eta ONA (osasun txartel elektronikoa) ezagutu gura dutenek jo dezatela KZgunera argibide eske.

ELKARTASUNA > SAHARAKO UMEAK

# Saharako umeak etxeetan hartzeko familia gehiago gura ditu Iesbaa elkarteak

## Iaz udan hiru mutiko izan ziren gurean eta aurten berriro ere egongo dira haiek

M.A. > ARETXABALETA

Orain dela aste batzuk eman zuten *Oporrak bakean* egitasmoaren berri Aretxabaletako Iesbaa elkarteak eta Arrasateko Nubik, eta Saharako umeek laguntza beharrean daudela ekarri zuten gogora. Uda sasoia gurean pasatzeko laguntza deia egin dute, hain zuzen. Uztailean eta abuztuan Aljeriako kanpamentuetan egon beharrean giro osasuntsuagoan –tenperaturari eta elikadurari dagokionez– eta umeei dagokien eran, jolasean, pasatzeko.

Iaz hiru mutiko izan ziren Aretxabaletan, hiru familiak hartu zituztelako etxean, eta aurten ere hirurak etorriko dira familia berberetara. Baina gurera datozenak gehiago izan daitezen gura dute Iesbaako kideek, ume gehiagok izan dezaten aukera kanpamentuetatik irteteko. Izena emateko epea maiatza bitartean dago zabalik eta edozein argibide gura izanez gero, Iesbaako kideei deitu (626 63 91 64 ) edo mezu bat idatzi posta elektroniko bidez: *iesbaa_aretxabaleta@hotmail.com*.



Orain dela urte bi egon ziren umeei udaletxean egindako agurra. M.A.

**BESTE UME BATZUK, LASTURRERA**

Saharako ume guztiak, baina, ez dira familiekin egongo; izan ere, batzuk Lasturko (Deba) aterpetxera joango dira uda pasatzera. Lehenengoz datozenak dira ume horiek, eta senideak Gerra eta Minen Biktima Zentroan dituztenak. Bada, Lasturko egonaldia ordaintzeko lagundu gura duten herritarrek Kutxan, Caixan eta Euskadiko Kutxan dituzte kontuak zabalik.

ALE
ARETXABALETA
Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako
Berariazko Institutua

**Bi baldintza hauek betetzen badituzu:**
> Gutxienez 18 urte izatea
> Honako ikasketaren bat gaindituta izatea:
- 2. BBB
- LH-1
- 2. IEE
- DBH
- Sarbide proba gaindituta izatea

**Lan egiten duzun bitartean KARROZERIA titulu ofiziala ateratzea erraza izango da zuretzat.**

**Goi mailako heziketa zikloetarako sarbide proba prestatu nahi duzu?**
Nahikoa duzu 18 urte edukitzea.
Etor zaitez Aretxabaleta Lanbide Eskolara eta informatu
Inskripzioak apirilaren 24 arte.

Etxebarri auzoa z/g
20550 ARETXABALETA (Gipuzkoa)
tel.: 943 79 79 00 / 943 79 79 43
webgunea: ***www.iaretxabaleta.com***
e-posta: *ia@iaretxabaleta.com*

**EUSKARA** > KORRIKA

# Saturno planeta ikusteko aukera gaur, plazan

Ilatargi Astronomia Elkarteko kideek hiru teleskopio jarriko dituzte, baita pantaila bat ere

Ilargiko kraterrak eta Saturno planeta eraztun eta guzti ikusteko asmoa daukate



Izarrei begira Ilatargi taldeko kideak. GOIENKARIA

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Domeka goizean gurera ailegatuko den Korrikaren etorrera girotzeko Debagoieneko Ilatargi Astronomia Elkarteko kideak gonbidatu ditu gaur, gurera, Korrika Batzordeak. Gainera, Astronomiaren Urtea dabiltza ospatzen eta astronomia elkartea hainbat ekintza egiten dabil.

Bi teleskopio jarriko dituzte gaur ilunkaran Herriko Plazan, eta hirugarren teleskopio batetik irudiak proiektatuko dituzte pantaila baten. Zeruaren behaketa 20:45ean hasiko dute eta oraindik guztiz ilun ez egon arren, 20:50ean ISS nazioarteko espazioko ontzia (International Space Station) pasatzen ikusiko dugula begi bistaz jakinarazi dute Ilatargiko kideek.

Gainera, ezohiko irudiak ikusteko aukera eskainiko dute: "Behaketan Ilargiko kraterrak eta Saturno planeta, bere eraztunarekin, ikusiko ditugu eta, lekuaren iluntasunak posible egiten badu, baita beste objektu batzuk ere, Orioneko nebulosa, adibidez. Saturno ikustea bereziki kuriosoa izango da, momentu horretan eraztunak "de canto" ikusiko ditugulako. Irudi kuriosoa eta aproposa bere sateliteak normalean baino hobeto ikusi ahal izateko", jakinarazi dute Ilatargi elkarteko kideek.

**KORRIKA TXIKIA ARRATSALDEAN**

Izar erakustaldia baino lehen, arratsaldean hain zuzen, Korrika Txikia egingo dute ikastetxeetako umeek. Pausokan hasiko du ibilbidea lekukoak (15:30) eta Mitarte eta Durana kaleetatik aurrera Herriko Plazan bukatuko dute txikienek. Nagusiek beste buelta bat emango diote esandako ibilbideari. Bukatutakoan boloa izango dute (16:30), plazan bertan, eta ondoren txokolate beroa eskainiko diete. Ospakizun arratsaldeari bukaera emateko Algara ludotekako haurrek antzerkia egingo dute Kurtzebarri eskolako aretoan (18:30).

> POLITIKA

## Gazte Martxa aurkeztuko dute gaur ilunkaran jai giroan

Apirilaren 10etik 12ra Amaiur eta Garazi artean egingo duten Gazte Martxaren nondik norakoak jakinaraziko dizkiete herriko gazteei gaur, jai giroa lagun dutela. Trikitixa doinuekin txikiteoan egingo dute lehenengo (19:00) eta afari-merienda gero. Martxaren aurkezpen ekitaldia izango da ondoren eta 22:30ean kontzertuak Haize: The Crackers, Decepcion Rock eta Krisis taldeek joko dute.

> GAZTEAK

## Elantxobera joateko asmoa dute gaztelekuko kideek

Atxagazte gaztelekuko kideek hiru eguneko irteera egiteko asmoa daukate Pazko Astean. Elantxoben (Bizkaia) dagoen aterpetxera joango dira apirilaren 16, 17 eta 18an. Gainera, apirilaren 15ean zabalik egongo da gaztelekua.

Izena eman edo argibide gehiago jaso gura dituenak dei egin dezala 943 79 54 46 telefono zenbakira edo ager dadila gaztelekuan eguaztenetik domekara bitartean.



MIZKE


Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako opariak





Kale Zaharra 3. Oñati. Tel.: 943 78 28 14. mizke@euskalnet.net



Argazkian, Oñatiko eta Chateaubernardeko ordezkariak hitzarmena sinatu ondoren, duela 10 urte. JOSE FERNANDEZ

**ANAITZEAK** > OSPAKIZUNAK

# Oñati eta Chateaubernard-en anaitzearen X. urtemugan, askotariko ospakizunak

Uztailaren 5ean berretsiko dute duela hamar urte sinatutako hitzarmena Oñatiko eta Chauteaubernardeko udal arduradunek

Aloña Mendiko alebin mailako taldeak partidua jokatuko du Frantzian

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatik eta Chateaubernardek sinatutako anaitze hitzarmenak hamar urte bete ditu. Horren harira, askotariko ekitaldiak antolatu ditu Anaitze Batzordeak. Besteak beste, aste bukaerako elkartruke bisita egingo dute uztailean eta urrian, eta Aloña Mendiko alebin mailako futbol taldeak nazioarteko txapelketa batean parte hartuko du Chauteaubernarden. "Oraindik ez dugu ekitaldien zerrenda itxi, baina esanguratsuena zehaztu ditugu", esan digu Anaitze Batzordeko kide Jose Fernandezek.

**UZTAILAREN 3TIK 5ERA**

Hamargarren urteurrenaren ekitaldi potoloenak uztailaren 3tik 5era arteko aste bukaeran egingo dituzte Oñatin. Herriko kultur taldeen parte-hartzearekin ekitaldi potoloa egiteko asmoa dute; oraindik baina, ez dute uztailaren 4ko egitaraua erabat lotu. Gainera, Arrikrutzera bisita gidatua egingo dute Chateaubernardetik datozen lagunekin. Bestalde, uztailaren 5ean protokolozko ekitaldia egingo dute Oñati eta Chauteaubernardeko udal arduradunek, eta duela hamar urte sinatutako hitzarmena berretsiko dute. Frantziarrek gurera egingo duten bisitaren itzulera urriaren 10etik 12ra egingo dute oñatiarrek.

**MUSIKA ETA FUTBOLA**

Urtemugaren barruan beste bi ekitaldi egingo dituzte: alde batetik, maiatzaren 17an Oñati Abesbatzak kontzertua egingo du. Beste alde batetik, Aloñako alebinek nazioarteko futbol txapelketa jokatuko dute Chateaubernarden.

## Helburu askotariko anaitzeak egin ditu Oñatiko anaitze batzordeak

Oñati da Gipuzkoan senidetze gehien dituen herria. Hain zuzen ere, bost herrirekin dago anaituta, eta beste hirurekin adiskidetasun hitzarmenak ditu sinatuta. 1997. urtean egin zuten lehen senidetzea Mexikoko Zacatecas herriarekin. Zacatecas herriko fundatzailea oñatiarra zela-eta, bi herriak hartuemanetan jartzeko burutzioa izan zuten. Era berean, Guadalajararekin eta San Luis Potosirekin dago anaituta Oñati. Arlo solidarioari dagokionean Saharako Gleibat el Fula eta Argentinako Jose C. Paz herriekin daude anaituta. Aldiz, ardatz kulturalari dagokionean Frantziako Chateaubernard-ekin egin zuten hitzarmena duela hamar urte.

**HELBURUAK**

Anaitze Batzordeak egindako anaitzeen helburuak elkartrukeen bidez, solidaritatea erakustea, elkar ulertzea eta errespetua bultzatzea dira.



GOIENKARIA

# Bittor Olalde omendu zuen Musika Bandak

Udal Musika Bandak omenaldi hunkigarria egin zion Bittor Olalderi 60 urtetan musika bandako kide izan ondoren. Etxe-Aundi jatetxean bildu ziren musika bandako kide guztiak, Inaxio Ibarrondo zuzendaria barne. Bazkaldu ondoren opariak eman zizkioten Bittor Olalderi eta haren emazteari. Udal Musika Bandako kideek egindako lana eskertu zioten Olalderi eta gogoratu zuten hasierako urteetan klarinetea jo zuela, baina urte gehienetan saxofoi-jotzailea izan dela.

> OSPAKIZUNAK

## Antzerkiak, tailerrak eta Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen saioak ikastolaren eguna ospatzeko

Txantxiku Ikastolako ikasleek, irakasleek eta gurasoek ikastolaren eguna ospatuko dute gaur eta bihar. Gaur, 14:30etik 18:00etara jolas parkea jarriko dute jolaslekuan. Jaialdiak ere egingo dituzte Santa Anan: 14:30ean eskolako umeendako eta 18:00etan gurasoendako. Bihar goizean Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek askotariko tailerrak egingo dituzte. 12:00etan 6. mailakoek antzerkia egingo dute gurasoendako eta 17:00etan Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen emanaldia izango da Zubikoan.

> IKASTAROA

## Bi hileko txalaparta ikastaroa egingo du Trikizio taldeko Xabier Arakamak Musika Eskolan

Jose de Azpiazu Musika Eskolak antolatuta bi hilabeteko txalaparta ikastaroa egingo dute. Dagoeneko izenemate epea zabalik dute. Interesatuek Musika Eskolara dei dezakete (943 78 31 74) astelehenetik egunera, 17:00etatik 20:00etara, izena emateko edo informazioa eskatzeko. Txalaparta ikastaroko eskolak Trikizio taldeko abeslari Xabier Arakamak emango ditu. Ikastaroan parte hartzeko 14 urte beteta izatea ezinbestekoa da.

**POLITIKA** > ABERRI EGUNA

# Aberri egunean parte hartzeko dei egin du udalbatzak

## Gobernuko hiru ordezkarik eta EAko zinegotziak euskal nazioaren gaineko mozioa onartu zuten

**M.B.** > ESKORIATZA
Martxoaren 25eko osoko bilkuran, euskal nazioaren gaineko mozioa onartu zuten Gobernuko hiru ordezkarik eta EAko zinegotziak. Horretan, apirilaren 12an Irun eta Hendaia artean *Aldaketa garaia, burujabetza garaia* lelopean abertzaleek egingo duten Aberri Egunean parte hartzeko deia egin dute.

Mozioak gogorarazi du, besteak beste, Euskal Herriaren egoera ez dagoela "inolaz ere" normalizatua oraindik: "Estaturik gabeko nazioa gara, bere buruaren jabe ez den herria". Horregatik, apirilaren 12an Euskal Herriari dagozkion eskubideen defentsa aldarrikatuko dutela iragarri dute. Mozioaren arabera, "burujabetzaren aldeko estrategia nazionala bultzatzeko eta konpromisoa aldarrikatzeko garaiak dira".

Gauzak horrela, euskal herritarrei Euskal Herria eraikitzeko eta gatazka politikoa eta demokratikoa gainditzeko antolatzen diren dinamiketan inplika daitezen dei egin diete. Horretaz gain, Euskal Herriko eragile politikoei, sozialei eta sindikalei arduraz jabetzeko eta "alderdikariak" baztertu eta herri gisa jokatzeko dei egin diete. Azken horren harira, "dagozkigun eskubideak urratzen dituzten bi estatuei Euskal Herria eskubide politikoak dituen subjektu modura aitortu eta errespeta" ditzatela eskatzen du idatziak.

*Aldaketa garaia, burujabetza garaia* mozioak EAJko bi zinegotzien eta Elizateetako ordezkariaren abstentzioa lortu zuen eta EB-Berdeak eta PSEko zinegotzien kontrako botoa.

**"JAI ALDERDIKOIA"**
Azken alderdi horretako zinegotzi Iñaki Pierrugesek mozioa kritikatu du. Haren ustez, "Aberri Eguna jai alderdikoia izateaz gain, konfesionala ere bada, eta, beraz, laikoak garenok eta sentimenduen eta ideia erlijiosoen aniztasuna babesten dugunok ez dugu horrekin bat egin. Gainera, izaera independentista ere badu".

Pierrugesen arabera, Aberri Eguna, "euskal nazionalismoaren eguna da, ez euskal herritar guztiona".


Iñaki Pierruges (bigarrena ezkerretik) ez dago ados mozioarekin. M.B.





Emilio Rodriguez (ezkerrean) eta Gilberto Blanco kubatarrak Eskoriatzan daude egunotan. MIRIAN BITERI

**Gilberto Blanco eta Emilio Rodriguez** > Kubatarrak

# "1959ko urtarrilaren 1etik gaur arte Kubako herri guztiaren batasuna mantendu dugu"

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA
**Gilberto Blanco eta Emilio Rodriguez kubatarrak Eskoriatzan daude egunotan, Truke Programari esker. Martitzenean, Kubako Iraultzaren gaineko berbaldia eskaini zuten kultura etxean. Hitzaldi horrek izandako harrerarekin pozik zeuden biak; horren harira, parte hartu zutenen "zintzotasuna" azpimarratu zuten. Datozen lerrootan Kubaz berba egin dute.**

***La revolución cubana 50 años después* berbaldia eskaini duzue asteon. Zer aldatu da Kuban 50 urte hauetan?**
Gilberto Blanco: Iraultza bat gertatu da; hainbat mailatan sailka daitekeena, hala nola ekonomikoa, politikoa eta soziala. Horien barruan, hezkuntza, osasun eta kirol eskubidea zein bizitza duina izateko eskubidea azpimarra daitezke.

**Eta zer da lehenengo egunetik mantentzen dena?**
Emilio Rodriguez: 1959ko urtarrilaren 1etik gaur arte herri guztiaren batasuna mantendu dugu, buru, alderdi eta bereziki herritarren artean. Kubako Iraultzaren bereizgarria izan da herriak erakutsitako borondatea, askatasuna nola edo hala lortzeko. Batzuek idealizatu egin gaituzte, eta gizarte perfektua bagina bezala aurkeztu. Baina ez gara perfektuak. Hutsuneak eta oztopoak ditugu, baina, aldi berean, erakustekoak diren beste gauza asko ditugu. Hala ere, ez gara beste batzuek aurkezten gaituzten bezain gaiztoak.

**Batasunaz berba egin duzue. Gazteek iraultzaren irizpideekin bat egiten dute?**
E.R.: Bai. 1959ko urtarrilaren 1eko ondorengoak dira kubatarren %70. Kopuru horrek blokeoa bizi izan du. Logikoa denez, gazteek hainbat aldaketa nahi dituzte, eta, ahal den neurrian, horiek gauzatzen saiatzen dira. Horren harira, ez dugu ahaztu behar blokeoa hor dagoela. Baina oinarriei dagokienez, gizartearen gehiengoak duen pentsaera izaten segitzen du gazteriak. Orokorrean, elkartuta eta iraultzaren eta alderdiaren jarraitzailea da.

**Zer iritzi duzue irlatik kanpo bizi eta sistemarekin oso kritikoak diren kubatarrez?**
E.R.: Kubatarrak baldin badira, berdin du non dauden eta nola pentsatzen duten; anai-arrebak eta odol berekoak gara. Batu egin behar dugu, diferentziak gainditua. Horren harira, iruditzen zait gizartea oso aspergarria izango litzatekeela guztiok berdin pentsatuko bagenu.

G.B.: Ados nago Emiliok esan duenarekin. Kubatarrak gara. Irizpide ezberdinak badituzte ere, batasuna bultzatu eta gure nortasuna defendatu behar dugu.

**Zer da Fidel Castro Kubarendako?**
G.B.: Gure aita da; lider ona da. Ni iraultzarekin jaio nintzen eta haren ereduarekin hazi naiz. Herriarekin momentu zailenak eta onenak partekatu ditu.

E.R.: Beste edozein pertsona bezalakoa da, komuna eta normala. Baina ezinbestekoa den liderra ere bada. Ez dugu idealizatzen; herriak zituen desabantailak, desberdintasunak eta justiziarik eza ikusi eta herria batzeko gaitasuna izan zuena da. Guretako XX. mendeko pertsona nagusienetarikoa da. Iraultzan eta Amerikan garrantzi handia izan duen pertsona da; baita Afrikan eta Europan ere. Beti egon beharko luke gure ondoan.

**Baina hori ezinezkoa da. Zer gertatuko da Fidel hiltzen denean?**
E.R.: Ez da ezer gertatuko. Bere irakaskuntza eta oinarriak utziko ditu betiko.

**Azkenik, zer diozue Raul Castroren gainean?**
G.B.: Prozesu iraultzaileari jarraipena emateaz arduratzen ari da. Prozesu horretan lan egiteko eta ideia berriak proposatzeko gaitasuna du.

E.R.: Argi utzi behar da Raul, Fidel bezala, iraultzaren erdigunea dela. Baina kolektiboki zuzentzen dute Kuba. Neurri bakoitzak herriaren oniritzia du.

**"Bereizgarria izan da herriak erakutsitako borondatea, askatasuna nola edo hala lortzeko"**

**"Gazteriak gizarte gehienak duen pentsaera izaten jarraitzen du"**

**"Fidel hiltzen denean, bere irakaskuntza eta oinarriak utziko ditu betiko"**

**PINTURA** > III. MARGO LEHIAKETA

# Lehiaketako lanak ikusgai Ibarraundin

Apirilaren 17ra arte ikusi ahalko dira Ibarraundi museoan lehiaketara aurkeztutako 41 margoak

Domekako lehiaketa Jose Migel Arranzek, Ane Urozek eta Ariane Belokik irabazi zuten, mailaka

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Domekan aire zabaleko III. Margo Lehiaketa egin zen herrian. Eguraldiak askorik lagundu ez bazuen ere, hotza eta euria izan zen-eta nagusi, bertako nahiz kanpoko artistak lehiaketan oihalak hartu eta herriko txokoren bat margotzera animatu ziren. Nagusien atalean 25 lagunek parte hartu zuten; 16 urtetik beherakoen mailan, berriz, hamaseik. Umeek ere ahal izan zutena egin zuten.

Goiz osoa izan zuten parte hartzaileek lanak egiteko. Bazkaldu ostean, epaimahaia bildu egin zen, aurkeztutako margoak aztertzeko. Margogintzan eta arte ederretan adituak diren honako hauek osatu zuten epaimahaia: J. M. Agirre eta Lourdes Umerez eskoriatzarrek, Juan Jose Altuna bergararrak, Richar Perez bilbotarrak eta Koldo Gojenola gasteiztarrak.

Saritutako margoak aukeratzea ez zen lan erraza izan. Horren harira, parte hartzaileen kopuruak aurten behera egin badu ere, lanen kalitatea "nabarmen hobetu" dela jakinarazi zuten.

**SARIDUNAK**

Hiru sari mota zeuden: nagusien mailan, Jose Migel Arranzek lortu zuen lehenengo postua. Sari moduan, 500 euro irabazi zituen; bigarren postua Carlos Espigarendako eta hirugarrena Raimundo Argosendako izan ziren. 16 urtetik beherakoetan, berriz, Ane Uroz irten zen garaile, Irene Martin eta Olaia Benito atzean utzi zituela. Urozek 100 euro lortu zituen; Martinek, 50; eta Benitok, azkenik, 30 euro.

Eskoriatzarren lana ere kontuan eduki nahi izan zuten margo lehiaketako antolatzaileek. Horretarako, herriko lan onenaren saria zegoen. Aurtengo edizioan Ariane Belokik irabazi du; sari moduan, 150 euro jaso zituen. Sari banaketa domeka arratsaldean egin zuten Ibarraundin.



Margolanak apirilaren 17ra arte daude ikusgai Ibarraundin. M.B.

## Saridunak

**NAGUSIAK**
> 1. saria. Jose Migel Arranz.
> 2. saria Carlos Espiga.
> 3. saria Raimundo Argos.

**GAZTEAK**
> 1. saria Ane Uroz.
> 2. saria Irene Martin.
> 3. saria Olaia Benito.

**HERRIKO LAN ONENA**
> Ariane Beloki.

**ERAKUSKETA**

Ohikoa den moduan, lehiaketara aurkeztutako margo guztiak Ibarraundi museoan daude dagoeneko ikusgai. Astelehenean bertan jarri zituzten lanak. Interesa dutenek apirilaren 17ra arte izango dute lanak bisitatzeko aukera honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera bitartean, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Ondoren, apirilaren 20tik 30era margolanak jaso ahalko dituzte artistek.

# Udaberriko kontzertuak goraino bete zuen Ibarraundi

Beheko Errota musika eskolako ikasleek udaberriko kontzertua eskaini zuten eguazten arratsaldean Ibarraundin. Betiko moduan, goraino bete zen museoko areto nagusia musika eskolako 35 neska-mutikoen emanaldia ikusteko. Kontzertuak bi zati izan zituen: lehenengoan, musikari bakoitzak ikasturtean zehar ikasitakoa erakutsi zuen. Akordeoia, pianoa, biolina, flauta eta gitarra izan zituzten ondoan. Henar Valorrek eman zion hasiera, Beethovenen 9º sinfonia akordeoiarekin jotzen. Bigarren zatian, ahotsa izan zen nagusi; hasieran bakarkakoa eta gero, taldekakoa. Irudian, koroaren emanaldia azaltzen da, *Salbadorren heriotza* abesten.


MIRIAN BITERI

## oharrak

UMEAK
**> Diputazioko udalekuetan izena emateko azken eguna**

Gipuzkoako Foru Aldundiak 7 eta 13 urte bitarteko umeendako udalekuak antolatu ditu aurten ere. Zozketan parte hartzeko gaur, egubakoitza, arte eman daiteke izena kultura etxean dagoen Gazteria Zerbitzuan edo 943 71 46 88 telefono zenbakian. Internet bidez ere egin daiteke izenematea, *www.gipuzkoagazteria.net/udalekuak* atarian.

KIROLAK
**> Saskibaloi partidu bi jokatuko dira bihar Intxaurtxuetan**

Kirol ekimenak ez dira faltako aste bukaeran. Bihar, zapatua, gazte eskoriatzarrek Easo Loyola Aibak taldekoak hartuko dituzte etxean, 16:00etan. Ez da egun horretako partidu bakarra izango: 18:00etan, senior mailako norgehiagoka hasiko da, Eskoriatza eta Cafes Aitona artean.

KIROLAK
**> Domekan areto-futbola ikusi ahalko dute kiroldegian**

Domekan, hilak 5, aretofutboleko partidu bi jokatuko dira. Goizean, 11:00etan, gazteen mailan, Eskoriatza eta Asador Azitain lehiatuko dira. Arratsaldean, 16:00etan, lehenengo erregionalekoa egingo dute: etxekoek Atco. Santa Maria taldea hartuko dute.

ZERGAK
**> Trakzio mekanikoko ibilgailuen tasa ordaindu behar da**

Aurtengo urteari dagokion ibilgailuen zerga ordaintzeko epea iritsi da Eskoriatzan. Zerga-ordainketa helbideratuta daukaten herritarrei apirilaren 8an egingo zaie kobrantza; ordainketa helbideratu gabe dutenek, berriz, apirilaren 8ra arteko epea izango dute zerga horren borondatezko ordainketa egiteko.

MASAJE
**> Masaje bateratuaren izenematea, apirilaren 8ra arte**

Masaje bateratuaren gaineko ikastaroa gertatu dute apirilaren 23tik ekainaren 18ra. Izena eman ahalko da datorren eguaztenera arte, apirilak 8.

ONA TXARTELA
**> ONA txartela apirilean eskuratzeko egunak eta ordutegia**

Hilero bezala, apirilean zehar ere aukera egongo da erabilera askotariko osasun txartel berria eskuratzeko Udal Liburutegian, honako egun eta ordutegian: apirilaren 16an, eguena, 10:30etik 13:00etara; apirilaren 22an eta 23an, 10:30etik 13:00etara; eta apirilaren 29an eta 30ean, 10:00etatik 13:00etara egongo da txartela egiteko aukera.

**UDALA** > OHIKO UDALBATZARRA

# Udalak onartu egin du 2.735.000 euroko mailegua eskatzea

## Eztalako futbol zelaian belar artifiziala ipintzeko lanen esleipena hastea eta eskolako patioa estaltzeko proiektua ere aho batez onartu zituzten

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ANTZUOLA

Eguaztenean ohiko udalbatzarra izan zen eta gai mordoa izan zuten mahai gainean. Lehenengo, Antzuolako Udal Etxegintzako teknikari batek egindako lanen, inbertsioen eta gastuen berri eman zuen. Hainbat zinegotzik eskatu zuen komenigarria litzatekeela aurrekontuak zein ziren ere zehaztea, alderaketa egiteko; hortaz, beste aurkezpen bat egitekotan geratu ziren.

Hurrengo gaia izan zen aurreko agintaldian hasi eta orain arte Antzuolako Udal Etxegintzak egin dituen obrak: Torresoroa, Kalebarrengo urbanizazioa... finantzatzeko, mailegua eskatzea. Aho batez adostu zuten batzarrean Kutxari, 15 urtean ordaintzeko, 2.735.000 euroko mailegua eskatzea.

**ESKOLAKO PATIOKO PROIEKTUA**

Amaitutako obrez berba egin ostean, egiteko daudenez jardun zuten. Eztalan belar artifiziala ipintzeko lanen esleipena hastea adostu zuten. Orain, hiru enpresari aurrekontuak eskatuko dizkiete lanok egiteko baldintzetara ondoen egokitzen dena aukeratzeko.

Eskolako patioa estaltzeko proiektua ere aho batez onartu zuten. Orain, kirol elkarte, guraso elkarte eta hirigintza batzordekoek proiektua lantzen dihardute euren ekarpenak egiteko. Patioa estaltzeaz eta egokitzeaz gain, harmailak ipiniko dituzte.

Bestalde, Debagoieneko Mankomunitateak martxan ipiniko duen enplegu tailerrari onespena eman zioten batzarrean. Sukaldaritza, hiri altzari eta eraikuntzen mantenua eta eguzki energia bidezko sistemen instalakuntza eta mantenua ikasteko aukera emango die 32 ikasleri eta bakarra izango da antzuolarra. Udalak ikasle horren 2200 euroko gastua ordainduko du.

Zabor tasen igoera ere denek onartu zuten. Uztailean, Gipuzkoako Hondakin Partzuergoa martxan ipiniko da, eta, %24ko igoera aurreikusi bazuten ere, txikiagoa izango da: %20,1ekoa. Zinegotziek zabor gutxiago sortzeko beharraz eta zaborra kudeatzeko beste modu bat aurkitzeaz jardun zuten, baita herritarrei igoeraren zergatia azaltzeaz ere.

**EZTABAIDAK, BI MOZIOREN HARIRA**

Batzarraren amaieran bi mozio izan zituzten esku artean: lehena, Eudelek eta Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailaren arteko lankidetza hitzarmenaren gainekoa; AHTri dagokiona. Mozioak proiektuaren gaineko informazioa ematea eskatzen du, besteak beste. Luze jo zuen eztabaidak, EAJko eta PSEko zinegotziek ezezkoa bozkatu zuten eta gainontzekoak baiezkoa.

Aberri Egunaren gaineko mozioan ere ez zen adostasunik lortu. Herritarrei Nazio Eztabaidaguneak deitutako Aberri Egunean parte hartzeko dei egiten zien mozioak. EAJk eta PSEk aurka bozkatu zuten, Zutik-Ezker Batua-Aralarrekoak abstenitu egin ziren eta baiezko botoa eman zuten gainontzeko zinegotziek.



Jolaslekua ipintzen jardun dute asteon Torresoroan. IRATI AGIRREAZALDEGI

**AZPIEGITURAK** > JOLASTOKIAK

# Torresoroan eta Beheko auzoan ziburu berriak

**I. A.** > ANTZUOLA

Bi jolasleku berri izango dituzte umeek laster. Izan ere, gaur egun eskola aurrean, Antigua auzoan, Errekalden, Kalegoin eta Ibarren daudenei beste bi gehituko dizkiete: Torresoroan eta Beheko auzoan.

Torresoroakoa asteon amaitzekoak ziren eta horren ostean ipiniko dute Beheko auzoan, lehen jolastokia egon zen leku berean. Azken hori ume txikiendako izango da eta, besteak beste, trena, ispilua, letrak... izango ditu. Torresoroakoa ume nagusiagoendako izango da.

**BERRI GEHIAGORIK EZ**

Orain dela gutxi konpondu zituzten egoera txarrean zeuden bi jolasleku, eta, beste bi hauek berriak izanik, Udaletik esan digute zazpi gune nahikoak direla. Beharbada, Kalegoikoa dago egoera txarrenean, baina ez da kezkatzekoa, eta oraingoz ez dute konponduko.

**KIROLA** > PILOTA

# Zubi irabazle Frontoi Txikiko Txapelketan

## Txapelketan jokatu dituen partidu guztiak irabazi egin ditu Zubik; finalean 22-20 nagusitu zen

**I. A.** > ANTZUOLA

Urrian ekin zioten 18 pilotarik Frontoi Txikiko Txapelketari, eta, frontoiko obra, eguraldi txar, hezetasun eta halako gorabeheren ostean, joan den egubakoitzean jokatu zituzten finala eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partidua. Final gogorra jokatu eta Zubi izan zen txapeldun, Irimori 22-20 irabazita. Txapelketan jokatu dituen partidu guztiak irabazi egin ditu Zubik. Beste partidua serioa izan zen eta hirugarren postua Untzarrik eskuratu zuen, Iñurrigarrori 22-13 irabazita. Ondoren, afaria egin zuten pilotariek Olalde elkartean, giro politean.

**LASTER, BINAKAKO TXAPELKETA**

Txapelketak harrera ona izan du herriko pilotarien artean eta hurrengo urteetan ere jokatzeko gogoarekin geratu dira. Bestalde, pilota gogoarekin geratu denarendako, laster hastekoa da herriko binakako pilota txapelketa.



Txapelketako hainbat partaide finalaren ostean. GOIENKARIA

**oharrak**

IRTEERA

**> Arantzazurako ibilaldia**

Apirilaren 4an, domekan, izango da Oñati eta Arantzazu arteko oinezko ibilaldia. Joan nahi dutenendako, Antzuolatik autobusa irtengo da 08:15ean, geltokitik. Bueltarako bidaia 14:00etan izango da. Txartelak salgai daude Nerearen dendan eta Itzar liburu dendan 12 eurotan. Juanita Zabalorengana jota ere eskura daitezke.

LEHIAKETA

**> Txokoak, argazkitan**

Hilaren 30a da azken eguna *Antzuolako txokoak* argazki lehiaketarako lanak udaletxean aurkezteko. Argibide gehiago ere han jaso daitezke.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

ANTZUOLA
Apainketak eta isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
676 997 400
Biltegia: 943 78 70 40

Tomas Gezalaga
Zoruen kutxilatu eta bernizatzea
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GAILUR
taberna eta gozotegia
Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

Tomas Gezalaga
Apainketarako eta industriarako pinturak
•
Paper margotuak
•
Moketak eta tapizatuak
Kalegoi 21
Tel.: eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

**HEZKUNTZA** > EKITALDIAK

# Korrika Txikia gaur dator gurera

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA
Ekintzaz beteriko astea izan dute honakoa Herri Eskolako umeek. Aste Kulturalean murgilduta ibili dira eta gaur, barikua, Korrika Txikia egingo dute.

AEK-k bi urtean behin antolatzen duen euskararen aldeko lasterketa ez da aurten Elgetatik pasatuko, baina Eskolaren ekimenez gaztetxoek Korrika Txikia egingo dute. 15:00etan abiatuko dira eskolako umeak Elgetako kaleetan barrena lasterka. Maala guraso elkarteko kideek ere bat egin dute ekimenarekin eta eurak ere Korrika Txikian parte hartzera animatu dira. Korrika egiteaz gain lasterketaren buruan eramango duten pankarta egiteko konpromisoa ere hartu dute. Gonbitea, gainera, guraso eta heldu guztiei luzatu dute Eskolatik. Korrika Txikia Herriko plazan amaituko da bertan egingo den ekitaldi txiki batekin.


Haur Hezkuntzako umeek 15 zuhaitz landatu zituzten atzo Bolatoki inguruan. L.Z.

**ZUHAITZ EGUNA, ATZO**
Atzo, berriz, Zuhaitz Eguna egin zuten Haur Hezkuntzako gaztetxoek. Udalaren iniziatibaz 15 zuhaitz landatu zituzten Bolatoki inguruko belardian; 10 lizar eta 5 urki, hain zuzen ere.

Udal langileek prest lagatako zuloetan landatu zituzten zuhaitzok, etorkizunean paraje horretan kerizpea emango duten zuhaitzak, hain justu ere. Landare gazteak direnez hesiak ipini dizkiete lehenengo urteotan babesteko.

**LANA** > UDAL TEKNIKARI LANPOSTUA

# Teknikari bat izendatzeko deialdia egin du Udalak

## Kultura, hezkuntza, turismo eta kirol ardurak izango ditu teknikari berriak

**L.Z.** > ELGETA
Elgetako Udalak teknikaria behar du, eta oposizio sistemaren bidez aukeratuko du. Hautaketa prozesuko probak hilaren 22an egingo dira, 17:30ean, Elgetako udaletxean. Kontuan izanik deialdiaren presazko izaera, saltatu egin dute eskabideak aurkezteko eta onartzeko izapidea. Interesatuek, beraz, hilaren 22ko azterketara aurkeztu beharko dute zuzenean.

Urtebeterako jardun erdiko lanpostua da, bi hilabeteko probaldiarekin. Kultura, hezkuntza, turismo eta kirol ardurak izango ditu teknikari berriak eta lau batzorde horietako jarduerak koordinatzea eta kudeatzea izango da haren zeregina. Udalak ematen dituen dirulaguntzak kudeatzea, eskola kirola antolatzea eta jaietako egitarauaren kontratazioa egitea ere haren zereginen artean egongo dira.

**BETE BEHARREKO EZAUGARRIAK**
Interesatuek 16 urtetik gorakoak beharko dute, EGA agiridunak eta diplomadunak edo titulu hori lortzeko eskubideak ordainduak.

Hautaketa probak hiru atal izango ditu: informatika proba, ariketa praktikoa eta 15 minutuko aurrez aurreko elkarrizketa. Microsoft Office, Excel, Internet eta agenda elektronikoa modu egokian erabiltzea eskatuko dute.

**TOPAKETA** > ARANTZETA AUZORA BISITA

# Arantzetarrek topaketa egingo dute apirilaren 18an

## Frantzia, Venezuela, Mexiko, AEB, Argentina eta Kolonbiatik etorriko dira, besteak beste

**L.Z.** > ELGETA
Arantzetarrek hitzordu oso berezia dute hilaren 18an. Elgetako udaletxean jaso duten eskaera baten arabera, arantzetarrek nazioarteko topaketa egiteko asmoa dute Bilbon apirilaren 17an.

Egitarauan antolatutako ekintzen artean nabarmentzen da hilaren 18an, zapatua, Elgetako Arantzeta auzoa ezagutzera parte hartzaileek egin nahi duten bisita.

**HARRERA UDALETXEAN**
Topaketaren bultzatzaileetakoa den Jabier Arantzetak azaldu duenez, ez dute oraindik parte hartzaile kopuru zehatzik ezagutzen, "baina Espainia eta Euskal Herritik etortzeaz gain, Frantziatik, Venezuelatik, Mexikotik, AEBetatik, Argentinatik eta Kolonbiatik ere etorriko dira zenbait familia".

Arantzeta auzoa bisitatu aurretik harrera egingo zaie Elgetako udaletxean.

# Iberdrolako kableak lurperatzen

Salbador kaleko urbanizazio lanak guztiz amaitzeko gauza batzuk gelditzen dira oraindik ere. Egunotan, Iberdrolako langileak kale horretako argindar kable sistema guztia lurperatzen ari dira.

Kalearen goiko aldetik hasi ziren martitzenean eta beherantz egin dute lan. "Barikura arteko lana daukagu. Lau bat eguneko kontua, guztia ondo badoa", adierazi dute lanean dihardute Iberdrolako langileek.


L.Z.

**frontenis txapelketa**

# Aste bukaeran hiru norgehiagoka jokatuko dira

Aste bukaeran atseden hartuko dute Elgetako I. frontenis txapelketan lehian dihardute bikote gehienek.

Emakumezkoen txapelketako hiru norgehiagoka jokatuko dira, guztiak ere zapatu goizean. Lau jardunaldi jokatu dituzte txapelketa erregularraren barruan eta, hortaz, bi gelditzen zaizkie.

Gauzak estu daude finalerdietarako txartelak eskuratzeko. Lehenengo lau bikote sailkatuek eskuratuko dituzte txartel horiek.

**PARTIDUAK**

| Emakumezkoen txapelketa |
|---|
| **Zapatuan, 11:00etan hasita** |
| 1. Nagore Morales-Janire Lazkano/Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa |
| 2. Amaia Iribar-Alizia Gartzia/Nagore Ojanguren-Idoia Serna |
| 3. Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa/Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera |

**SAILKAPENA**

| Emakumezkoen txapelketa | J | I | G | T.A. | T.K |
|---|---|---|---|---|---|
| 1. Nagore Ojanguren-Idoia Serna | 4 | 3 | 1 | 97 | 58 |
| 2. Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera | 4 | 3 | 1 | 95 | 77 |
| 3. Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 4 | 3 | 1 | 95 | 81 |
| 4. Nagore Morales-Janire Lazkano | 4 | 2 | 2 | 80 | 75 |
| 5. Miren Argi Zeziaga-Idoia Lasa | 4 | 2 | 2 | 69 | 85 |
| 6. Mari Carmen Salas-Izaskun Ojanguren | 4 | 1 | 3 | 61 | 95 |
| 7. Amaia Iribar-Alizia Gartzia | 4 | 0 | 4 | 63 | 10 |

**oharrak**

IBILGAILUEN ZERGA
**> Zabalik dago maiatzaren 30era arte ordaintzeko epea**
Elgetako Udalak zabalik dauka 2009ko ibilgailuen zerga borondatez ordaintzeko epea. Udaletik ordainketa helbideratzeko eskaera ere egin diete oraindik sistema hori erabiltzen ez duten herritarrei.

GAZTETXEA
**> Herri bazkaria eta kontzertuak bihar, zapatua**
Gaztetxeak antolatuta herri bazkaria eta hiru talderen kontzertua egongo dira bihar, zapatua, herrian. Plan B, Obligaciones eta Des-kontrol taldeak arituko dira gaztetxean, 22:30ean hasita.

ERRETIRATUAK
**> Karta jokoan arituko dira gaur arratsaldean Ozkarbin**
Elgetako erretiratuak tutean, briskan eta musean arituko dira gaur, barikua, Ozkarbi elkartean. 16:00etan elkartuko dira karta jokoan arratsalde pasa egiteko. Parte hartu nahi izanez gero, bertara agertu besterik ez dute interesatuek.

ZINEKLUBA
**> Eguaztenean ez da zineklub emanaldirik egongo**
Aste Santuko jaiegunak direla-eta, asteon ez da pelikularik proiektatuko Espaloiko zineklubean. Hilaren 15ean, *El declive del imperio americano* emango dute.

**AZPIEGITURAK** > ABIADURA HANDIKO TRENA

# Asier Agirre alkatea epaitu egingo dute galdeketagatik

Bi delitu leporatzen dizkio epaileak: aginte judiziala desobeditzea eta prebarikazioa

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egitearren Estatuko Fiskaltzak alkatearen kontra ipinitako salaketak aurrera jarraitzen du eta Asier Agirre epaitua izango da.

2008ko apirilean Fiskaltzak ipinitako salaketaren arabera, 2007ko irailean legez kanpoko galdeketa egin zuen alkateak udal baliabideak erabilita. Prebarikazioa, aginte judizialari desobedientzia eta ondasun publikoak bidegabe erabiltzea egotzi zizkion. Hori horrela, Asier Agirrek Gasteizko Justizia Jauregian deklaratu behar izan zuen 2008ko apirilaren 21ean. Bada, auziak aurrera jarraitzen du; horixe da Agirrek Gasteizko Epaitegitik jaso duen azken berria. Jakinarazpen horretan zehazten da, baina, epaileak ez duela uste ondasun publikoak bidegabe erabili zireník. Prebarikazioa eta aginte judizialari desobeditzea egozten dizkio eta bi delitu horiengatik izango da epaitua.

Asier Agirrek, berriz, gogor salatu du Fiskaltzaren salaketa eta epailearen erabakia: "Guztiok dakigu zein den honen guztiaren helburua: ni kartzelara eroatea. Badakigu hautetsi independentistok traba egiten dugula udaletxeetan, eta erditik kendu nahi naute", azaldu du alkateak. Gaineratu du arro dagoela AHTren gaineko galdeketa egin izanaz.

**UDALA** > OSOKO BILKURA

# Behin-behinekoz onartu dute 2009ko udal aurrekontua

Aurrekontua onartu eta hurrengo 15 egunetan alegaziorik ez badago, behin betiko onartuta geratuko da

**A.B.** > ARAMAIO

Azkeneko osoko bilkuran onartu zuen Aramaioko udalbatzak behin-behinekoz 2009ko udal aurrekontua. Udal Gobernua osatzen duten bost zinegotziek alde bozkatu zuten, EA abstenitu egin zen eta EAJko bi zinegotziek aurka bozkatu zuten; hirugarrena ez zen osoko bilkuran izan. Oposizioko alderdi biek salatu zuten ez zutela udal aurrekontuan parte hartzeko aukerarik izan eta Udal Gobernuak berak bakarrik landutako aurrekontua dela azaldu zuten. Salaketa horiei erantzunez, alkateak azaldu zuen aurrekontua batzorde guztietatik pasatu dela eta batzordeen balorazioak kontuan izan direla.

Ogasun eta Zerbitzu batzordeetara bideratu da diru gehien. Hirigintzara 309.448 euro bideratuko dira eta aurreikusten diren proiektuak honakoak dira, besteak beste: matadero etxearen birgaitzea, irisgarritasun plana eta Osteta kaleko aparkalekua.

## Udal aurrekontua batzordez batzorde

| | KOPURUA EUROTAN |
|---|---|
| Ogasun batzordea | 599.834,82 |
| Zerbitzu batzordea | 542.231,47 |
| Euskara eta Hezkuntza batzordea | 98.900,00 |
| Kultura batzordea | 233.113,20 |
| Mendi batzordea | 107.462,45 |
| Hirigintza batzordea | 309.448,85 |
| Ongizate batzordea | 18.200,00 |
| **GUZTIRA** | **1.909.190,79€** |

ITURRIA: ARAMAIOKO UDALA

# Arabarrak bigarren geratu ziren Beterriko finalean

Beterriko Bertsolari Txapelketako finalean lan bikaina egin zuen Arabako Otsoak taldeak (Oihane Perea, Iñaki Viñaspre eta Manex Agirre). Baina ezin izan zieten Gipuzkoako Hontzei (Jokin Labayen, Uxue Alberdi eta Ander Lizarralde) aurre hartu eta bigarren postuan geratu ziren. Argazkian, arabarrak, etxetik prestatuta eroandako saioan.



BETERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

> EUSKARA

## Korrika: Udalak erositako kilometroa egingo dute domekan

Aramaioko Udalak Korrikako kilometro bat erosi du. Korrikaren azken eguneko 2430. kilometroa da. Duranatik Gasteizera bidean dago, Eskalmendiko zubia baino lehen. Korrika 08:45ean pasatuko da Duranatik apirilaren 5ean, domeka.

Hori horrela, Txirritola Euskara Elkarteak eta Aramaioko Udalak deia egin diete aramaioarrei Udalak erositako kilometro hori egitera joateko eta Korrikan parte hartzeko. Domekan 08:00etan elkartuko dira udaletxeko arkupeetan. Asmoa da guztiak batera joatea Duranara.

Unzueta sagardotegia



sagardoa txotxetik • sagardotegiko menua • karta

eguneko menua • ospakizunak • enpresako bazkariak

Zabola z/g. Aramaio Tel.: 945 44 50 95

Eskolako sei umeek atzo egin zuten takarradan

Gatz museoan hasiko dute gaur Korrika Txikiaren ibilbidea

Bukatutakoan txokolate beroa izango dute ume eta gazteek

**EUSKARA** > KORRIKA

# Korrika Txikiak girotuko du gaur lekukoaren etorrera



Korrika Txikia ospatzen Gatzagan orain dela urte batzuk. GOIENKARIA

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Korrika badator eta domekan goizean (07:13) iritsiko da Gatzagara. Lekukoaren etorrera girotzen joateko Korrika Txikia egingo dute gaur ume eta gaztetxoek herrian (18:30). Egunotan egingo duten bigarren Korrika Txikia izango da, atzo arratsaldean eskolako sei umeak takarradan ibili ziren-eta herrian lekukoa eskuan hartuta. Ez bakarrik txikiendako, 6 eta 12 urte artekoendako ere bigarren Korrika Txikia izango da, Eskoriatzan egin zuten-eta atzo arratsaldean.

**TAKARRADA OSTEAN TXOKOLATEA**

Gaurko Korrika Txikia gatz museoan hasiko dute (18:30). Handik herrira sartuko dira neska-mutikoak eta Soran etxea hotelaren alboko aldapatik gora harresiraino joango dira. Harresiaren kanpotik buelta eman eta Markole plazara egingo dute gero, eta 12 tutuko iturriaren atzetik pasatu eta Labidea denda alboko tunela zeharkatuta plazan bukatuko dute ibilbidea. Ludotekan ibili dira neska-mutikoak petoak egiten egunotan eta gertu izango dituzte gaur janzteko. Lekukoa zeinek eroan ez dute erabaki oraindik; izan ere, guztiek izango dute, metro batzuetan bada ere, eskuartean eroateko aukera. Antolatzaileek uste dute ordu erdi inguruan bukatuko dutela ibilbidea eta ondoren txokolate beroa eskainiko diete takarradan ibilitako guztiei San Migel plazan.

**AFARIA, UMORE ONEAN**

Korrika Txikia ez da izango gaurko ekitaldi bakarra, bertso afaria antolatu du-eta Korrika batzordeak. Guztira –ume eta heldu– 60 bat lagun elkartuko direla afaltzeko jakinarazi dute antolatzaileek, eta afalorduan Mañukorta eta Jokin Labayen bertsolariak izango dituzte lagun. Zalantza barik, umore onik ez dute faltako mahaiaren bueltan.

Korrikaren lekukoa, ostera, domeka goizean iritsiko da (07:13). Aurten aldapan gora egitea tokatzen zaie gatzagarrei eta sasoi onean egon beharko dute lekukoari jarraitu gura diotenek. Pasatutakoan gosaltzera joango dira, indarrak berreskuratzeko.

**INTERNET**

## Begiralea egongo da gaur KZgunean

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Apirilean bi egunetan etorriko da herrira KZguneko begiralea, Haizea Odria. Hain zuzen, gaur izango dute gatzagarrek Pilar kaleko txokoan Interneten gaineko zalantzak argitu eta argibideak ematen (16:00-20:00). Eta hurrengo hitzordua 15 egun barru dauka, hilaren 17an. Pazko asteko egubakoitzean, goiz osoan egongo da KZgunean (09:00-13:00).

Gatzagan ez du ikastarorik egiten Odria begiraleak, baina herritarrei Interneten gaineko argibideak eman bai. Hala ere, ikastaroak egin gura dituztenek edo IT txartela eskuratzeko azterketak inguruko herrietako KZguneetara jo dezakete. Bai Eskoriatzan, bai Aretxabaletan Haizea Odria bera aurkituko dute.

**ERLIJIOA** > ASTE SANTUA

## Elizkizunak Aste Santuko egunetan

Ostegun eta Ostiral Santuko elizkizunak 18:00etan izango dira, parrokian; domekako meza, ohiko orduan

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Aste Santua ospatuko dute datorren astean kristauek –Jesusen heriotza eta piztuera– eta Gatzagako parrokian ere hainbat elizkizun izango dituzte egun horietan. Aste Santuko ospakizunak, baina, etzi Erramu-domekako meza nagusiarekin hasiko dituzte. Hala, Jesus Jerusalem hirian sartu zen momentua gogoratu eta erramuak bedeinkatuko dituzte (12:30).

**SAN MILIXAN PARROKIAN**

Hilaren 9an, Ostegun Santua, ostera, Jesusen azken afaria izango dute gogoan elizkizunean elkartzen direnek, eta hurrengo egunean, Ostiral Santua, Jesusen heriotza gogoratuko dute. Bi egun horietako elizkizunak 18:00etan izango dira.

Zapatuan ez da elizkizunik izango eta domekako meza nagusia, Jesusen piztuera ospatuko dutena, ohiko orduan izango da (12:30).

Elizkizun horiek domeka guztietan Gatzagara etortzen den Martin Mendizabal Arantzazuko fraideak esango ditu eta San Milixan parrokian izango dira –negu partean legez–. Maiatzaren 1etik aurrera, ostera, Dorletako santutegian esango ditu mezak, domeketan, Mendizabal fraideak.

**ERREPIDEA** > KONPONKETA LANAK

## Arlabango errepidea konpontzen hasiko dira

Aste Santu ostean hasiko dituztela lanok iragarri dute Aldundiko ordezkariek

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Bergarako saihesbidearen lanak bukatutakoan Arlabango errepidea konpontzen hasiko direla iragarri dute asteon Aldundiko ordezkariek. Aste Santu ostean izango da hori.

**ZULOAK BEROTAN ESTALI**

GI-627 errepideko 19. kilometro puntutik 27. kilometro puntura dagoen tartea, hau da, Eskoriatza eta Leintz Gatzaga arteko Arlabango errepideko zuloak konponduko dituzte hil honetan. Berotan estaliko dituzte zulo horiek, asfaltozko zoladura hondatuta duten guneak konpontzeko asmoarekin. Betun nahasketa beroa zabalduko dute langileek zuloen gainean, 1.300 tona inguru. Herrian bizi diren gatzagarrek oso gutxi erabiltzen dute Arlabango errepidea, baina Olaun aldean bizi diren baserritarrek igarri egingo dute hobekuntza.

**GI-3681 KONPONDU BARIK**

Bestalde, astelehenean Eskoriatza eta Luku (Araba) arteko autobide zatia zabalduko dute. Lehen hiru hilabeteetan, gainera, debalde izango da.

Gatzagar gehienek, baina, GI-3681 errepidea erabiltzen dute, hain zuzen konpontzeko geratuko den bakarra eta orain arte, behintzat, auto zirkulazio handiena duena. Gainera, Eskoriatza eta Marulanda auzoa bitartean zulo asko eta handiak daude eta gidariak sarri kexatu izan dira.

BORROKA LIBREA > EUROPAKO TXAPELKETA

# Maider Undak Europako txapelketa hasiko du gaur



BAT Basque Team taldeko kirolari Maider Unda, astelehenean, Gasteizen kazetariekin izandako solasaldian. MIREN ARREGI

Maider Unda Lituanian da egunotan, Vilnius hirian egiten dabiltzan Europako Txapelketan

Aramaiokoa Pekinen aurrean izan zituen borrokalarien kontra lehiatuko da berriro

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Lerro hauek irakurri orduko Maider Unda (Aramaio, 1977) Lituanian izango da, Europako Txapelketan buru-belarri. Hala, kanporaketa saioetan ezusterik izan ez badu, Aramaiokoak gaur, egubakoitza, izango ditu lehenengo lehiak. Lituaniara bidaia egin aurretik, BAT Basque Team taldeko ordezkaria kazetariokin solasaldian izan zen astelehenean, eta, hain zuzen, Europako Txapelketari begira dituen asmoen berri eman zuen.

**DOMINA BAT ESKURATZEA**

Vilniusen egiten dabiltzan txapelketara Aramaiokoa gorputzaldi onean joan da, hilabete dela Espainiako Txapelketa irabazita, eta aurrean izango dituen kontrario indartsuak mendean hartzeko asmoarekin. Hala ere, Aramaiokoak onartu zuen Pekingo hitzordua amaitu ostean kosta egin zaiola erritmoa hartzea.

Hain justu, Pekinen zilarrezko eta brontzezko dominak eskuratu zituzten Stanka Zlateva bulgariarra eta Agnieszka Wieszczek poloniarra izango dira oletarraren kontrario nagusiak. Baina haien aurka egiteko lan handia egin du Undak Pekindik iritsi zenetik, eta dominaren batekin itzultzeko asmoz joan da Lituaniara:"Atsedenaldia hartu ostean egia da gogorra egiten dela entrenamendu saioekin hastea. Baina gogoz entrenatu naiz, gogoz eta ondo, zerbait lortzeko helburuarekin; eta zerbait hori dominaren bat eskuratzea da".

Aurreko borrokalariak oletarraren *amesgaizto* badira ere, badira maila eta aukera handiak dituzten beste borrokalari batzuk ere, hala nola Marina Gastl austriarra, Azerbaijango Dina Ivanova eta Natalia Shynkarova bielorrusiarra, eta parekatze sisteman horietako bat tokatzen bazaio, aurrera egiteko gogor egin beharko du borroka.

**TXAPELKETARA, ENTRENATUTA**

Maider Undak, orain arte, trabatuta izan du Europako Txapelketa. Europakoan lortutako markarik onena Bulgarian eskuratutako bosgarren postua da; izan ere, Finlandian jokatutako azken txapelketan hamabigarren postuarekin konformatu behar izan zuen: "Egia da inoiz ez naizela Europakora ondo entrenatuta joan. Normalean niretako goiz izaten da txapelketa hori. Baina oraingoak ezberdina izan behar du, erregularragoa naizela erakutsi nahi dut-eta".

Europakoaren ostean, irailean Danimarkan jokatuko duten Munduko Txapelketan lehiatuko da Unda, eta aurretik torneo mordoxka bat ere egingo ditu. Behin Europako txapelketaren eta opor txiki batzuen ostean, gogor ekingo dio berriz ere Munduko Txapelketa prestatzeari.

ZIKLISMOA > EUSKADIKO ITZULIA

# Euskal Herriko Itzulia, birritan Debagoienetik

Astelehenean hasiko dute Euskal Herriko Itzulia, Ataunen; ziklista onenak izango dira aurten ere

Debagoieneko ordezkaririk ez da lehiatuko; Irizar Belgikan izango da eta Velasco, Lizarran

**X.U.** > BERGARA

Aurten ere puntako txirrindulariek hartuko dute esku astelehenean hasiko duten Euskal Herriko Itzulian. Baina lehenengo etapan Ataunen elkartuko diren taldeen artean, duda barik, Alberto Contadorren Astana da indartsuena. Irteera puntuan izango dira, gainera, Tourreko irabazle Carlos Sastre (Cervelo), Schleck anaiak (Saxo Bank), Luis Leon Sanchez (Caisse d'Epargne), Vladimir Karpets (Katusha), Vladimir Efimkin (AG2R), Kim Kirchen (Columbia-High Road), Damiano Cunego (Lampre-NGC) eta Cadel Evans (Silence-Lotto).

Euskaltel-Euskadikoei dagokienez, belaunean arazoekin dabilen Samuel Sanchez da erreferentzia, eta ondoan izango ditu Egoi Martinez, Gorka Verdugo, Alan Perez, Ruben Perez, Juanjo Oroz, Iñaki Isasi eta Mikel Nieve. Bestalde, ibilbideari dagokionez, Euskal Herriko Itzulia birritan pasatuko da ibarretik: astelehenean Deskargatik sartuko dira ibarrera (Antzuola, 15:00) eta Oñatira egingo dute gero (Udana, 15:30). Eguaztenean, berriz, Arlabandik (15:05) etorriko dira gurera, eta Bergaran (15:45) Elgetarako (16:00) bidea hartuko dute.

**IRIZAR ETA VELASCO, KANPOAN**

Markel Irizar eta Iban Velasco ez ditugu Euskal Herriko Itzulian ikusiko. Velasco Lizarran izango da zapatuan, Miguel Indurain lasterketan, eta Errioxako klasikoa korrituko du ondoren. Oñatikoak, berriz, Belgika eta Frantzian egingo du astebete, segidan korrituko ditu-eta Flandriako Tourra, Ghent-Wevelgem eta Paris-Roubaix klasikoak.


Iazko irabazle Alberto Contador da aurten ere faborito nagusia. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > SERIES COLEGIALES

# Arizmendi Dragons taldea lauko finalean, Madrilen

Bigarren finalerdia jokatuko dute Arizmendikoek Santamarca taldearen aurka, bihar 19:00etan

Taldea animatzeko jokalarien gurasoak eta lagunak Magariños kiroldegiko harmailetan egongo dira

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Arizmendi Dragons saskibaloi taldeak Series Colegiales estatuko txapelketako lauko finala jokatuko du aste bukaeran Madrilen. Gure ordezkariarekin batera lehiatuko dira Santamarca taldea (Real Madrileko ordezkaria), San Estanislao (Unicajako ordezkaria) eta Badalones (DKV Joventuteko ordezkaria).

Bihar jokatuko dituzte bi finalerdiak (ikus beheko taula) eta irabazleek domekan jokatuko dute finala, 13:00etan. Telemadridek zuzenean emango du finala. Aurretik, hirugarren eta laugarren tokiak zehazteko partidua jokatuko dute. Lauko finaleko partidu guztiak Madrilgo Antonio Magariños kiroldegian jokatuko dituzte.

Txapelketa horretan egindako bidea modu ezin hobean bukatzeko finala irabaztea falta zaio Arizmendi Dragonsi; baina badakite ez dela erraza izango. Dena den, zaleen animuak jasoko dituzte; izan ere, jokalarien gurasoak eta lagunak harmailetan egongo dira. 25 bat lagun egongo dira taldea animatzen.

**BIDE LUZEA**

Finalean dauden taldeen artean ezusteko handiena Arizmendi Dragons taldeak eman du. Aurrean jarri zaizkion talde guztiak menderatu ditu. Arabako eskolen aurka, Mendebaldea, Marianistas, Olabidea eta Diocesanas taldeen aurkako kanporaketak menderatu zituen. Ondoren Zaragozan jokatu zuen Escolapiosen aurka. 71-72 irabazi eta gero, lauko finalerako txartela lortzeko lehia jokatu zuten Azpeitiko Loiolaren aurka. Ander Atxak, Jon Altubek, Iker Barberok, Julen Kortabarriak, Gorka Arejolaleibak, Iñigo Merinok, Aitor Revalok, Markel Balantzategik eta Iker Morenok ez zuten hutsik egin Iturripeko zaleen aurrean, eta final handia jokatuko dute.

## Lauko finala

**1. FINALERDIA**
**San Estanislao-Badalones**
> Zapatua, 17:00etan

**2. FINALERDIA**
**Santamarca -Arizme. Dragons**
> Zapatua, 19:00etan

**3-4. POSTUAK**
> Domekan 10:30ean

**FINALA**
> Domekan 13:00etan



Azpeitiko Loiolaren aurka irabazita lortu zuten lauko finalerako sailkatzea. IBAN AGINAGA

**Gorka Gabilondo** > Entrenatzailea

## "Madrilgo lauko finalean egotea saria da guretako"

**M.B.** > ARRASATE

**Azken asteko entrenamenduak egin ondoren, gaur 10:30ean abiatu dira Madril aldera autobusez. Taldea lasai dagoela esan digu Gorka Gabilondo entrenatzaileak.**

**Hainbat partiduren ostean, heldu da lauko finala. Nola dago taldea?**

Egia esan, nahiko lasai gaude. Ondo entrenatu gara eta jokalariak gogotsu daude. Dena den, azken ordura arte ez dugu jakingo Ander Atxak eta Markel Balantzategik jokatu ahalko duten. Igeltsuarekin egon dira. Euren parte-hartzea inportantea da taldearendako.



GOIENKARIA

**Finalerdia Madrilgo Santamarcaren aurka jokatuko duzue. Nolako taldea da madrildarra?**

Interneten begiratu dugu, eta oro har hiru taldeak oso garaiak direla esan behar dugu. Batez beste 1,90 metroko garaiera dute. Gainera, Badalones taldeko jokalarietako batzuk ACB ligan jokatzen dute Joventut taldearekin.

**Ze helburu duzue?**

Lauko finalean egotea saria da guretako. Pozik gaude orain arte egindakoarekin, baina partidu guztiak borrokatuko ditugu. Eta finalerako txartela lortzen badugu, finala irabazten ahaleginduko gara!

**PILOTA** > SENIOR MAILAKO FINALAK

# Bergara eta Eskoriatza, Udaberri Txapelketako finalean

Lehen eta bigarren mailetako finalak Bergaran jokatuko dituzte domekan

**M.B.** > BERGARA

Debagoieneko pilotariak izango dira protagonista Udaberri Txapelketako senior mailako finaletan. Hain zuzen ere, Bergarako pilotariak lehiatuko dira lehen mailako finalean eta Eskoriatzakoak bigarren mailakoan. Jaialdia domekan egingo dute Bergarako pilotalekuan, 11:30ean.

**"GOGOTSU GAUDE"**

Finalerdian Arrasateko bikotea menderatu ondoren, Mugurutzak eta Larrañagak Usurbilgo bikotearen aurka jokatuko dute finala. Finalerdian huts gehiegi egin zituzten arren, gogotsu daude domekako finalerako. "Gogotsu gaude, finala etxean jokatzen dugu-eta. Baina finalerdian baino askoz hobeto jokatu beharko dugu txapela janzteko", esan digu Eneko Mugurutzak.

Jaialdia hasteko bigarren mailako finala jokatuko dute: Eskoriatzako Alex Oiartzabalek eta Eneko Zubizarretak Eibarko bikotearen aurka jokatuko dute. Eskoriatzarrek Bergarako bikotea kanporatu zuten finalerdietan.



Bergarako pilotariak Arrasateren aurkako finalerdian. JOSETXO ARANTZABAL



Eriko eta Igartua -irudian- taldekideen lanarekin batera saiatuko dira hiru puntuak eskuratzen. GOIENKARIA

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# Bigarrenarekiko duen aldeari eustea izango da UDAren helburua

Zazpi jardunaldiren faltan Hernaniri bost puntu ateratzen dizkio Aretxabaletak; domekan Euskalduna izango da Ibarran bisitari (16:30)

**JASONE ZABALA** > BERGARA

UDAk beste aurrera pauso bat eman dezake domekan Andoaingo Euskalduna taldeari irabaziz gero (16:30). Igor Gordobil eta Igor Arenatzaren mutilek garaipen garrantzitsua lortu zuten pasa den astean Trintxerperen aurka eta lehen postuari tinko eusten diote; bigarren doan Hernaniri bost puntu ateratzen dizkiote. "Domekako partidua zaila ikusten dut, talde indartsua da andoaindarra eta estrategia jokaldietako lana oso ondo egiten du, gainera", esan digu Gordobilek. Liga amaitzeko zazpi jardunaldi gelditzen dira eta etxean jokatzeko gelditzen diren partiduak irabaztea eta kanpokoetan zerbait ateratzea oso garrantzitsua izango da. Baina Gordobilek esan duen moduan: "Partiduz partidu joan behar dugu, batuketa eta kenketa konturik egin gabe; egia da sasoi onean gaudela, baina aste batetik bestera gauzak nabarmen alda daitezke". Domekarako Ruben eta Iturbe zentralek ez dute jokatuko bost txartel hori dituztelako eta zigorra bete behar dutelako.

**BIDEA ZUZENDU**

Mondrak, bestalde, aukera ezin hobea dauka daraman bide oker hori zuzentzeko: bihar, sailkapenean azken postuan doan Amaikak Bat taldea hartuko du Mojategin (16:30). Azkargortaren mutilendako ezinbestekoa da garaipena Debako taldearen aurka, azken txanpa lasaiago jokatu ahal izateko. Azkenik, Aloña Mendik Ondarroako Aurrera taldearen aurka jokatu beharko du eta garaipenaren bideari eutsi (Domeka, 16:30).

## Mondrako nesken taldeak partidu erabakigarria dauka Tolosan

Bihar partidu zaila izango dute Mondra taldeko neskek bigarren doan Tolosaren zelaian.

*Txisko*-ren neskek zortzi puntuko aldea ateratzen diete tolosarrei (bigarren sailkapenean) eta beste lau puntu lortu behar dituzte gelditzen zaizkien hiru partiduetan multzoko txapeldun izateko; bihar beraz, aukera ezin hobea dute Tolosan. Garaipena lortuz gero, matematikoki eurena izango da sailkapeneko lehenengo postua.



GOIENKARIA

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Gimnastic de Tarrago.
Domeka. 18:30. Anoeta.

Levante-Eibar
Domeka. 17:00. Ciutat Vale.

**Gazteen euskal liga**
Aretxabaleta-Bergara
Zapatua. 17:45. Ibarra.

**Preferente maila**
Aloña Mendi-Aurrera
Domeka. 16:30. Azkoagain.

Mondra-Amaikak Bat
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aretxabaleta-Euskalduna
Domeka. 16:30. Ibarra.

**Lehen erregionala**
BTLS-Elgoibar
Zapatua. 17:45. Ipintza.

Orioko-Aretxbaleta
Zapatua. 18:00. Mendibeltz.

Antzuola-Mondra
Zapatua. 16:30. Estala.

Zestoa-Bergara
Zapatua. 16:15. Iraeta.

**Bigarren erregion. Igoera**
Bergara-Soraluze
Zapatua. 15:30. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Anaitasuna-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Txerloia.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Mondra-Lazkao
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**Lehen mailako gazteak, Kopa**
Aretxabaleta B Ariz.-Bergara
Zapatua. 13530. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Bergara-Beasain
Igandea. 12:00. Ipintza.

Aretxabale. Ariz.-Hondarribi
Domeka. 11:30. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak, Kopa eta jaitsi.**
Zarautz-Aloña Mendi
Domeka. 12:00. Asti-Txiki.

Touring-Arrasate
Zapatua. 12:00. Fanderia.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Aurrera Ondarroa-Aretxabal.
Domeka. 17:00. Zaldupe.

**Lehenengo kadeteak Kopa**
Bergara-Soraluze
Domeka. 17:00. Ipintza.

Aloña Mendi-Zestoa
Domeka. 11:15. Azkoagain.

Arizmendi-Lagun Onak
Zapatua. 11:15. Almen.

**Kadete Txiki**
Arrasate-Internacional
Domeka. 11:00. Mojategi.

**Infantilen ohorezko maila, kopa eta jeitsi.**
Bergara-Behobia
Domeka. 10:00. Ipintza.

Aretxabaleta Ariz.-Hernani
Zapatua. 11:30. Ibarra.

**Infantilen lehenengo maila, igoera fasea**
Aloña Mendi-Pasaia
Zapatua. 11:15. Azkoagain.

**Infantil txiki, txapeldun**
Arrasate-Sanse
Zapatua. 12:30. Mojategi.

**Infantil Txiki F-11**
Euskalduna-Aloña Mendi
Zapatua. 10:00. Allurralde.

**Emakumezkoen igoera**
Arizmendi-Touring
Zapatua. 15:30. Almen.

**Emakumezkoen kopa**
Ordizia-Arizmendi
Zapatua. 17:30. Altamira.

Elgoibar-Aloña Mendi
Domeka. 16:30. Mintxeta.

**Emakumezkoen kadete F11 Kopa**
Mondra-Orioko
Domeka. 16:30. Mojategi.

Luberri-Arizmendi
Domeka. 11:00. Berio.

**Emakumezkoen F11 kadeteak, txapeldunak**
Bergara-Ostadar
Zapatua. 10:00. Ipintza.

**Emakumezko kadete F8 Kopa txapelketa**
Ordizia-Aloña Mendi
Domeka. 16:00. Altamira.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila, Igoera**
MU-Bide Bide Ibiza
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Series Colegiales, Lauko Finala**
Santamarca-Arizm. Dragons
Zapatua. 19:00. Antonio Magariños kiroldegian.

**Gipuzkoako seniorrak**
Aloña Mendi-La Salle
Zapatua. 17:45. Zubikoa.

Oiartzun-Soraluce BKE
Domeka. 12:00. Elorsoro kir.

Gabi Jatetxea-Aloña Mendi B
Zapatua. 13:00. Olaizaga kir.

Zarautz-MU
Domeka. 17:00. Aritzbatal.

**Gipuzkoako ligako senior maila, emakumezkoak**
Eskoriatza-Cafes Aitona A
Zapatua. 18:00. Intxaurtxu.

**Gazte maila, gizonezkoak**
Tolosa-Transbretaña BKE
Zapatua. 16:00. Usabal Kirol.

**Gazte maila, emakume**
Soraluce BKE-BKL CAF.
Zapatua. 16:00. Mariaren La.

Eskoriatza-Easo Loyola
Zapatua. 16:00. Intxaurtxue.

**Kadete gizonezkoak**
Aloña-Urkitza
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

MU-Easo Gros Xake
Zapatua. 12:00. Musakola.

**Kadete, emakumezkoak**
Arizmendi Esko.-Bilintx
Zapatua. 10:00. Intxaurtxue.

Aloña Mendi-Goierri
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Infantilak, gizonezkoak**
LEK Arizme.-Easo San Patri.
Zapatua. 10:30. Musakola.

Aloña Mendi-Elizatxo HKE
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

**Infantilak, emakumezkoak**
Orioko Ikastola-Aloña Mendi
Zapatua. 10:30. Orio.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko Txapelketa**
Romo-Ford Mugarri
Zapatua, 18:00. Pol. Gaubela.

**EuskadikoTxapel. Emaku.**
Verkol Aloña-Ereintza
Domeka. 12:30. Zubikoa.

**Udaberriko torneo (kadete gizonezkoak)**
Donibane-Citroen Chapime
Zapatua. 16:30. Udal kirold.

**Udaberriko torneo (gazte emakumezkoak)**
Bera Bera-Citroen Chapime
Zapatua. 20:00. Donostia

**PILOTA**

**Eskuz binaka kadeteak**
Zapatua. 17:30. Adunan.
Bergara-Azkoitia

**Eskuz binaka gazteak**
Domeka. 11:00. Getaria.
Eskoriatza-Mundarro

**Eskuz binaka nagusiak**
Domeka. 11:30. Udal Pilot.
Eibar-Eskoriatza
Bergara-Usurbil

**ERRUGBIA**

**Multikirola**
10:45tik 13:00etara multikirolak eta bitartean Euskal Herriko selekzioa entrenatzen jardungo da.

**Senior gizonezkoak**
Arrasate- Old Boys B (Uruguay). Zapatua, 16:00etan.
Euskadi- Old Boys B, zapatua, 17:15

**Udeberri txapelketa emakumezkoak**
Zapatua. 16:00 , Donostia, Aiete.

**TXIRRINDULARITZA**

**Euskal Herriko itzulia:**
Asteleheneko eta eguazteneko etapak Debagoienetik pasako dira.



**Eskoriatza- Cafes Aitona A, bihar, 18:00etan**
Lauko finalean sartzeko lehian partidu garrantzitsua jokatuko dute bihar Eskoriatzako neskek Intxaurtxuetako kiroldegian.



> **IKUSKIZUNA**
Break dancea eta multimedia oinarri dituen ikuskizuna, Arrasaten > 38



> **BERTSOLARITZA**
Erramu-zapatuko jaialdia gaur, egubakoitza, Bergaran > 39

> **NEREA MENDIOLA**
Oñatiko gazteak futbola eta saskibaloia gustuko ditu, baina batez ere, saskibaloia. Horrez gain, 1 Formularen jarraitzaile amorratua da > 42



# Arrasate Musikalek orkestra sinfonikoa aurkeztuko du gaur

Arrasateko Udaberriko Musikaldiko emanaldia da; gaur izango da, parrokian, 20:00etan

Zarzuelaz gain, urtean kontzertu gehiago emateko sortu den proiektua berria da



Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoa gogoz dator; irudian, *El Barberillo de Lavapies* zarzuela ostean ateratako argazkia, 2008ko azaroan. ARRASATE MUSIKAL

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE
Arrasate Musikalek beste pauso bat eman du, lan handia eta historia luzea duen urrats kualitatiboa: Arrasatek orkestra sinfonikoa izango du aurrerantzean. Eta gaur da pribilegio horretaz gozatzeko lehen hitzordua; Arrasateko parrokian izango da kontzertua, 20:00etan. Kontzertua V. Udaberriko Musikaldiko egitarauaren barruan antolatu dute.

**INSTRUMENTU 'GUZTIAK' BATERA**
Orkestra sinfoniko bat sortzeak lan handia eskatzen du; baita instrumentu ezberdinak jotzen dakiten musikariak ere, noski. Izan ere, orkestra sinfonikoa instrumentu mota guztiek osatzen dute: harizko, haizezko –egurrezko zein metalezko– eta perkusio instrumentuek, hain zuzen. Arrasateko kasuan harizko instrumentuak dira nagusi; 21 guztira –14 biolin, hiru biola, hiru biolontxelo eta kontrabaxu bat.

**ZARZUELAZ HARATAGO**
Proiektu berri baten hasiera da Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak gaur eskainiko duen emanaldia. Edorta Aiastui Arrasate Musikaleko kideak jakinarazi duenez, "aurten, orkestra sinfoniko berriaren asmoa da gaurko kontzertua eta urte bukaerako zarzuela berria prestatzea".

Ezin da ahaztu orkestra sinfonikoa sortzeko *errudun* nagusia zarzuela izan dela, orkestrari hobetzen eta muga berriak apurtzen lagundu dion ikuskizuna izan baita. Hala, musikari asko zarzuelako orkestratan aritutakoak dira. Hala ere, gaur egingo duten moduan, zarzuelatik kanpo ere jo gura dute; hau da, Aiastuik dioenez, "urtean zehar zarzuelaz aparte beste kontzertu batzuk eskaintzea".

**AURREKARIAK IZAN DIRA**
Arrasatek izan zuen orkestra sinfonikoa. 1975ean sortu zen, Juan Artzamendi egun Arrasate Musikal moduan ezagutzen den musika eskolaren sortzaile eta orkestra zuzendariaren eskutik. Hasierako orkestra hura 12 eta 20 urte arteko 30 gaztek osatzen zuten, eta euren asmoa kontzertuen bidez musika zabaltzea zen. Edozelan ere, Artzamendi erretiratu zenean –1992an– orkestra sinfonikoa desagertu egin zen urtetan zehar, zarzuelaren bidez pixkanaka itzuli den arte.

Egungo orkestra sinfonikoan Arrasate Musikaleko ikasleek eta irakasleek hartzen dute parte, baina 1975ko orkestrako ikasle ohi batzuek jotzen dute oraindik ere. Iker Olazabal da orkestra sinfonikoaren zuzendaria. Olazabal izan da zarzuelaz haratago proiektuari jarraipena emateko apustua egin zen duena.

DATUA

**40**
**MUSIKARI**

Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoa 40 musikarik osatzen dute: harizko instrumentuetan 21, haizezkoetan 12 eta perkusiozkoetan hiru musikari. Orkestrako kide gehienak arrasatearrak dira.

ARRASATE MUSIKALEKO ORKESTRA SINFONIKOA

## Zarzuelak bultzatuta eta harrobi bikaina oinarri duela

Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoak asko zor dio zarzuelari. Arrasaten sekulako arrakasta duen ikuskizuna da, urtean egiten diren lau emanaldietan Amaia antzokia lepo betetzen duena. Eta ikuskizun horretako zutabe garrantzitsu bat izateak indarra eman dio orkestra sinfonikoari, zarzuelaz gain bakarkako ibilbideari ere ekiteko.

Bestalde, Arrasate Musikalek gazteagoak diren beste bi orkestra ditu, eta hori, Aiastuik aditzera eman duenez, "oso ona da orkestra sinfonikorako".



Iazko zarzuelan ere izan zen Arrasate Musikaleko orkestra sinfonikoa. GOIENKARIA

**IKUSKIZUNA** > 'PAPIRO...FLEXIA'

# Breakdancea eta multimedia uztartzen dituen ikuskizuna Arrasaten domekan

Circle of Trust eta Logela Multimedia taldeek egingo dute ikuskizuna

Sarrerak aldez aurretik eros daitezke kutxazainetan eta 'www.kutxa.net'-en

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Oso modan dauden bi genero ikuskizun berean ikusteko aukera izango dute domekan Arrasateko Amaia antzokira joaten direnek: alde batetik, breakdancea; eta beste alde batetik, multimedia. Circle of Trust eta Logela Mutimedia taldeek bat egin dute *Papiro...flexia* ikuskizunean. Domekako saioa 19:30ean hasiko dute eta sarrerak salgai daude Kutxako kutxazain automatikoetan eta *www.kutxa.net* webgunean.

**MUGIMENDU INDARTSUAK**

Domekako ikuskizunaren gainekoak ezagutzeko Logela Multimedia taldeko kideengana jo dugu: "Breakdancea, musika eta bideoak uztartzen dituen multimedia ikuskizuna da Arrasaten egingo duguna. Alde batetik, Logela Multimedia taldekoon bideoak ikus ahal izango dituzte; eta beste alde batetik, Circle of Trust taldeko dantzarien koreografiak. Dantzariek euren mugimendu indartsuak denbora errealean sortutako irudiekin nahasten dituzte".



Papiroflexian egin daitezkeen irudiak egiten dituzte gorputzarekin Circle of Trust taldeko dantzariek. LOGELA MULTIMEDIA

Emanaldiaren hasiera puntua orri zuri bat da. Orri hori manipulatuz milaka konbinazio sor ditzakete. "Ikuskizunaren beste elementu nagusia pantaila bat da. Horrekin interakzioa lortzen dugu, eta esketx barregarriak egiten ditugu. Ikuskizun dibertigarria da", esan digute Logela Multimediakoek. Gainera, diote 12 urtetik gorako edonor joan daitekela Amaia antzokiko emanaldira. "Askotan etorri dira gure emanaldietara nerabeak eta gazteak euren gurasoekin. Familiako kide guztiendako emanaldia da. Ordubete inguruko emanaldia egingo dugu", diote.

**AURRETIK ZORTZI IKUSKIZUN**

Logela Mutilmedia lau kidek osatzen dute: bik bideoak egiten dituzte eta beste bik musika. Euren helburua da proposamen eszenikoak egitea: "Musika eta irudiak egiten ditugu, eta biak elkartuz proposamen eszenikoak egiten ditugu".

*Papiro...flexia* egin aurretik beste zortzi ikuskizun egin dituzte: *Non demontre*, *Link Concert*, *Ohe handi bat*, *Klonk*, *Ikus*, *Break on stage* eta *Mokaua*.

Oraingo ikuskizunean Circle of Trust taldeko kideekin elkartu dira. "Urtero egiten dugun *Break on stage* jaialdian elkar ezagutu genuen, eta lehen aldiz *Klonk* ikuskizunean egin genuen lan batera. *Papiro...flexia* elkarrekin egiten dugun bigarren ikuskizuna da", esan digute. Circle of Trust taldeko kideak estatuko breakdance dantzari onenak direla esan digute Logela Multimediakoek: "Maila izugarria dute, eta paperarekin egin daitezkeen irudi guztiak egiteko gai dira gorputzarekin. Ikusgarria da". Ader, Phase, Marcos, Vento, *Extremo* eta *Put One* dira Circle of Trust taldeko dantzariak.



AMAIA ARANA

## Kopla kantarien txapelketan irabazle

Aurreko aste bukaeran ospatu zuten Mungian Euskal Herriko kopla kantarien II. txapelketa. Leintz trikiti eskoletako hainbat neska lehiatu ziren eta kopla kantari bikainak direla erakutsi zuten. Irune Lozak eta Irati Gutierrezek (argazkian) A mailako lehen eta bigarren sariak lortu zituzten. Bestalde, Jone Pagaldaik B mailako lehen saria eskuratu zuen.

**ZINEMA** > HUHEZINEMA LEHIAKETA

# 'Pim, pam, pum' laburrak, euskarazko lan onenaren saria

Huhezinemako dokumental onena 'Alamitou' izan da eta 'El tiempo prestado'-k jaso du fikziozko lan onenaren saria

**M.B.** > ESKORIATZA

Atzo banatu zituzten Huhezik antolatutako II. film laburren eta dokumentalen lehiaketako sariak. Epaimahaiak hiru sari eman zituen: alde batetik, euskarazko lan onenaren saria Andoni de Carlosek eta Asier Urbietak grabatutako hiru minutuko *Pim, pam, pum* laburrari eman zioten. Donostiako alde zaharrean grabatutako laburrak Mikelen istorioa kontatzen du: anaia txikia topatu behar du gurasoekin arazorik ez izateko. Beste alde batetik, dokumental onenaren saria eman zioten Jon Garañoren *Alamitou* dokumentalari. Etiopian bizi den izen bereko nerabe baten egunerokoa kontatzen du. Azkenik, David Gonzalezen *El tiempo prestado* izan zen fikziozko lan onena: Marta oporretan dago, eta ezustean aitona joaten zaio bisitan. Hiru saritutako bakoitzak 700 euro jaso ditu.

**IKUSLEEN SARIAK**

Bestalde, ikusleek euren botoekin erabaki zituzten beste hiru sariak. Huheziko ikasleei dagokionez, dokumentaletan *Blank post cards* eta fikzioan, *Hirian* nagusitu ziren. Mondragon Unibertsitateko ikasleek egindako lan onenaren saria *Hidden* filmarendako izen zen.

### Saridunak

**EPAIMAHAIAREN SARIAK**

**Euskarazko lan onena**
> *Pim, pam, pum*
> Andoni de Carlos eta Asier Urbieta

**Dokumental onena**
> *Alamitou*
> Jon Garaño

**Fikziozko lan onena**
> *El tiempo prestado*
> David Gonzalez

**IKUSLEAREN SARIAK**

**Dokumental onena**
> *Blank post cards*
> Ibai Vigil-Escalera.

**Fikziozko lan onena**
> *Hirian*
> Ainhoa Vitoria

**MUko ikasleen lan onena**
> *Hidden*
> Ibai Vigil-Escalera



Unai Iturriaga eta Jexuxmari Irazu. GOIENKARIA

**BERTSOAK** > ERRAMU-ZAPATUKO PROGRAMAREN BARRUAN

# Bertso jaialdia gaur Bergarako Udal Pilotalekuan

Amets Arzallus, Maddalen Lujanbio, Maddalen Arzallus, Jexuxmari Irazu eta Unai Iturriaga bertsolariek jardungo dute Bergaran

**E.M.** > BERGARA

Ohiturari eutsiz, Erramu-zapatuko feriaren inguruko ekitaldien barruan, bertso jaialdia izango da gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Pilotalekuan. Izen handiko bertsolariak ekartzea lortu dute antolatzaileek. Izan ere, Amets Arzallus, Maddalen Lujanbio, Maddalen Arzallus, Jexuxmari Irazu eta Unai Iturriaga bertsolariek jardungo dute. Gai jartzailea, berriz, Enaitz Alustiza bergararra izango da.

**PUNTA-PUNTAKO BERTSOLARIAK**

Bergarako Udalak eta Bergarako Bertso Eskolak antolatutako jaialdia da gaurkoa. Esan bezala, bertsolari gazteak baina punta-puntakoak izango dira gaur oholtza gainean, tartean Amets eta Maddalen Arzallus neba-arrebak. Guztien onena ateratzen saiatuko da Enaitz Alustiza. Sarrerak 5 eurotan eskuratu ahal izango dira Udal Pilotalekuko leihatilan bertan, jaialdia hasi baino ordu erdi lehenago.

**MUSIKA** > KONTZERTUA 3.60 ARETOAN

# DOA: hardcorearen historikoak Arrasaten

Joan den urtean 30. urteurrena bete zuen DOA talde ezagunak; Kanadakoekin batera Neallta Fola eta The Unseen izango dira bihar Arrasaten



Joe Shithead Keithley (eskuinean), DOAko abeslaria. GOIENKARIA

**EDU MENDIBIL** > ARRASATE

Ibilbide luzea daramate DOA taldeko kideek. 1978an sortutako taldea da eta ordutik lau haizeetara zabaldu dute haien musika. Bihar, zapatua, Arrasateko 3.60 aretoan izango ditugu. Haiekin batera, The Unseen eta Neallta Fola taldeek joko dute.

Zalantzarik gabe hardcore jarraitzaileen artean ezagunenekoak dira DOA eta, besteak beste, The Red Hot Chili Peppers, Green Day, Rancid eta The Offspring kanadarren eragina aitortu izan dute. Hori gutxi balitz, eta Vancouver hiriari eman izan dioten guztia eskertzeko, 2001a ezkero DOA eguna ospatzen da abenduaren 21ean euren jaioterrian; bertako kultura enbaxadoreak direla esan daiteke.

Joe *Shithead* Keithley-ren taldeak kaleratutako hamaika lanen artean *Hardcore 81* da diskorik arrakastatsuena, agian. Joan den urtean, taldearen 30. urteurrena ospatzeko *War and Peace* (Sudden Death diskoetxea) lana kaleratu zuten, 25 *hit* jaso zituzten bertan. Bihar gauean 3.60 aretora joaten direnek horietako asko entzuteko aukera izango dute, tartean *Fucked up Ronnie*, *The enemy*, *Liar for hire*, *Police brutality, Disco sucks* eta *Human bomb*.

**NEALLTA FOLA ARETXABALARRAK**

Esan bezala, Kanadakoekin batera Neallta Fola eta The Unseen izango dira bihar Arrasaten. Neallta Fola Aretxabaletako hirukotea da eta punk musika egiten dute; badituzte jarraitzaileak gure inguruan. The Unseen taldea, berriz, AEBetatik dator, Massachusettsetik hain zuzen. The Extinct izena zeukaten hasiera baten eta street punka egiten dute.

Zapatuko kontzerturako sarrerak 14 eta 16 eurotan jarriko dituzte salgai. Biharko kontzertua 22:00etan hasiko da.




ELKAR

## 'Ez ezkondu, aita!' Juan Martin Elexpuruk euskaratuta

Juan Martin Elexpuru idazle bergararrak Fina Casalderrey idazle galiziarraren (Xebe, 1951) *¡Non te cases, papá!* eleberria euskaratu berri du. Casalderreyk 1997an eman zuen argitara libur. Haur eta gazte literaturan hainbat sari jasotakoa da. *Ez ezkondu, aita!* (Elkar) euskarazko itzulpenaren aurkezpena martitzenean egin zuten Donostian (goian). Liburuak zera kontatzen du: Eliak aita zoragarria dauka, ama hil egin zitzaion. Beste emakume batekin dabil aita orain, baina Eliak ez du halakorik nahi...

**IRAKURZALETASUNA** > LIBURUAREN EGUNA

# Joxean Agirrek lan berria aurkeztuko du Oñatin, Liburuaren Hilabetean

Umeendako eta helduendako ekintzak eta bildumatik kendutako liburu eskaintza izango dira

**LEIRE KORTABARRIA** > OÑATI

Apirilaren23anNazioarteko Liburuaren Eguna dela eta, Liburuaren Hilabetea antolatu du Oñatiko Udal Liburutegiak. Lehenengo ekitaldia da gaur, egubakoitza, Kontu-Kontari taldearen emanaldiarekin, 18:00etan. Martitzenean,hilak 7, Mad Science taldeak Charles Darwinen 200. urteurrenaren inguruko tailerra gidatuko du. Bi saio horiek Haur Liburutegian izango dira, eta biotarako gonbidapena behar da.

**HELDUENDAKO EKINTZAK**

Helduei zuzendutako ekintzak Liburuaren Egunaren inguruan izango dira, bi bisitarekin. Hala, hilaren 22an, eguaztena, Joxean Agirre idazlearekin berriketan egiteko aukera izango da. *La lutte finale* nobela aurkeztuko du Agirrek, kultura etxean, 19:30ean. Hilaren 28an, martitzena, Jose Mari Carrerek Euskal Herriko eta kanpoko hainbat kulturatako ipuinak kontatuko ditu. Helduen liburutegian da hitzordua, 19:30ean.

**LIBURUAK OPARI**

Bestalde, urteroko ohiturari jarraituz, apirilaren 23an, Nazioarteko Liburuaren Eguna, liburutegiak bildumatik kendu dituen liburu hondatu eta errepikatuak eskainiko dizkie bazkideei.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**
**sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU.GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU.**
Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** 90 metroko etxea, 20 metroko terrazarekin. Eguzkitsua. Hiru logela, egongela handia, bi komun, sukaldea eta trastelekua. Garaje itxia. Jantzia. Bi urteko erabilera. Maria. 608 46 45 88.

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

### 102. EROSI

**Arrasate.** Etxebizitza erosiko genuke erdigunean edo inguruan. 69 eta 90 metro koadro artekoa. Garajea baldin badauka, hobeto. Prezioa etxearen egoeraren arabera adostuko genuke. Idatzi mezu bat *konpuprest@gmail.com*. edo deitu 693 34 58 69 zenbakira.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan Larrea plazan. 70 metro koadro. Bi logela, bi komun, egongela handia eta sukaldea. 656 75 00 94.

**Arrasate.** Etxebizitza ematen da errentan erdialdean. Deitu 696 72 27 00 telefonora.

**Arrasate.** Etxebizitza txikia ematen da errentan. Bikote batentzat egokia. Hilean 450 euro. Arratsaldeetan deitu, mesedez. 670 55 87 41.

**Bergara** Bi logeladun etxebizitzan errentan ematen da San Lorentzon. 675 euro. Deitu 688 69 00 02 zenbakira.

**Oñati.** Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. Deitu 677 21 21 62 edo 677 61 84 88 telefono zenbakietara.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aramaio.** Etxebizitza nahi dugu errentan. Bikote arduratsua. 615 73 79 11 edo 669 12 25 63.

**Bergara.** Etxebizitza txikia errentan hartuko luke familia batek. Deitu 649 63 23 24 edo 696 38 10 07 telefono zenbakietara.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Arrasatear batek logela bat ematen du errentan. Deitu 675 71 57 03 telefonora.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan San Andresen, igogailu eta garajearekin. Pertsona arduratsua behar da, bertan bizi den pertsonarekin arduratu beharko du eta. Presazkoa da. Deitu 672 20 36 82 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 662 63 76 33 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. Oso egoera onean. Telebistarekin. Deitu 696 53 36 44 telefonora.

**Arrasate.** Logela indibiduala. 190 euro. Telefonoa eta wi-fia barne. Mutil edo neska. Erdigunetik hiru minutura. Deitu 653 74 28 83 telefonora.

**Arrasate.** Malvinetan. Oso egoera onean dagoen etxebizitza batean pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 616 05 97 92 telefono zenbakira.

**Arrasate.** Pertsona batendako logela ematen da errentan. Deitu 636 91 93 81 zenbakira.

**Bergara.** Logela bat errentan ematen dut, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. Bolun. Deitu 670 85 86 68 telefonora.

**Bergara.** Logela bikoitza ematen da errentan. Erdialdean. Deitu 649 63 23 24 edo 696 38 10 07 telefonoetara.

**Bergara.** Neska bat behar da Bergaran etxea osatzeko. Deitu 665 73 98 98 telefonora.

**Bergara.** Pertsona bat behar dugu etxea osatzeko. Deitu 628 45 10 37 zenbakira.

**Oñati.** Gela bat ematen da errentan maiatzetik aurrera. Deitu 655 71 33 66 zenbakira.

**Oñati.** Gela ematen da errentan apiriletik aurrera. Deitu 617 14 39 41 telefonora.

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Bergara.** Garaje irekia salgai Masterrekan. Deitu 651 70 90 12 zenbakira.

## 3/ LOKALAK

### 303. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** 80 metro koadroko lokala erdigunean. Egoera onean. Elikadurarako ezin hobea. Komunarekin. 6.000 euro eskualdatzeagatik eta 500 euro hilean. 600 03 86 80 edo 943 14 84 67.

**Bergara.** Lokala ematen da errentan gazteentzat. Deitu 699 72 06 06 telefonora.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARETXABALETA**

**Emakumea behar da jatetxean, sukaldean lagundu eta garbiketarako. 679 45 57 76**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** 40 urtetik gorako neska euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean edo ospitalean. 943 79 54 21.

**Aretxabaleta.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke, goizez eta arratsaldez. Esperientzia daukat. Feli. 943 53 33 92.

**Arrasate,** Aramaio edo Aretxabaletan neska euskalduna gertu asteburuetan tabernan lan egiteko. 686 25 06 57.

**Arrasate.** Egun erdiz, osoz edo orduka lan egiteko gertu nago. 666 75 73 21.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak orduka zaintzeko edo etxean bertan bizi izateko, nagusiekin arduratzeko. 680 30 24 64.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. 649 30 13 60.

**Arrasate.** Emakumezkoa edozein lan egiteko gertu, goizez edo arratsaldez. Dorisegatik galdetu. Deitu 943 77 02 14 edo 646 86 43 89 zenbakietara.

**Arrasate.** Gizonezko gaztea gertu zerbitzari, garbiketa edo sukalde lanak egiteko, orduka edota jardun osora. Deitu 666 75 73 21 zenbakira.

**Bergara-Arrasate.** Neska euskalduna gertu garbiketa lanak egiteko eta umeak zaintzeko. 600 82 84 60.

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketa lanak ere egiteko gertu dago. Norma. Deitu 630 88 54 46 zenbakira.

**Bergara.** Neska gaztea garbitasun lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan lo egiteko. Deitu 617 29 49 81 zenbakira.

**Bergara.** Paperak dituen emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Deitu 686 99 59 41 telefonora.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Era guztietako jostun konponketak egiten ditut. 699 34 86 88.

**Debagoiena.** Neska gertu garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu edota tabernan lan egiteko. Alejandra. Deitu 608 34 36 11 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua edozein lan egiteko gertu: garbiketak, nagusiak edo umeak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. 638 23 37 39.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziak dauzkat. Deitu 628 40 58 27 zenbaikira.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna gertu edozein lan egiteko. Zerbitzari lanetan esperientzia daukat. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketa lanak egin eta ume zein helduak zaintzeko. Deitu 678 24 94 24 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko edo pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. 664 74 82 07.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko gauez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko. Etxean bertan lo egiteko prest. 606 64 16 09.

**Debagoiena.** Emakumea lan bila. Arduratsua, esperientzia garbiketan eta geriatria ezagutzak. Paperekin. 697 58 08 19.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 649 70 51 74.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 667 20 56 29.

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. 680 67 74 96.

**Debagoiena.** Erizain ikasketak ditut eta nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia eta lege dokumentuak ditut. Deitu 652 25 34 97 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakumea nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu. Erreferentziak eta legezko paperak dauzkat. Etxean bertan bizi izaten ere lan egingo nuke. Deitu 686 52 15 98 telefonora.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Garbiketa edo bestelako lanak egingo nituzke. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egiten edo ume zein nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Esperientzia daukat. Ainhoa. Deitu 671 35 22 60 telefonora.

**Debagoiena.** Garbiketak egin edo nagusiak zainduko nituzke, orduka. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Lan bila nabil. Garbiketa lanak egiteko, helduak edo umeak zaintzeko... Deitu 679 98 37 47 zenbakira.

**Debagoiena.** Langile gaztea naiz eta edozein jardueratan lan egiteko gertu nago. B gidabaimena daukat, eta auto propioa. Gonzalo. 696 48 42 50.

**Debagoiena.** Lehen mailako igeltseroa gertu sukalde edo komunak egiteko. Adreilu lanak, tabikeak egin, lurrak edo azulejuak ipini, eta abar. Autoa daukat. Legezko paperekin. 650 55 14 28 edo 627 10 98 43.

**Debagoiena.** Mutil gaztea lan egiteko gertu. 647 25 04 61.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarteak garbitzeko edota sukalde baten lan egiteko. Esperientziaduna. 943 08 18 13 edo 635 70 07 92.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 627 21 08 93.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izateko gertu nago. 663 65 78 43.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zaintzen, garbiketan edo sukaldean lan egingo nuke. Autoa daukat. 666 21 88 95.

**Debagoiena.** Pertsona nagusien zaintzan aditua eta esperientziadun neska lan bila dabil. Interesatuak idatzi helbide honetara *animilena1957@hotmail.com* edo 943 79 04 69.

**Debagoiena.** Sukaldaritzako lanak egiteko prest: sukaldari, laguntzaile edo zerbitzari. 646 25 59 19.

**Neska** euskalduna eta gaztea goizetan eta aste bukaeretan lan egiteko gertu. 697 41 66 24.

**Oñati.** Neska euskalduna prest uztailean umeak zaintzeko. Esperientziaduna. 651 70 85 13.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Oñati.** Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak ematen dituen norbait behar dut. 635 70 91 12.

### 502. EMAN

**Arrasate.** Arrasateko neska bat LH eta DBHko ikasleei eskolak emateko prest. 628 51 20 64.

**Arrasate.** Irakasle eta psikologoak Lehen Hezkuntzako laguntza eskolak emango lituzke. 645 73 04 69.

**Arrasate.** Batxilergo, DBH eta LMHko ikasleei eskola partikularrak emateko gertu; bereziki, matematika, fisika, kimika, teknologia eta ingelesa. Ingeniaritza ikasita. 664 66 73 09.

**Arrasate.** Ingeniaritza ikaslea matematika, fisika, kimika, teknologia edota ingeleseko eskola partikularrak emateko gertu, batxilergo, DBH eta Lehen Hezkuntzarako. Koldo. Deitu 660 14 56 67 zenbakira.

**Arrasate.** Irakasle eta psikopedagogoa Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. Esperientzia handia. Lantalde txikiak. 658 70 67 84.

**Ingeniaritza** ikaslea DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest astelehenetik ostegunera. Fisika, kimika zein matematika ikasgaiak oso ondo menperatzen ditut. Beñat. Deitu 645 73 53 95 zenbakira.

**Oñati.** Arkitekturako ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txikiei laguntza eskolak emateko. 665 70 38 33.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Cocker ingelesa** salgai. Beltza. Emea. Txertoak jarrita dauzka. 200 euro. Deitu 618 00 08 28 telefono zenbakira.

**Setterrak.** Hilabete eta erdiko setter txakurkumeak salgai. Aita-ama ehiztariak. 80 euro. 649 33 38 01.

### 704. BESTELAKOAK

**Pentsua.** Royal Canin Boxer 26. 12 kiloko bost zaku salgai. Zaku bakoitzak 55 euro. Deitu 651 37 65 67 edo 677 79 32 87 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Agenda elektronikoa.** PDA, eskuko agenda elektronikoa salgai. WI-fia, bluetootha, GPSa... HP iPAQ 114 Classic Handheld. Berri-berria, zozketa batean irabazia dago, kaxatik atera gabe. 230 euro. 615 72 47 43.

**Altzariak.** Bi logela eta sofa bat saldu nahi ditut. Miren. Deitu 650 17 71 73 telefonora.

**Bitrozeramika** berria salgai. 686 99 59 41.

**CPU bat** salgai. 40 GBko FAT 32 disko gogorra, 128 MBko RAM memoria, Microsoft Windows 98, LG DVD_ROM, SONY CD-RW, teklatua eta sagua, Office instalatuta eta pantaila barik. Deitu 943 76 29 34 zenbakira.

**Dendarako altzariak** salgai. Esekitzekoak, manikiak, bustoak eta bitrinak. Deitu 627 96 19 22 telefonora.

**Errepideko bizikleta.** Mendiz etxekoa. Ultegra osagaiak. Aurrealdeko urkila eta tija, karbonozkoak. 460 euro. Deitu 656 75 13 43 telefonora.

**Errepideko bizikleta** salgai. 54 neurrikoa. Deitu 628 00 76 62 telefonora.

**Lowepro CompuDaypack** motxila. Edukiera: reflex argazki kamera digitala, 2 edo 3 objektibo (tamainaren arabera), flash bat, 17 hazbeterainoko ordenagailu eramangarria, PDA, boligrafoak, kargadorea, eta jertsi bat sartzeko tokia. Gainera, iPodentzako poltsiko bat ere badu aurikularrak ateratzeko zulo batekin. Deitu 667 95 73 16 telefono zenbakira.

**Snow taula.** Nitro Pro 59 etxekoa eta Drake fijazioak. 370 euro. 42.5-43 neurriko botak ere bai. 120 euro. Behin bakarrik erabiliak. Deitu 645 72 25 24 telefono zenbakira.

### 802. EROSI

**Lursaila.** Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate inguruan lursaila erosi edo errentan hartuko nuke. Interesa izanez gero, deitu. Deitu 696 32 63 13 telefono zenbakira.

**Lanabesak.** Bigarren eskuko motozerra eta orturako rotabatorra erosiko nituzke. Deitu 699 85 49 58 telefonora.

**Urrezko** bitxiak edo urrea erosiko nituzke. Deitu 656 75 76 98 telefono zenbakira.

### 803. EMAN

**Biberoiak** esterilizatzeko ontzia eta titietatik esnea ateratzeko aparailua opari egiten dira. Deitu 653 71 64 79 telefono zenbakira.

### 804. HARTU

**Altzari zahar** eta sofa bila joaten gara. 943 03 87 24.

**Marinel jantzia.** Jaunartzea egiteko mutilendako marinel jantzia hartuko nuke. Trukean, beste zerbait emateko prest nago. Aurten jaunartzea egiteko. Lurdes. 637 52 89 83.

### 806. GALDU

**Eguzkitako betaurrekoak.** Martxoaren 20an, zapatuan, eguzkitako betaurreko graduatuak galdu nituen mendian, Besaiden. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 619 33 72 95 telefono zenbakira.

**Motxila.** Joan den martxoaren 17an, Arrasateko Munarreko parkean motxila galdu genuen, laranja kolorekoa eta loreduna. Barruan txankletak eta lepoko bat zeuden eta izena ipintzen du: Nahia I. Aurkitu badituzu, deitu, mesedez 619 87 57 48 zenbakira.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz joan-etorria.** Egunero Arrasatetik Gasteizera joaten gara. 08:00etarako etortzen gara eta 17:00etan irten. Interesatuz gero deitu. Automobila banatzeko zerbitzua: *http://www.compartir.org* webgunean edo 635 20 33 14 telefono zenbakira deituta.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Matxiategi 82 $m^2$. Eguzkitsua.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.
- Beheko auzoa. Berritua. 135. 000 €.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

**LOKALA**

Debagoienean bulego lanerako gertu dagoen 200 metro koadro inguruko lokala behar dugu errentan.

688 69 00 04

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6, behea / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**AZPIAZU ARANTZAZU**
Bergara / Herri Lagunak z/g / 943 76 41 32
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**AGIRRE ENARA - PSIKOTERAPEUTA**
Antzuola / Olaran etxea 3, MA10 / 670 45 19 62
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Nerea Mendiola** > 1 formula zalea

# "Auto txikien bilduma egiten dut; auto telegidatuena da gustukoen dudana"

Nerea Mendiolak futbola eta saskibaloia gustuko ditu baina batez ere bigarrena, "azken sugundora arte edozeinek irabaz dezakeelako". Bere lagunek diote askotan oso zaila dela haren erritmoa jarraitzea. Lau gurpiletako patinak asko gustatzen zaizkio "edozein lekutara eramaten ditut", eta baita autoenak ere: "Aurten ere Montmelora joango naiz", esan digu.

**JASONE ZABALA** > OÑATI

**Nerea Mendiola oñatiarrak ez daki zer den asperturik egotea. Informatikako Aplikazioen Garapena ikasketak burutu ditu eta horretan dabil lanean; baina lanak ez dio denborarik kentzen bere zaletasunetan buru belarri aritzeko: futbola, saskibaloia, dantza, 1 formula, irristaketa... Guretzat behintzat egin du tarte bat eta berarekin egon gara.**

**Saltsa askotako perrexila zarela esan genezake?**

Bai, gauza askotan sartuta nago; egia esan astean zehar ez daukat aspertzeko denbora asko. Hainbat zaletasun dauzkat eta guztiak egiteko denbora asko behar da.

Lanaz kanpo daukadan denbora guztia aprobetxatzea gustatzen zait. Egun batean gai izan naiz hiru leku desberdinetan hiru aktibitate desberdin egiteko. Lagunek esaten didate askotan oso zaila dela nire erritmoa jarraitzea. Egia esan ez nahiz geldirik egoten den horietakoa, ez.

**Informatika arloan egiten duzu lan, ezta?**

Betidanik gustatu izan zait; ikasketak amaitu ondoren lan horretan aritzeko aukera izan nuen eta ordutik mundu horretan nabil lanean. Asko gustatzen zait programatzea eta informatika mundua, zerbait berria denean, nola egin dezakedan ikertzea.

**Baskonia taldearekin ere asko sufritzen duzula esan didate...**

Kirola orokorrean jarraitzea gustatzen zait, batez ere saskibaloia eta futbola. Egia esan txikitatik izan naiz Baskoniako eta Realeko zale amorratua. Hasiera batean Realeko bazkidea izan nintzen urte askotan zehar eta Baskonia ikustera ahal nuen guztietan joaten nintzen. Orain, alderantziz egiten dut.

Baskoniako bazkidea naiz duela hiru urtetik eta Reala ikustera noizbehinka joaten naiz. Saskibaloian azken segundora arte edozeinek irabaz dezake, horregatik noizbehinka sufritu ere egiten dut! Aurten gainera Bartzelonan, Donostian, Bilbon eta Madrileko Errege Kopan egon naiz.

**Txoritxo batek esan dit ia-ia Iker Casillasen laguna zarela.**

Beno... Aurten nire anaiarekin Madrilera joan nintzen saskibaloiko Errege Kopan Baskonia ikustera. Sarrerak jaso ondoren Iker Casillasekin gurutzatu ginen eta ia elkar txoke egin genuen! Egia esan, nire anaia eta ni bakarrik konturatu ginen bera zela. Bera ere partidua ikustera zihoan eta beste inor konturatu baino lehen joan egin zen. Esperientzia polita izan zen Casillas hurbil hurbiletik ikustea.

**Orain lau gurpilei buruz hitz egingo dugu. Bizitza honetan ez da erraza izango zu irristatu eta jaustea...**

Egia esan ez! Txikitatik irristaketan ibili naiz, baina azken urte hauetan gogo gehiagorekin ari naiz. Urte osoan zehar saiatzen naiz kirol hori egiten, nahiz eta neguan nahiko zaila izaten den. Patinak beti prest edukitzea gustatzen zait. Edozein lekutara eramaten ditut eta ahal dudan guztietan aritzen naiz, askotan lanera ere patinetan joaten naiz.

**Orain motordun lau gurpilei buruz hitz egingo dugu: Montmeloko zirkuitua ere ederki ezagutzen duzu...**

Aspalditik jarraitzen dut 1 Formulako mundiala; gainera webgune bat ere badut (*www.aloina.net/Formula1*). Nire pilotu gogokoena Michael Schumacher izan da eta hurbiletik ikusteko gogo handia nuen. Horrexegatik orain dela lau urte Montmelora joateko aukera izan nuen eta ordutik beti joan izan gara. Asteburuan zehar izugarrizko giroa egoten da eta autoak frenatzean edo azeleratzean egiten duten zaratak gorputzean sortzen duten sentsazioa deskribatu ezina da.

**Autoen bilduma bitxia egiten duzu gainera. Nondik datorkizu zaletasuna?**

Egia esan ez dakit; nik uste dut 1 Formulako zaletasunagatik datorrela. Askotan esaten didate arraroa dela neska bati horrelako gauzak gustatzea, baina horrelako opari batekin beti asmatuko luke edonork nirekin. Dauzkadan auto gehienak 1 Formulakoak dira, baina bestelakoak ere baditut, tartean tamaina desberdineko autoen maketak, baina gehien gustatzen zaidana auto telegidatuen bilduma da.

Izugarri gustatzen zait barrutik nola dauden ikustea eta beraiekin ibiltzea; Gabon hauetan auto telegidatu berri bat oparitu zidaten eta hartzen duen abiadura eta ateratzen duen zarata izugarriak dira, benetako autoa dirudi.










JASONE ZABALA

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Informatikako Aplikazioen Garapena. **Zaletasunak:** Batuka, kubatar dantzak eta margotzea. **Mania bat?** Domeka guztietan atun tortila afaltzea eta autoko eta etxeko ateak ondo itxi ditudan behin eta berriz egiaztatzea. **Bizio bat?** Txokolate beltza. **Zer eramango zenuke irla desertu batera?** Poxpolo kaxa bat. **Bat Formulako pilotu gustukoena?** Michael Schumacher. **Musika talde bat?** Pereza. **Bidaiatzeko leku bat?** New York, baina Gabonetan.

# Korrikak gurean utzitakoak 'Erreportajea'-n

Julen Iriondok Korrikak Debagoienean utzitakoak jasoko ditu 'Erreportajea'-n

**GOIENKARIA** > ARRASATE
Bihar iritsiko da hamar egunez Euskal Herriko hainbat bazter eta txoko igaro ondoren Korrika 16 Debagoienera. Hain justu, gaueko hamabietan iritsiko da Bergarara; handik Antzuolara egingo du eta Deskarga mendatea igo eta Urola bailara zeharkatu ondoren, goizeko laurak inguruan iritsiko da Udanan behera Korrika Oñatira. Ibarreko herriak igaro ostean, goizaldeko zazpietan utziko gaitu euskararen aldeko jai erraldoiak. Gatzaga izango da Korrika 16k Debagoienean igaroko duen azken herria. Goiena Telebistak Korrika jarraituko du herririk herri eta Korrika Kulturalaren barruan antolatu diren ekintzak ere jasoko ditu. Hori ikusteko aukera eguaztenean duzue, 22:15ean.

**GOITB, 'Erreportajea'**
> Eguaztena, 22:15



Korrika bihar gaueko hamabietan iritsiko da ibarrera. GOIENKARIA

## Aste Santu ostean bueltan

**UBANE MADERA** > ARRASATE
Aste Santuko oporralditxoa badatorrela-eta, Arrasate Irratian ere etenaldia egingo dute, Pazko aste ostera arte. Hori, zuzeneko saioari dagokionez; izan ere, 107.7 sintonia ez da isilik geratuko; ohi bezala, kantu esanguratsuak entzuteko aukera izango duzue. *Igo autobusera* zuzeneko saioari dagokionez, apirilaren 20an bueltatuko da, 10:00etatik 12:00etara, astelehenetik barikura.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 12:00etara



GOIENKARIA

## Doke txapelketa 'Zaharrak berri'-n, eguaztenean

Zaldibarko lurrek Oñatikoak ala Arrasatekoak izan behar zuten doke txapelketa baten bidez erabaki zela dio mito batek. Garai baten, Oñatirenak omen ziren orain Arrasatekoak diren Zaldibarko lurrak. Dokean irabazita, lur horiek Arrasaterenak izatera pasatu ziren. Ordutik hona, Aste Santuan doke txapelketa egiten da Arrasaten, eta txapelketa hori ekarriko du Oihana Elortzak datorren eguazteneko *Zaharrak berri* saiora.

**GOITB, 'Zaharrak berri'**
> Eguaztena, 20:45

### telebegi

**Edorta Arana**
'edorta.arana@ehu.es

## Plano motzean

Ez dira hauek GOITBko *Ilunpean* saioa gustatzen zaidala esateko idazten ditudan lehen lerroak. Klasiko bat da euskarazko tokiko telebistagintzan. Dagoeneko, lau aurkezle eduki izan ditu. Eta esango nuke, neurri batean, aurkezleak saioa egiten duen moduan, programak berak aurkezlea moldatzen duela. Hasierako Aintzane Gardokik kazetal ikutua markatu zion, sakoneko elkarrizketa izateko jaio zen programari. Gero etorri zen Oihana Elorza argi-ilunez osaturiko anbientazio intimoa finkatuz. Aurrerago, Iker Barandiaranek entzule ona izan beharra eta gidoia aurrez landu beharraren garrantzia garbi utzi zituen, betiko. Egun hauetan, Jon Berezibar dabil, Katixa Agirre idazlea bezalakoak elkarrizketatuz. Telebistako eskaintza oparoan, alternatiba erakargarria izaten segitzen du. Errealizazio landua eta gidoia noraino zaindu behar diren gogoraraziz.

### arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

### astea GOITBn

**Egubakoitza, 3**
**13:15** Marrazki bizidunak.
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Euskal Herria lau haizetara.
**22:45** Musikantoi.
**13:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 4**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Pelikula.
**16:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Musikantoi.
**00:00** Jazz.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 5**
**08:00** Pelikula.
**09:00** Trikitraka trikiton
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Arte irekia.
**12:30** Mugaz Kanpo.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:15** Jazz.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** Erreportajea.
**21:00** Wazemank.
**21:45** Berbaire
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

**Astelehena, 6**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikasberri Rallysprint.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Mugaz kanpo
**15:45** Euskal artzainak.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wazemank
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Nire Herria: Arama.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Martitzena, 7**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Ajoarriero.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Euskal Herria lau haizetara.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean: Itziar Gomez.
**23:00** Wazemak.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 8**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Aiton-amonak.
**14:15** Jazz
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Nire herria.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Zaharrak berri.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea.
**23:00** Mugaz kanpo.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 9**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Musikantoi.
**00:00** Jazz.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

## herritarrak galdezka

### ZE TXERTO DIRA DERRIGORREZKOAK?

**Madagaskarrera bidaian doan lagun batek galdetu digu ea txertoren bat hartzea beharrezkoa den hara joateko. Hala bada, ze txerto? Eta non hartu behar da?**

Osakidetzara deitu dugu argibide bila, eta Gasteizen egoitza duen Nazioarteko Txerto Zentrora bideratu gaituzte. Hango arduradunek esan digutenez, horrelako kasuetan onena da zentro horretan hitzordua egitea, eta han, modu pertsonalizatuan, eta norberaren egoera eta premiak kontuan hartuta, esango diote ze txerto behar dituen. Gero, txertoa bera nork bere herriko anbulatorioan har dezake. Hitzordua egiteko honako zenbakira deitu behar da: 945 75 94 06.

Edozein modutan, Madagaskarri dagokion argibide orokor gisa esan digute "derrigorrezko txertorik ez" dagoela, baina "gomendatuta" egon daitekeela, kasuaren arabera, malariaren aurkako txertoa hartzea. Horrez gain, Espainiako Kanpo Ministerioak oharrarazten du paludismo arriskua dagoela.



Madagaskarrera joan aurretik, Osakidetzaren txerto zentrora jo beharra dago. GOIENKARIA

### AUTOBUSAK BERANDU ETORTZEN DIRENEAN, NORK ABISATU BEHAR DIE BIDAIARIEI?

**Bergaran autobusa sarri erabiltzen duen pertsona batek deitu digu esateko behin baino gehiagotan etortzen direla autobusak berandu geltokira, eta jakin nahi du ea zergatik ez den inor etortzen abisatzera horrelako kasuetan. "Norbaitek abisatuko baligu autobusa berandu etorriko dela, aukera izango genuke beste autobus bat hartzeko; bestela, horrelakoetan jendea berandu iristen da lanera, klasera... Zeinen lana da abisu hori ematea? Norengana zuzendu behar dugu horrelakoetan?".**

Pesaren bulegoetara deitu dugu eta bertan adierazi digute ez dutela inor ipiniko geltokietan autobus bat berandu datorrenenean bertan itxaroten dauden erabiltzaileei abisatzeko; ez, behintzat, oraingoz. Adierazi digute arrazoi asko egon daitezkeela autobusak berandu etortzeko: istripu bat, beste edozein arazo... Esan digute erabiltzaileek bi bide izango dituztela autobusa berandu datorren edo ez jakiteko eta horrela erabiltzaileek beraiek erabaki dezaketela beste autobusen bat hartu edo berandu datorren horri itxaron: alde batetik, Pesako telefonora deitzea (902 10 12 10), edo bestela, *www.pesa.net* webgunean begiratzea: "Webgune hori beti egoten da eguneratuta eta nahi duenak ere bertan begira dezake".

Baina, hala eta guztiz ere, adierazi digute oso zaila dela berandu datorren autobus batek zenbateko atzerapena izango duen jakitea: "Zein atzerapenekin datorren jakitea zaila da, arazoaren arabera dagoelako".

Baina geltokira heltzen diren beste lineetako autobus gidariek ere atzerapenaz informa dezaketela esan digute: "Horrelakoetan, zerbait gertatzen denean beste autobusetako gidariak ere informatu egiten dituzte barne lineatik, eta, geltokira heltzen direnean, bertan zain dauden erabiltzaileei ere abisua pasa diezaiekete", adierazi digute arduradunek.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitek arduratzen bazaitu eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, egiguzu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagokionarekin.
- Telefonoz: 943 25 05 05
- Faxez: 943 25 05 12
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 4**
Zapatuan giro hezea espero dugu. Euria botako du, baina arratsalderako atertu egingo du. Tenperaturak antzera jarraituko du.



**Domeka, 5**
Tenperaturak gora egingo du pixka bat eta zerua estalita egongo da, nahiz eta eguzki izpiak ere egongo diren.

### EUSKAL HERRIAN

Eguzki tarteak egongo diren arren, tenperaturek gora egingo dute, astea ere horrela hasiko dugu nahiz eta martitzenerako tenperaturak nabarmen jaitsiko diren eta euria ere egingo du.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguaztena, 25 — 0º C

**MAXIMOA** Eguena, 26 — 20º C

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — 16 L

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 25 | 16 | 0 | - |
| Eguena, 26 | 20 | 1 | - |
| Egubakoitza, 27 | 19 | 2 | - |
| Zapatua, 28 | 9 | 6 | 5,1 |
| Domeka, 29 | 11 | 4 | 8,8 |
| Astelehena, 30 | 12 | 3 | 2,1 |
| Martitzena, 31 | 12 | 5 | - |

## bono fotoa



**Hasieran Olozko Santa Engrazia deitzen zen Antzuolako ermita hau XVIII. mende amaieratik beste izen batekin ezagutzen dugu. Zein da bere izena?**

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Arrasateko **Bego Arrieta Pagalday**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena: Zalduspetik.**

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..........
IZEN-DEITURAK ..........
HERRIA .......... TELEFONOA ..........

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 4 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |
| Domeka, 5 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Astelehena, 6 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Martitzena, 7 | Amezua | Santa Marina., 32 | 943 77 09 74 |
| Eguaztena, 8 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Eguena, 9 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 77 14 09 |
| Egubakoitza, 10 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 4 | Urrutikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Domeka, 5 | Urrutikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |
| Astelehena, 6 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Martitzena, 7 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Eguaztena, 8 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguena, 9 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Egubakoitza, 10 | Urrutikoetxea | Oxirondo plaza, 4 | 943 76 11 74 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 4 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 5 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Astelehena, 6 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Martitzena, 7 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |
| Eguaztena, 8 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Eguena, 9 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 10 | Anduaga | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 4 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 5 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 6 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 7 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 8 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguena, 9 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 10 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

## hildakoak

- **Juan Alcorta Guenetxea.** Bergara, martxoaren 27an. 81 urte.
- **Jose Cubero Gartzia.** Arrasate, martxoaren 27an. 73 urte.
- **Ana Asuncion Alkorta Etxezarreta.** Arrasate, martxoaren 28an. 56 urte.
- **Lucia Lasagabaster Arenaza.** Aretxabaleta, martxoaren 28an. 51 urte.
- **Victoriana Bartolome Medina.** Arrasate, martxoaren 28an. 94 urte.
- **Roman Lezeta Madinabeitia.** Arrasate, martxoaren 28an. 90 urte.
- **Andres Andetxaga Unzueta.** Eskoriatza, martxoaren 29an. 94 urte.
- **Roman Lezeta Madinabeitia.** Arrasate, martxoaren 29an. 89 urte.
- **Andres Andetxaga Unzueta.** Arrasate, martxoaren 29an. 94 urte.
- **Isabel Arabaolaza Inza.** Oñati, martxoaren 30ean. 87 urte.
- **Vicente Alonso Sanchez.** Arrasate, martxoaren 30ean. 69 urte.
- **Francisco Molina Higeras.** Bergara, martxoaren 31an. 73 urte.

# ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:
**943 25 05 05**

Edo zatoz ordezkaritza batera:

**Arrasate**
Goiena: Otalora lizentziaduna 31. 943 25 05 05.
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05.

**Bergara**
Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05.

**Oñati**
Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.

**Aretxabaleta**
Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

**Aramaio**
Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

**Elgeta**
Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98

**Antzuola:**
Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

**Eskelaren prezioa: 110 euro.**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **150** euro.

**ASTELEHENEKO GOIENKARIAko harpidedunak: 100 euro**
Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **140** euro.

**Goienkaria: astero, 39.000 irakurle. (CIES)**



## ezkontzak



**Andres Elortondo** eta **Kontxita Bergaretxek** urrezko ezteiak ospatuko dituzte. 50 urte aberats hauek familia giro ezin hobean ospatu eta disfrutatu zuen seme, errain eta ilobekin batera. Meza Arrasateko Uribarri auzoan izango da eta bazkaria Zelai-Zabalen.



**Nekane Lopez** arrasatearra eta Mendaroko **Aitzol Ezenarro** apirilaren 4an, zapatuan, ezkonduko dira Itziarko elizan. Bazkaria Salegi jatetxean egingo dute. Ezkon-bidaian Australia eta Polinesiara joango dira. Zorionak, bikote! Manuel, Maite, Amalur, Mon, Aitor, Monika eta Lierniren partetik.

---

ESKER ONA

## Lucia Lasagabaster Arenaza

Iruñean hil zen 2009ko martxoaren 28an, 51 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Aretxabaletan, 2009ko apirilaren 3an.

---

OROIGARRIA

## Lutxi Lasagabaster Arenaza

Iruñean hil zen 2009ko martxoaren 28an, 51 urte zituela.



*Laster arte ezpainetan
utzi gaituzu penetan
orain gure ametsetan
bizirik zaude benetan
zeruko izarretan
eta gure bihotzetan.*

Goio eta Jasone, Joseba eta Asun eta Alberto eta Begoña.
Eskoriatzan, 2009ko apirilaren 3an.

---

ESKER ONA

## Isabel Arabaolaza Inza

Jose Arana 'Otamendi'-ren alarguna.

2009ko martxoaren 30ean hil zen, 87 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Oñatin, 2009ko apirilaren 3an.

---

OROIGARRIA

## Ana Asuncion Alkorta Etxezarreta

Gasteizen hil zen 2009ko martxoaren 28an, 56 urte zituela.

*Muxibarko lagunen
partetik, bihotzez.*

Arrasaten, 2009ko apirilaren 3an.

---

URTEURRENA

## Maxima Madina Arriola

Felipe Arejolaleibaren alarguna



Lehen urteurreneko meza domekan,
apirilaren 5ean, 13:00etan Aramaioko
Uribarri auzoko elizan ospatuko da.

Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

---

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

# Apirilak 3-7

MONIKA BELASTEGI
Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Erakusketa



ARETXABALETA

**> Manolo Urtubiren argazkiak ikusgai daude Arkupe kultura etxean**

Manolo Urtubi Aretxabaletako argazki taldeko kideak erakusketa jarri du Arkupen, apirilaren 20ra arte. Paisaiak dira nagusi jarritako 20 argazkietan. Zapatuan 11:00etatik 13:00etara; aste barruan goizez eta 18:00etatik 20:00etara.

## Musika



ARRASATE

**> Goikobalu abesbatzak eta Orkestrak Mozarten 'Requiem'-a eskainiko dute**

Goikobalu abesbatza 20. urteurreneko ospakizunetan murgilduta dago eta biharkoa izango da hitzordu garrantzitsuenetako bat. Orkestraren laguntzaz, Mozart-en *Requiem*- a eskainiko dute zapatuan San Frantzisko elizan, 20:00etan.

## Musika



BERGARA

**> Pettiren emanaldia domekan Zabalotegi aretoan**

Berako musikariaren emanaldia Bergarako aretoan domekan. Kontzertu akustikoa emango du, kantu ezagunenak zenbait klasikoren bertsioekin tartekatuta. Domekan 19:00etan izango da kontzertua. Sarrerak, 3 eurotan.

# Musika

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko Orkestraren emanaldia**

*Udaberriko V. Musikaldia* programaren barruan.

Gaur, egubakoitza, Arrasateko parrokian, 20:00etan.

ARRASATE

**> Pablo Sorozabal haize boskotearen emanaldia**

*Udaberriko V. Musikaldia* programaren barruan.

Domekan, hilak 5, Kulturateko areto nagusian, 20:00etan.

BERGARA

**> Aitor Olea organo-jolearen emanaldia martitzenean**

*Apirilean musika* programaren barruan, kontzertu didaktikoa eskainiko du Oleak.

Martitzenean, hilak 7, Bergarako Musika Eskolan, 19:00etan.

# Antzerkia

ARRASATE

**> 'Papiro... flexia' emanaldia Amaia antzokian**

Circle of Trust & Logela taldearen eskutik. Breakdance dantzarien saioa denbora errealean sortutako irudiekin nahastuta, ikuskizun dibertigarria da.

Domekan, hilak 5, Amaia antzokian, 19:30ean.

# Erakusketak

BERGARA

**> Jorge Oteitzari eskainitako erakusketa**

Orioko artista handiaren lanari gainbegiratua egiten dion erakusketa.

Apirilaren 3tik maiatzaren 3ra. Martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeketan: 12:00-14:00.

ARRASATE

**> 'Biblioteca en guerra'**

Liburuaren Egunaren inguruan antolatuta.

Apirilaren 30era arte Kulturateko klaustroan (Aste Santuan itxita).

ARAMAIO

**> '20 urte amets bat eraikitzen'**

Udaletxean, apirilaren 3tik 5era eta hilaren 24tik 26ra.

Gaur: 18:30-20:00. Zapatuan: 12:00 - 14:00/ 17:30-19:00. Domeka: 12:00- 14:00/ 18:00-19:00.

PROPOSAMENA



BERGARA

**> Bertso jaialdia gaur gauean Bergaran**

Bergarako Bertso Eskolaren eta Udalaren eskutik, Erramu-zapatu bezperako bertso jaialdia izango da gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Pilotalekuan. Enaitz Alustitza bergararrak jardungo du gai-jartzaile eta bertsotan, berriz, honako hauek: Amets Arzallus, Maddalen Lujanbio (goiko argazkian), Jexuxmari Irazu, Maddalen Arzallus eta Unai Iturriagak.

Gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Pilotalekuan, 22:30ean. Sarrerak 5 eurotan salgai.

# Ikastaroak

ARETXABALETA

**> Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak**

Pintura, zeramika eta eskulan ikastaroak antolatu ditu Kultura Sailak.

Argibideak Arkupen: 943 08 10 01.

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARETXABALETA

**> Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Apirilaren 23an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *berenaiara@yahoo.es* helbidera idatzita.

ESKORIATZA

**> Masaje bateratua, Jose Luis Armendiarekin**

Mendebaldeko masajea (lasaigarria-kiromasajea) eta ekialdekoa (digitopuntura-yoga pasiboa) bateratzea izango du helburu.

Apirilaren 23tik ekainaren 18ra, eguenero, 17:45etik 19:45era kultura etxean. Prezioa: 40 euro. Izena emateko azken eguna: apirilak 8.

BERGARA

**> Lotura afektiboen gaineko ikastaroa, emakumeendako**

Harreman afektiboak nola sortzen ditugun aztertu eta landuko da Udaleko Ongizate sailak antolatutako ikastaroan. Apirilaren 20tik ekainaren 22ra, saioak astelehenetan izango dira, 15:00etatik 17:00etara, kultura etxean. Gaiarekin interesa duten emakumeei zuzenduta. Plaza mugatuakl.

Izenematea Udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo 943 77 91 65 telefonoan.

# Hitzaldiak

OÑATI

**> 'Alimentación sana, económica y segura' hitzaldia**

Jesus Romerok (Bioelikartea-ko kide denak) egingo du hitzaldia.

Martitzenean, hilak 7, kultura etxean, 18:00etan. Elkarhezitzenek antolatuta.

**ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA**

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz.

**PALNETARIUM BERRIA**

**Kupula osoan proiektatzen diren erresoluzio handiko irudi ikusgarriak:** Asteburu eta jai egunetako saioak: 12:00 eusk., 13:00 gazt., 15:30 fran., 16:15 gazt., 17:00 eusk., 18:00 gazt.

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Ikas ezazu gurekin zeruko objektuak ezagutzen eta disfruta ezazu Astronomiaz.

**Itsua izar begiekin:** Ipuin animatu bat, non itsu batek eta tirano batek, unibertsoaren ezagupenera hurbilduko gaituzten.

**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria.

**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia.

**IKUSKIZUN ETA ANIMAZIOAK**

**Elektrizitate ikuskizuna:** Ileak puntan jarriko dizkizun esperientzia.

**CO2 Sublimea ikuskizuna:** Materiaren egoeraren aldaketetan ematen diren erreakzio kimikoak, ikuskizun bihurtuta.

**Planetarium Txikia:** 4-9 urte bitartekoek ere izarrak ikus ditzaten.

**Simulagailuak:** Errusiar mendia eta tranbia gidatzailearekin disfrutatzeko aukera.

**Eta gainera:** Segway-a, Fakirraren ohea, Eguzki erlojuak, Uraren ibilbidea, Eguzki Sistema Familia.

**BESTE AKTIBITATEAK**

Apirilaren 5ean, eguzki behaketa publikoa, museoko atarian, 11etatik 13etara. Doan.

Apirilaren 25ean, Karrantzako Haranera antolatu dugun txangorako izen-emate epea irekita.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

# Lehiaketak

BERGARA

**> Mendekoste jaietako kartel lehiaketa**

Pazkoetako egitarauaren azala egiteko lehiaketa deitu du Bergarako Udaleko Kultura Sailak. Bergaran erroldatutako edozein pertsonak har dezake parte lehiaketan. Irabazleak 600 euro jasoko ditu.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 28 arte dago zabalik. Argibideak Bergarako kultura etxean, 943 77 91 59 telefono zenbakian.

DEBAGOIENA

**> Ziberkomiki lehiaketa deitu du Diputazioak**

Aldundiko Euskara eta Kultura Sailak ziberkomikien eskola lehiaketa antolatu du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta DBHko ikasleek har dezakete parte. Lan onenendako sari bikainak izango dira.

Lanak entregatzeko epea apirilaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiago *www.gipuzkoaeuskara.net/ziberkomikia* webgunean.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte izango da zabalik.Argibideak 943 79 41 39 telefono zenbakian.

ESKORIATZA

**> Bideo lehiaketa deitu du Eskoriatzako Udalak**

Udalaren *Kataia eten barik* egitarauaren barruan aurrengo nobedadea bideo lehiaketa da. 12 urtetik gorakoei zuzenduta, banaka zein taldeka. Gaia: Kanpotik nator, baina bertakoa naiz. 300 euroko saria.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 19ra arte zabalik. Argibideak: 943 71 44 07.

DEBAGOIENA

**> Elkar argitaletxeak ipuin ilustrazio lehiaketa deitu du**

Hamar urte arteko haurrei zuzendutako lehiaketa da Elkarrek deitutakoa. Joxan Ormazabalen *Hitz eta zaunka* ipuin argitaragabea ilustratuz saria irabazteko aukera izango dute parte-hartzaileek.

Argibide gehiago Elkar liburu dendetan edo *www.elkar.com* webgunean.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz. Epea irailaren 11n bukatuko da.

Argibide gehiago 94 624 34 82 zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.

# Zinema




## Los abrazos rotos **

**Zuzendaria:** Pedro Almodovar.
**Aktoreak:** Penelope Cruz, Lluis Homar, Jose Luis Gómez. Espainia, 2009. 85 min.

Heldu da, bi urtero gertatzen den moduan, Almodovarren azken filma, *Los abrazos rotos*. Estreinaldiak komunikabideetan toki ugari izan du, Almodovar oso gizon *mediatikoa* dugu, jarraitzaileak eta kontrakoak izaten ditu, eta horrela ikusmina sortzen du estreinaldi bakoitzean. Bere zinema gehiago edo gutxiago gustuko izan dezakegu, baina ezin zaio ukatu duen izpiritu inkonformista: badakizki, gutxi gorabehera, arrakasta edukitzeko formulak, baina berak gauza berriak sortu nahi ditu, pauso bat aurrera eman nahi du. Horren ondorioz, *La mala educación* eta *Los abrazos rotos* sortzen ditu.

Bi filmen egitura nahiko korapilatsua da: garai desberdinetako gertakizunak nahasten ditu, pertsonaia askoren istorioa kontatzeko. Sekretuz osatutako istorioak dira, denboran ezkutatutako sekretuak. *Los abrazos rotos* hiru urte ezberdinetan gertatzen da, zineman kokatuta dago eta melodrama, bere amodio sutsuekin, eta *thriller*-a nahasten ditu. *Thriller*-a denez, misterioa mantendu nahi du eta horretarako pertsonaiei buruz ez ditu gauzak askorik argitu nahi, pertsonaia batzuk ondo garatu gabe geratzen dira, istorio nagusian dauden azpi-istorioak zerbait sakabanatuta geratzen dira. Hau dela eta, *La mala educación*-ek zuen intentsitatea eta erotasuna falta zaio filmari. Dena den, film interesgarria eta erakargarria da; eta baditu maisutasunez filmatutako eszena ugari.

Bizitza eta zinema elkartzen ditu, zinemaren indar liluratzailea aldarrikatuz. Pertsonaiei dagokienez (bikotea Rosselliniren *Te querré siempre* ikusten) zein Almodovarri berari dagokionez: *Los abrazos rotos*-en erreferentzia zinematografiko ugari daude: Michel Powell-en *El fotógrafo del pánico*; Hitchcocken *Encadenados;* edo John M. Stahlen *Que el cielo la juzgue.*

**Antonio Zabala**

### ARRASATE

#### AMAIA ANTZOKIA

**La duda**
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Bonkers (Txoriburuak)**
Zapatua: 17:00.

### OÑATI

#### KULTURA ETXEA

**Mi nombre es Harvey Milk**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**RH + Sevillako banpiroa**
Zapatua eta domeka: 17:00.

### ARETXABALETA

#### ARKUPE

**El curioso caso de Benjamin Button**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.

**Bonkers (Txoriburuak)**
Domeka: 17:00.

### EIBAR

#### UNZAGA

**Slumdog millionaire**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

### GASTEIZ

#### GURIDI

**Confesiones de una compradora compulsiva**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:00, 19:45, 22:30.

**Street fighter: la leyenda**
18:00 (egubakoitzean); 17:00.

**Monstruos contra alienígenas**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 16:45, 18:45, 20:40, 22:30.

**La vida secreta de las abejas**
20:15, 22:30 (egubakoitzean); 19:45, 22:30.

**La casa de mi padre**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:00, 19:45, 22:30.

**Una pareja de tres**
18:00 (egubakoitzean); 17:30, 20:00.

**Retorno a Hansala**
20:15, 22:30 (egubakoitzean); 22:30.

**La lista**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

**Mentiras y gordas**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

#### FLORIDA-GURIDI

**Los abrazos rotos**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

**Gran Torino**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

**La duquesa**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

**Animal Channel**
17:30 (euskaraz, zapatuan eta domekan).

**En el séptimo cielo**
18:00, 20:15, 22:30.

**La ecuación del amor y la muerte**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:00, 21:00, 22:45.

**The visitor**
18:00, 20:15, 22:30 (egubakoitzean); 17:30, 20:00, 22:30.

**Slumdog millionaire**
18:00, 20:15, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

#### YELMO-GORBEIA

**Confesiones de una compradora compulsiva**
16:25 (zapatuan eta domekan), 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**Mentiras y gordas**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:15, 22:15, 00:15.

**Traidor**
20:20, 22:30, 00:40.

**Superpoli de centro comercial**
22:20, 00:20.

**Street fighter: la leyenda**
16:20 (zapatuan), 18:20, 20:20 (egubakoitzean eta zapatuan); 15:30, 17:30 (domekan).

**Los abrazos rotos**
20:00, 22:20, 00:40.

**Duplicity**
19:40, 22:05, 00:30.

**Una pareja de tres**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
20:05, 21:55, 23:45.

**Gran Torino**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**La lista**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:50, 22:00, 00:10.

**La duquesa**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**Slumdog millionaire**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:40, 19:55, 22:10, 00:25.

**La pantera rosa 2**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45.

**Un chihuahua en Beverly Hills**
16:30 (zapatuan eta domekan).

**Más allá de los sueños**
16:05 (zapatuan eta domekan), 18:05.

**Hotel para perros**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**El curioso caso de Benjamin Button**
18:30, 21:30, 00:20.

**Monstruos contra...**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Fast and furious: aún más rápido**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:20, 20:30, 22:40, 00:50.

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

#### ÁBACO BOULEVARD

**La casa de mi padre**
16:10, 18:15, 20:20, 22:35, 00:45.

**Gran Torino**
15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

**Mentiras y gordas**
16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:45.

**Slumdog millionaire**
22:30.

**Hotel para perros**
16:00, 18:00.

**Los abrazos rotos**
22:05, 22:40.

**Confesiones de una compradora compulsiva**
15:50, 18:00, 20:15.

**Duplicity**
17:00, 19:30, 22:00.

**Street fighter: la leyenda**
16:00, 18:05, 20:15, 22:20, 00:30.

**Una pareja de tres**
15:50, 18:10, 20:30, 22:45, 01:00.

**Más allá de los sueños**
16:05, 18:15, 20:20.

**Underworld: la rebelión de los licántropos**
22:30.

**Fast and furious: aún más rápido**
15:50, 18:05, 20:25, 22:45, 01:00.

**Monstruos contra alienígenas**
16:10, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**La lista**
15:50, 18:05, 20:25, 22:40, 01:00.

Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.




**Mi nombre es Harvey Milk****
AEB, 2008. Zuzendaria: Gus Van Sant. Aktoreak: Sean Penn, James Franco. 128 minutu.
Harvey Milki buruzko biografia honek New Yorkeko kritikarien bi sari jaso zituen eta, horrez gain, Sean Pennek Oscarra eraman zuen. Homosexuala zela esan zuen lehen politikaria izan zen Harvey Milk; kargu publiko baterako hautatu zuten 1977an eta handik urtebetera hil egin zuten.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**Camino** ****
Espainia, 2008. Zuzendaria: Javier Fesser.
Hutsak harrotu dituen filma. Benetako gertakizun baten oinarrituta, 11 urteko Camino izeneko neskatoaren istorioa kontatzen du. Hilzorian dago, eta maitemindu egiten da... Sei Goya sari eskuratu ditu Fesseren lanak.

**Slumdog millionaire** **
Erresuma Batua, 2008.
Zuzendaria: Danny Boyle.
Zortzi sari jaso ditu azken Oscarretan. Jamal Malik Bombayko nerabe pobre bat da. Telebista lehiaketa batean dirutza irabazi ostean, poliziak atxilotu egingo du, tranpak egin dituelakoan.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririkin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu, gaztetuz, zahartu beharrean.

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako..

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

## nire aukera



Lierni Altuna
Arabako Bertso Txapelketako koordinatzailea

## Bertsoak eta Korrika Gasteizen

Lierni Altuna aramaioarra (26 urte) dabil Arabako Bertso Txapelketako koordinatzaile. Bihar izango da finala, Gasteizko Principal antzokian, 17:00etan. Manex Agirre aramaioarra izango da finalisten artean. "Lierni moduan txapela herrira etortzea nahi nuke, baina koordinatzaile moduan onenak irabaz dezala", diosku.

Filosofia eta Antropologia ikasten dabil eta, era berean, irakaslea ere bada Lierni, nahiz eta gaur egun liberatuta egon. Asteburua Gasteizen emango du, zapatuan bertso txapelketa... eta domekan Korrika agurtzen.

**Domekan korrika egitera, beraz?**
Ez dakit ba... Zapatuko finalaren ostean parranda egiteko ohitura daukagu eta zaila izango da domekan korrika ateratzea... Ziurrenik txalo egiten, eguzkitako betaurrekoekin badaezpada ere.

**Aramaioarrak ez dira faltako finalean, ala?**
Ez, koadrilatxo bat bazkaria egin eta finalera joango da. Girorik ez da faltako eta Manexek ez ditu faltan igarriko lagunen animuak.

**Koordinatzaile lanetan, zer izan da zailena eta errazena?**
Zailena, babesleekin egon eta protokolo kontuak. Errazena, zera: egondako toki guztietan lanerako gertu zegoen jendea topatu dugula.

**Aramaion bizi zara. Aste bukaera baterako plana?**
Lagunekin egon, mendira joan edo bizikletan ibili, parrandatxoa egin...

**Egondako azken kontzertua?**
Gorroto taldekoak lagunak ditut eta haiena izan da azken kontzertua, Arrasateko Etxoste tabernan.

**Aste Santuan, zer?**
Asturias aldera joateko asmoa daukagu, zehazki nora joan erabakitzeke dugun arren.

**Edu Mendibil**

Goienkaria
EGOITZA NAGUSIA
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
Harpidetza: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
2009-04-03

# Mekanikari lehia Danimarkan

**SILKEBORG** Gorka Artola bergararra automozioko ikasleen munduko txapelketan lehiatu da Danimarkan

**HIRU EGUN** Sei lagun izan ziren lehian eta jardunaldi luzeak izan zituzten, 08:00etatik 16:00etara

**SUEDIAN** Datozen hiru hilabeteotan praktikak egingo ditu Gorka Artolak Suedian, Norrköping hirian

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Gorka Artola 19 urteko ikasle bergararra Silkeborg-en (Danimarka) ospatu berri den automozioko ikasleen munduko txapelketan lehiatu da. Lanbide Heziketako bigarren kurtsoa egiten dabil Gorka Elgoibarko Institutuan. Elkartruke baten bidez, bi danimarkar irakasle Elgoibarren egon ziren eskolak ematen, eta orduan sortu zen txapelketara joateko aukera.

Asier Garitaonandia irakaslearekin martxoaren 13an Danimarkara atera zen Gorka Artola: asteburua Silkeborg eta ingurua ezagutzeko aprobetxatu zuten eta txapelketa hilaren 17tik 19ra jokatu zen. Sei lagun izan ziren lehian (tartean neska suediar bat) eta jardunaldi luzeak izan zituzten, 08:00etatik 16:00etara: "Lehen bi egunetan ez nintzen batere fin ibili, kapota margotzen bukatzeko denborarik ez zidan eman eta hegats konponketa ez zen batere ondo joan. Azken egunean askoz gusturago amaitu nuen; marrazketa teknikoan [bandera bat margotu beharra zuten auto-an] eta kapotari berniza ematen puntuaziorik onena lortu nuen eta kolorimetriako probak uste baino hobeto joan ziren", diosku Artolak. Etxekoak, Danimarkako ordezkariak irabazi zuen txapelketa, Suediako eta Finlandiako ordezkarien aurretik. Norvegiarrak, alemanak eta Gorkak ez zuten podiumera igotzerik izan. Bergarakoaren hitzetan: "Saririk ez lortu arren, merezi izan du etortzea, ikasi eta ikusitakoagatik besterik ez bada".

**DANIMARKATIK SUEDIARA**

Danimarkako txapelketa bukatu eta Suedian zegoela hitz egin genuen Artolarekin. Söderkoping-en, hego ekialdeko herri txiki baten dago eta datozen hiru hilabeteotan praktikak egingo ditu ondoko Norrköping hirian. Suediako erritmora ohitzen dago poliki-poliki: "Eguzkia sartzearekin batera, 18:00 aldera, ez dabil inor kalean. Baina ez da harritzekoa: zero azpitik 12 gradu genituen aurreko astelehenean...".



**DANIMARKAN** Asier Garitaonandia automozio irakaslea Elgoibarren eta Gorka Artola ikasle bergararra Silkeborgen. GOIENKARIA

## ahobero

### "Aita Santuarekin ados nago, kondoia ez da irtenbidea; nire umeei azalduko diet zer den koitoa eta zer esanahi duen"

**Arantza Quiroga** >
PPko Euskadiko presidenteordea

Kondoia erabili ala ez bere esku dago, baina ideologiaren *agindu*z egitea norberaren gustu naturalei jarraituz baino... hori da harrigarria XXI. mendeko emakume batek egitea.

## iturri onetik

### Xabier Lete kantari eta poeta Elgetako Espaloia antzokian izango da udazkenean

Data zehatzik oraindik ez badago ere, urriaren amaieran edo azaroan izango da poeta eta kantari oiartzuarra Elgetako antzokian. Pamiela argitaletxearekin kaleratutako *Egunsentiaren esku izoztuak* poema liburuan oinarritutako emanaldia izango da. Orain arte emanaldi gutxi batzuk egin ditu (Donostian, Iruñean, Bilbon eta Zarautzen), denboraldi luzean isil samar ibili ostean.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Zalaparta

Sinatu dute azkenean akordioa sozialistek eta popularrek, Patxi Lopez izan dadin hurrengo lehendakaria. Eta hauteskunde gauean hasitako zalaparta areagotu egin da. Alferrik.

Esana dago hauteskundeek izan zuten bekatua, 100.000 boto inguru bazter utzita. Baina motz gelditzen da analisi hori: kontua ez da bakarrik etsaiak tranpa egin duela agintea eskuratzeko, eta nazionalismo bat besteari gailendu zaiola. Hortik haratago, uste dut Sabino Aranaren egitasmo abertzalea amaitu dela, eta tranparik gabe ere amaituko zela luze gabe.

Ordua da pentsatzen hasteko zer dugun euskaldunok geroratzeko, zer den egingarri, eta nola jokatu behar dugun maila bateko biziraupena lortzeko. Agonia barik, munduak ez du-eta gure malkoen beharrik.

## ai, ene!



### Artea buru gainean: burua baso bihurtua

Mozorrotzeko transformatu izan dugu gure burua, baina nor iritsi da Levi van Veluw holandarraren moduan burua baso bihurtzera?

www.planetacurioso.com

